

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

1028

AGINDUA, 2018ko otsailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitzen dira, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Hezkuntza Sailak, dagokion eskumenean eta Jaurlaritza gidatzen duen «Euskadi auzolana» printzipioari leial izanda, kalitatezko enplegu publikoa sustatu nahi du eta euskal hezkuntza-sistemako irakasleei egonkortasun handiagoa eman nahi die; egonkortasun hori gure gazteen eta, oro har, gure herritarren prestakuntza eta hezkuntza hobetzeko lagungarri izango delakoan.

Helburu hori betetzeko xedearekin, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko otsailaren 14ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2018rako lan-eskaintza publikoa onartu da. Eskaintza hori onartu da 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017ko Legean aldi baterako enplegua egonkortzeko prozeduren arloan aurreikusitakoari jarraituz.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 16. artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa) ezarritakoaren arabera, hezkuntzaren alorreko karrerako funtzionarioak hautatzeko sistema lehiaketa-oposizio bidezkoa izango da, eta aurretik deialdi publikoa egingo da.

Era berean, Hezkuntzaren gaineko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen duen Irakaskuntza-kidegoetan sartu, kidego horietara iritsi eta espezialitate berriak eskuratzeari buruzko araudia onartzen duen eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrek irakaskuntza-kidegoetan sartzeko behin-behineko erregimena arautzen duen otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuko 3. artikulua ezarritakoaren arabera, deialdia egiten duten administrazio publikoek, behin lan-eskaintzak onartuta, lan-eskaintza horietan aipatutako lanpostu baimenduak betetzeko deialdiak egingo dituzte, betiere aplikagarri zaizkien funtzio publikoko arauak betez.

Aipatutako araudian ezarritakoa betetzeko, Agindu honen bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitzen ditu. Horrez gain, aipatutako kidegoetako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko prozedura ere deitzen du.

Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozedurari dagokionez, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren III. tituluan eta horren hirugarren xedapen iragankorrean jasotako xedapenak aplikatu behar dira (xedapena Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017ko Legean aldi baterako enplegua egonkortzeko aurreikusitako prozesuen ondorio diren sarrera-prozedurei buruzkoa da). Irakaskuntza-kidegoetara iristeko eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedurei dagokionez, IV. eta V. tituluetan jasotako xedapenak aplikatu behar dira, hurrenez hurren.

Adierazitakoaren babesean, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan xedatutakoa betez, eta Sail honi esleitutako eskumenak baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2018rako enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko otsailaren 14ko Aginduan iragarritako lanpostuei dagokienez.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko prozedura deitzea.

Hirugarrena.– Aipatutako hautaketa-prozedura horiek arautuko dituzten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabete bateko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion salari, gehienez ere bi hilabeteko epean, aipatu egun beretik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

OINARRIAK

AURKIBIDEA

- I. TITULUA – Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko eta iristeko prozedurak.
- I. kapitulua – Oinarri orokorrak.
 - 1.– Xedea, parte hartzeko txandak, lanpostuak eta araudi aplikagarria.
- II. kapitulua – Parte hartzeko betekizunak.
 - 2.– Parte hartzeko betekizun orokorrak eta berariazko betekizunak ezartzea.
- III. kapitulua – Parte hartzeko eskabidea eta dokumentuak.
 - 3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, horiek aurkezteko tokia eta epea, eta bestelako dokumentuak aurkezteko egutegia.
- IV. kapitulua – Onartutako eta baztertutako izangaiak.
 - 4.– Izangaiak onartzea.
- V. kapitulua – Hautaketa-organoak.
 - 5.– Hautaketa-organoak: Epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak.
- VI. kapitulua – Oposizio-fasea.
 1. atala – Aurreko probak.
 - 6.– Gaztelaniaren eta euskararen ezagutza egiaztatzeko probak.
 2. atala – Oposizio-faseko proben definizioa eta ezaugarriak.
 - 7.– Oposizio-fasea.
- VII. kapitulua – Lehiaketa-fasea.
 - 8.– Dokumentuak entregatzea, ofizios barematzea eta puntuazioak argitaratzea.
- VIII. kapitulua – Lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditzea.
 - 9.– Lehiaketa- eta oposizio-faseetako puntuazioak haztatzea eta puntuazio globala.
 - 10.– Izangaiak ordenatzea eta oposizio-lehiaketa gainditzea.
 - 11.– Hautatutako izangaiek egin beharrekoa.
- IX. kapitulua – Praktika-fasea.
 - 12.– Praktiketako funtzionario izendatzea.
 - 13.– Praktika-fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.
- X. kapitulua – Karrerako funtzionarioak.
 - 14.– Karrerako funtzionario izendatzea.
- XI. kapitulua – Ordezkoen zerrendetan sartzea.

15.– Zerrendak irekitzea hautaketa-prozesuko probak gainditu dituztenentzat.

II. TITULUA – Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.

16.– Datu orokorrak.

17.– Betekizunak.

18.– Eskabideak.

19.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

20.– Hautaketa-organoak.

21.– Probaren hasiera eta garapena.

22.– Probaren ezaugarriak.

23.– Kalifikazioa.

III. TITULUA – Datu pertsonalen tratamendua.

I. TITULUA

IRAKASKUNTZA-KIDEGOETARA SARTZEKO ETA IRISTEKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1.– Xedea, parte hartzeko txandak, lanpostuak eta araudi aplikagarria.

1.1.– Lehiaketa-oposizioa deitu da Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko eta horra iristeko.

1.2.– Guztira, 1.511 lanpostu eskainiko dira, A-1 azpitaldekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa) eta A-2 azpitaldekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa).

Lanpostu horietatik 732 txanda irekirako izango dira (A txandarako); 109, desgaitasuna dutenentzat gordetako txandarako (B txandarako), eta 670, goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozedurarako (D txandarako).

1.3.– Honela banatuko dira lanpostuak kidego, espezialitate, eskatzen den hezkuntzako hizkuntza-eskakizun eta txandaren arabera:

1.3.1.– Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa.

2018ko otsailaren 27a, asteartea

Especialitatea	2. HE			Guztira
	A	B	D	
Filosofia	11	2	14	27
Latina	4	1	4	9
Gaztelania eta Literatura	60	10	71	141
Geografia eta Historia	57	9	66	132
Matematika	67	11	78	156
Fisika eta Kimika	46	7	54	107
Biologia eta Geologia	28	4	32	64
Euskara eta Literatura	46	8	54	108
Marrazketa	17	3	20	40
Frantsesa	4	1	5	10
Ingelesa	36	6	42	84
Musika	5	1	6	12
Gorputz Hezkuntza	13	2	15	30
Teknologia	28	4	32	64
Ekonomia	14	2	17	33
Informatika	38	6	44	88
Enpresen administrazioa	9	2	12	23
Analisiak eta industria-kimika	4	1	4	9
Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	4	1	5	10
Laneko prestakuntza eta orientabidea	14	2	16	32
Gizarte esku-hartzea	5	1	6	12
Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa	4	1	6	11
Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak	39	6	45	90
Energia sistemen antolakuntza eta proiektuak	4	1	5	10
Osasun-prozesuak	4	1	4	9
Sistema elektronikoak	4	1	5	10
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak	7	1	8	16
Guztira	572	95	670	1.337

1.3.2.– Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa.

Especialitatea	2. HE		Guztira
	A	B	
Instalazio elektroteknikoak	19	1	20
Ibilgailuen mantentze-lanak	7	1	8
Makinen mekanizazioa eta mantentzea	100	8	108
Osasun eta laguntza prozedurak	8	1	9
Merkataritza-prozesuak	7	1	8
Administrazio-kudeaketako prozesuak	8	1	9
Informatika sistemak eta aplikazioak	11	1	12
Guztira	160	14	174

1.4.– Lanpostuen ehuneko zazpi desgaitasuna duten pertsonak betetzeko gordeko dira, hala ezartzen baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikulua.

1.5.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan eta goragoko talde bateko irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran eman gabe geratzen diren lanpostuak txanda irekian eskaintako lanpostuei gehituko zaizkie.

1.6.– Araudi aplikagarria.

Hautaketa-prozedura honetan aplikatzekoak dira honako hauek:

– Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa (LOE), Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak aldatua.

– Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

– Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

– Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

– Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntza-kidegoetan sartu, kidego horietara iritsi eta espezialitate berriak eskuratzeari buruzko araudia onartzen duena eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena arautzen duena.

– Otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoaren inguruko Akordioa osatzen duten beste estatu batzuetako herritarrik Espainian sartu, modu askean zirkulatu eta egoitza izateari buruzkoa; azaroaren 18ko 1710/2011 Errege Dekretuak aldatua.

– Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta erregimen bereziko ikasketen irakaskuntzan jarduteko prestakuntza-beteki-zunak zehazten eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoen espezialitateak ezartzen dituena.

– Irailaren 23ko EDU/2645/2011 Agindua, irakaskuntza-ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat izanik master-ikasketarik egin ezin duten pertsonei eskatzen zaien prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren prestakuntza baliokidea ezartzen duena, ekainaren 7ko ECD/1058/2013 Aginduak aldatua.

– Azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretua, Espainiako antolamendu juridikoan txertatu zituena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko irailaren 7ko 2005/36/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 2006ko azaroaren 20ko 2006/100/EE Zuzentaraua, lanbide-kualifikazioen onarpenari eta abokatu lanbidean aritzearen alderdi jakin batzuei buruzkoak.

– Azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretua, unibertsitateko titulazio eta ikasketa-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko zein ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen dituena, atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen espainiar esparruaren baitako mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere, arkitekto, ingeniari, lizentziadun, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa zein diplomadun goi-mailako titulu ofizialei dagokienez.

– Otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.

– Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, irakasle-lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigor-tasun-datak zehazteko irizpideak ezartzen dituena, martxoaren 10eko 42/1998 Dekretuak aldatua.

– Urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakasle-postuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituena.

– Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

– Abuztuaren 30eko 190/2011 Dekretua, Lanbide Heziketako irakasleentzat hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzeko irizpideak ezartzen dituena.

– Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

– Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretua, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatueta irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena.

– Oro har, aplika daitezkeen gainerako xedapenak eta deialdi honetan ebatzita.

II. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

2.– Parte hartzeko betekizun orokorrak eta berariazko betekizunak ezartzea.

2.1.– Betekizun orokorrak.

Betekizun orokor hauek bete beharko dituzte hautaketa-prozeduretan onartu ditzaten nahi dutenek:

a) Europar Batasuneko estatueta bateko nazionala izatea, edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan egotea, eta ondorioz langileen zirkulazio librea aplikatzeko den estatu batekoa.

Horrez gain, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatueta nazionalen ezkontideek, ondorengoez eta ezkontidearen ondorengoez, bai eta Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio librea aplika dakiekeen estatueta nazionalen ezkontideek, ondorengoez eta ezkontidearen ondorengoez ere, baldin eta dagokion itunean hala ezarrita badago, edozein nazionalitatekoak izan arren, baldin eta ezkontideak legez bananduta ez badaude eta ondorengoez hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan arren, gurasoen ardurapean bizi badira.

b) Hamasei urte izatea eta erretiroa hartzeko oro har zehaztutako adinera oraindik ez iritea.

c) Aukeratzaren diren kidego eta espezialitatearen funtzioetan aritzearekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Zigor-espeditatearen bidez edozein administrazio publikoren zerbitzuetatik kendu ez izana, eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaituta ez egotea.

e) Aukeratu nahi den kidegoko karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario ez izatea edo karrerako funtzionario izendatua izateko zain ez egotea, espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran parte hartzen bada salbu.

f) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, 2.6 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Dena den, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako/OHOko eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako bitarteko irakasleek eta aldi baterako irakasle kontratatuek funtzionario izaera lortu bazuten dekretu hori indarrean sartu zenean (1993ko apirilaren 3an), honako epe hau izango dute egiaztatzeko:

– hiru urteko epea jabetza hartzen dutenetik, euskaraz irakasten ari badira edo euskarazko izendapenarekin irakasten ari badira eta berehalako derrigortasuna duten 2. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostuetan hasiko badira.

– hiru urteko epea jabetza hartzen dutenetik, berehalako derrigortasuna duten 1. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostuetan hasiko badira.

– bost urteko epea, berehalako derrigortasuna ez duten lanpostuetan hasiko badira.

g) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, haien hizkuntza-ofiziala espainola ez bada, hizkuntza horren ezagutza jakin bat egiaztatu beharko dute, deialdi honen 6.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

h) Epai irmoaren bidez zigorrik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta osotasunaren kontrako delituren batengatik –sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien trafikoa sartzen dira delitu horietan–.

2.2.– Berariazko betekizunak.

2.2.1.– Betekizun orokor horiez gain, hautaketa-prozeduretan onartuak izateko, izangaiek honako hauek bete beharko dituzte:

2.2.1.1.– Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa.

a) Doktoretza, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo dagokion graduiko titulua izatea, edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gaindituta izatea eta titulua eskuratzeko eskubi-deak ordainduta izatea.

Era berean, irakaskuntzarako baliokidetzat jotzen diren titulazioak ere onartu ahal izango dira (III. eranskinean daude zerrendatuta).

b) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 100.2 artikuluan adierazitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jaso izana, 2.2.3 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

2.2.1.2.– Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa.

a) Unibertsitate Diplomatura, Arkitektura Tekniko, Ingeniaritza Tekniko edo dagokion graduiko titulua izatea, edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gaindituta izatea eta titulua eskuratzeko eskubi-deak ordainduta izatea. Era berean, irakaskuntzarako baliokidetzat jotzen diren titulazioak ere onartu ahal izango dira (IV. eranskinean daude zerrendatuta).

b) Aipatutako kidegoan atal honen amaieran aipatutako espezialitatearen batetik sartzeko, a) atalean adierazitako titulazioaren ordean, nahikoa izango da honako bi hauek batera betetzea:

– Gutxienez bi urteko irakaskuntza alorreko esperientzia, lortu nahi duen espezialitatean, 2007ko abuztuaren 31 baino lehen eskuratutakoa, autonomia erkidego honetako ikastetxe publikoetan.

– Teknikari espezialistaren titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua edukitzea, lortu nahi duen espezialitatearen lanbide-arloko espezialitatearen batean.

b) atal honetan xedatutakoa honako espezialitate hauei aplikatuko zaie: Instalazio elektroteknikoak, Ibilgailuen mantentze lanak, Makinen mekanizazioa eta mantentzea, Merkataritza-prozesuak, Administrazio-kudeaketako prozesuak eta Informatika sistemak eta aplikazioak.

c) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 100.2 artikuluan adierazitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jaso izana, 2.2.3 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

2.2.2.– Atzerrian lortu diren titulazioen kasuan, hauetako betekizunen bat egiaztatu beharko da:

a) Titulazioaren homologazioa, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuarekin bat etorriko dena. Errege Dekretu horrek Unibertsitateko titulazio eta ikasketa-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko zein ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen ditu, atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen espainiar esparruaren baitako mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere, arkitekto, ingeniari, lizentziadun, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa zein diplomadun goi-mailako titulu ofizialei dagokienez.

b) Bigarren Hezkuntzako irakaslearen edo Lanbide Heziketako irakaslearen lanbide arautura iritsi eta lanbidean jardun ahal izateko lanbide-kualifikazioa aitortua izatea, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.

2.2.3.– Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa betetzeko, beharrezkoa da ondoren zerrendatzen diren titulazio, ziurtagiri edo lanbide-esperientziaren bat izatea:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako araututako irakasle gisa jarduteko gai egiten duen Masterraren titulu ofiziala.

b) Ondorengo zerrendako edozein titulu edo ziurtagiri, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik aterata:

– Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Trebakuntza Pedagogikoko Ziurtagiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria.

– Maisu- edo maistra-titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Lehen Hezkuntzako maistra- edo maisu-titulua, Pedagogiako lizentziatura edo Psikopedagogiako lizentziatura, edo prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jasotzen duen lizentziatura edo titulu baliokideren bat.

c) 2008-2009 ikasturtea bukatu aurretik lanean jardun duela ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez –jarraian edo etenekin–, betiere derrigorrezko bigarren hezkuntzako edo batxilergoko, lanbide heziketako edo hizkuntza eskola ofizialetako irakaskuntzetan aritu badira, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan aurreikusten den arabera.

d) Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko, baldin eta titulazio ez-unibertsitarioa onartzen duten espezialitateetan -irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidea aitortuta-, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen dela ulertuko da, goian aipatutako egoeraren bat emateaz gain, honako hauetako bat ematen denean:

– Ziurtagiri ofiziala, egiaztatu beharko duena izangaiak badaukala Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 100.2 artikuluan adierazitakoaren baliokidea den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa, irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduan aurreikusitakoaren arabera.

– 2014ko irailaren 1a baino lehen lanean jardun duela ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez –jarraian edo etenekin–, dagokion mailetan eta irakaskuntzetan.

2.3.– Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran parte hartzeko betekizunak (Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoa).

Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute A-2 azpitaldean sailkatutako Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle diren karrerako funtzionarioek, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko 2.2 oinarrian adierazi den tituluren bat izatea, edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketak guztiak gaindituta izatea eta titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

b) Jatorrizko kidegoan gutxienez sei urtez egon izana karrerako funtzionario gisa.

c) Irakasle-lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Iristeko prozedura hori aukeratzen dutenek ezin izango dira beste txanda batean lehiatu espezialitate bera lortzeko, ezta ondoren txandaz aldatu ere.

2.4.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzeko betekizunak.

Txanda horretan parte hartu ahal izango dute lortu nahi duten kidegoan sartzeko betekizun orokorrak eta berariazko betekizunak betetzeaz gain, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, gutxienez % 33ko desgaitasuna aitortuta dutenek (desgaitasuna, kasuan kasuko, eskuduntzak dituzten foru aldundietako gizarte-ongizate saileko, dagokion autonomia-erkidegoetako edo, hala egokituz gero, Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunek aitortuta behar du izan) edo, irakaskuntzako ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa aitortuta dutenek. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean, desgaitasun hori ezin izango da batezina izan irakaskuntzan aritzearekin.

Gordetako txandaren aukera parte hartzeko eskabidean egin beharko da, eta esanbidezko deklarazioa egingo da horretarako eskatutako baldintza betetzen dela adierazteko. Lanpostua lortuz gero, eskumena duten organoen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da adierazitako baldintza hori betetzen dela.

Hala ere, oposizio-faseko edo praktika-faseko probak egitean, epaimahaiak zalantzarik izango balu izangaiak sartu nahi duen kidegoan eta espezialitatean funtzionarioek egin ohi dituzten jarduerak egiteko izangaiaren gaitasunaren inguruan, epaimahaiak edo praktika-faseko kalifikazio-batzordeak, hala badagokio, probak deitu dituen organoari jakinaraziko dio, eta organo horrek auziari buruzko irizpena eskatu ahal izango dio eskumena duen organoari. Kasu horretan, irizpena azaldu bitartean, izangaiak baldintzapean jarraitu ahal izango du hautaketa-prozesuan; eta, adierazitako irizpena jaso arte, etenda geratuko da prozesuan onartzeko edo prozesutik baztertzeko behin betiko ebazpena.

Txanda irekiko izangaien baldintza berberetan egingo da hautaketa-prozedura, baina egokitzen egin ahal izango dira denboraren eta baliabide materialen aldetik. Egokitzapen horiek 3.1.2 oinarrian adierazitakoaren arabera eskatu beharko dira.

Sartzeko txanda hau aukeratzen dutenek ezin izango dute beste txanda batean lehiatu espezialitate bera lortzeko, ezta ondoren txandaz aldatu ere.

2.5.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dituzte 2.1, 2.2 eta 2.3 oinarrietan zerrendatutako betekizun guztiak, eta eutsi ere egin beharko diete karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen diren arte, hizkuntza-eskakizunaren betekizuna izan ezik; azken hori deialdi honen 6.2 oinarrian aurreikusitako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probaren emaitzak argitaratzeko egunean eduki beharko baitute.

2.6.– Irakasle-lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna.

2.6.1.– Deialdi honen 2.1.f) oinarrian adierazitako betekizuna betetzeko, ondorengo egoeraren bat eman behar da:

1.– Deialdi honen 6.2 oinarrian adierazitako proba gainditzea.

2.– Ondorengo titulazio edo ziurtagiriren bat izatea:

a) Irakasle-lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna.

b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

c) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako euskararen Gaitasun Ziurtagiria edo 5. mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan zaharra, urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretuaren arabera).

d) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako gaitasun-mailaren (C1) ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren arabera).

e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.

f) HABEko 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).

g) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko 3. hizkuntza-eskakizuna.

h) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.

i) Euskaltzaindiko D ziurtagiria.

j) Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan zehaztutako betekizunak betetzen duen unibertsitate-titulazioa, (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena).

k) Euskararen jakite-mailaren beste titulu edo ziurtagiri batzuk, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutakoak, (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

2.6.2.–Aurreko 2.6.1 oinarriaren 2. atalak zerrendatzen dituen tituluak edo ziurtagiriak aurkeztea.

1.– Ez da beharrezkoa aurkeztea a), b), c), d), e), f), g), h) eta i) letretan adierazitako tituluak eta ziurtagiriak, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan badaude, edo Hezkuntza Sailaren Langileen Erregistroan badaude. Era berean ez da beharrezkoa izango titulua

edo ziurtagiria aurkeztea, aldez aurretik aurkeztu bada. Kasu horretan adierazi behar da zein une, prozedura eta erakundetan aurkeztu zen.

2.– Titulua edo ziurtagiria aurkeztu behar den kasuetarako, Langileak Kudeatzeko zuzendariak epe bat irekiko du 2018ko maiatzean, eta interneteko helbide hauetan emango da horren berri: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira). Era berean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere argitaratuko da.

2.6.3.– Hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik prozeduratik baztertu diren pertsonen behin-behineko eta behin betiko zerrenda.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda onartzeko. Bertan adieraziko da non ipiniko den ikusgai zerrenda hori. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpen hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Era berean, informazio moduan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere argitaratuko da adierazitako ebazpena.

Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, bost egun balioduneko epean, emaitzak argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez onartu edo ezetsiko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ebazpen berak onetsizat joko du eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda. Behin betiko zerrenda horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote izangaiek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Ebazpena eta behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarentzat adierazitako leku beretan argitaratuko dira.

III. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA DOKUMENTUAK

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, horiek aurkezteko tokia eta epea, eta bestelako dokumentuak aurkezteko egutegia.

3.1.– Parte hartzeko eskabideari buruzko argibideak.

3.1.1.– Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek bete beharreko eskabideak Interneteko helbide honetan daude eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> – «2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Onartzeko eskabidea».

Eskabidea betetzean, hartu izanaren adierazpena sortuko da (Erakunde laguntzailearentzako alea), esleitutako eskabide-zenbakia eta tasa 3.2 oinarrian aurreikusitako moduan ordaintzeko beharrezko diren datuak barne hartuta. Halaber, izangaiak frogagiria ere eskuratuko du (Interesdunarentzako alea). Eta azkenik, hirugarren frogagiri bat ere sortuko da (Administrazioarentzako alea), eskabideak betetzeko epean aurkeztu beharreko dokumentuei erantsi beharrekoa, baldin eta 3.3.1 oinarrian aipatutako kasuren batean egonez gero.

Hortik aurrera, irakaslegunean argitaratuko da hautaketa-prozesuan zehar izangai bakoitzaren espedientearen inguruko informazio guztia. Irakaslegunean sartzeko, erabiltzailea (NANa) eta pasahitza sartu beharko dira. Interneteko helbide hauetatik sartu ahal izango da irakaslegunera: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus>.

Hezkuntza Sailak emandako pasahitza baduten izangaiak hori erabili beharko dute aipatutako informazioaren berri jasotzeko (pasahitz hori lehendik izango dute 2017-2018 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezipenentarako izangaien zerrendan daudenean eta beste prozesuren batean parte hartu dutenean). Pasahitza ahaztu edo galdu badute, beste bat lortu ahal izango dute www.irakasle.eus helbidean, «Pasahitza eskuratzea (edo berreskuratzea)» izeneko atalean.

Izangaiak ez badute pasahitzik, sistemak bat esleituko die prozesuaren informazioa eskuratu ahal izan dezaten; pasahitz hori SMS baten bidez jasoko dute, eskabidean adierazitako telefono mugikorrean, eskabidea betetzen bukatzen dutenean. Izangaiaren NANa izango da erabiltzailea.

Espezialitate baterako baino gehiagotarako eskabideak aurkeztuz gero, ez da bermatuko izangaiak eskatutako espezialitate guztiei dagozkien probak egin ahal izatea. Espezialitate ezberdinen proben hasiera bat etorri gero, ez dute atzera jasoko azterketa-eskubideengatik tasaren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa.

3.1.2.– Desgaitasuna duten izangaiak horren berri eman beharko dute eskabidean, dagokion laukian, eta probak egiteko denborari eta baliabide materialei dagokienez zer egokitzapen behar duten ere adierazi beharko dute, era horretan gainerako izangaien baldintza berberetan jardun ahal izan dezaten. Eskabidean horretarako utzitako eremuan ezin bada behar bezala adierazi zer egokitzapen behar duten, erantsitako orrian adieraziko da. Egokitzapena eskatuz gero, 3.3.1.b) oinarrian adierazitako dokumentua ere aurkeztu beharko dute.

3.1.3.– Espainiako nazionalitatea ez dutenek gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba egin behar duten ala ez adierazi beharko dute. Baldin eta 6.1.1 oinarrian xedatutakoaren arabera salbuetsita badaude, beren-beregi eman beharko dute horren berri eskabidean, eta 3.3.1.c) oinarrian kasu bakoitzerako adierazitako dokumentuak erantsi.

3.1.4.– Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egin behar dutenek eskabidean adieraziko dute hori eta, baldin eta 2017-2018 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezipenentarako izangaien zerrendan jasota ez daudenean, 3.3.1.a) oinarrian adierazitako dokumentuak ere aurkeztu beharko dituzte.

3.1.5.– «Adingabeen babes» izeneko atala bete beharko du izangaiak eskabidean, 2.1.h) oinarrian aurreikusitako betekizuna betetzen dela egiaztatzeko. Atal hori betetzen duenean, izangaiak adieraziko du ea baimena ematen dion Hezkuntza Sailari, hautatua izanez gero, 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan adierazitako ziurtagiria eskuratzeko izangaiaren izenean. Baimenik ematen ez badio eta lanbiderako hautatua bada, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri

bat aurkeztu beharko du, delitu horiengatik zigorrik jaso ez duela egiaztatzen duena, 11. oinarrian adierazitakoaren arabera.

Hala ere, baimen hori aurretiaz eman dutenek ez dute aipatutako atala ikusiko eskabidean. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezipenatarako izangaien zerrendan daudenek eta Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionario direnek aurretiaz eman ahal izan dute baimen hori.

3.2.– Tasak.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginaren 36. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izena emateko tasa ordaindu beharko du izangai bakoitzak:

A-1 azpitaldea: 22,57 euro.

A-2 azpitaldea: 18,82 euro.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira tasak, eta bi moduetako bat aukeratu ahal izango da horretarako:

a) Jarraian aipatzen diren bankuetako edozein sukurtsaletan zuzenean ordaintzea, erakunde laguntzailearentzako frogagiria aurkeztuz: Laboral Kutxa, Kutxabank (BBK-Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Vital Kutxa eta Gipuzkoa Donostia Kutxa), BBVA, Santander, Sabadell-Guipuzcoano, Bankia, La Caixa edo Bankoa. Inprimakiek barra-kodea dutenez, kutxazain automatikoaren bidez egin daiteke ordainketa, irakurketa optikoarekin edo datuak eskuz atzemanaz.

b) Online ordainketa: banku elektronikoaren sistemaren bitartez, sistemak berak erakusten dituen jarraibideei jarraituz, betiere interesduna modalitate horretako bezero baldin bada adierazitako banku-erakundeetatik edozeinetan. Ordainketa mota horren bitartez, ez da alferreko joan-etorritik egin behar eta ez da ilaran itxaron behar. Gainera, eguneko 24 orduetan erabil daiteke.

Azterketa egiteko eskubideak ordaindu ezean edo epez kanpo ordainduz gero, izangaia prozesutik baztertuko da. Ordaindutako zenbatekoa ez badator bat ordaindu behar zenarekin, hamar egun balioduneko epean zuzendu ahal izango da, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Banku-erakundeetan tasak ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den denboran eta eran, oinarri honetan adierazitako moduan, betetzeko izapidea.

3.3.– Parte-hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

3.3.1.– Parte hartzeko eskabideak aurkezteko ezarri den epe berean, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egitea eskatzen dutenek, 2017-2018 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezipenatarako izangaien zerrendan jasota ez badaude, 2.2.1 oinarrian eskatutako betekizunei dagozkien egiaztagirien foto-kopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

Horrenbestez, azpialdi honetan adierazitako dokumentua ez dute aurkeztu beharko proba egitea eskatu arren ordezipenatarako izangaien aipatutako zerrendan ageri direnek.

Atzerrian lortu diren titulazioen kasuan, lanbide-kualifikazioaren aitortpen edo homologazioa ere aurkeztu beharko da, 2.2.2 oinarrian ezarritakoari jarraituz.

Dokumentazio hori aurkeztu ezean, ezin izango dute egin hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba.

b) Desgaitasuna duten izangaiek egokitzapenak eskatzen badituzte probak egiteko denborari eta baliabide materialei dagokienez, nahitaez aurkeztu beharko dute daukaten desgaitasun-maila zehazteko organo tekniko eskudunak egindako Irizpen Tekniko Medikoa (dokumentu fede-emai-learen bidez egiaztatu beharko dira aitortutako minusbaliotasun-maila eragin duten urritasun iraunkorrak) edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ebazpena (ezintasun iraunkor osoa aitortzen duena irakaskuntzakoa ez den beste lanbide baterako), hautaketa-organoak balioetsi ahal izan dezan eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren ala ez.

Aurkeztutako dokumentuen eta eskatutako egokitzapenen arabera, bai eta aplikagarria den araudiaren arabera ere, eskatutako egokitzapenak onartu edo ukatu egingo dira. Erabakia gehienez bi hilabeteko epean jakinaraziko zaio izangaiari, eskabidea aurkeztu zuenetik aurrera zenbatzen hasita.

c) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, haien hizkuntza-ofiziala espainiera ez bada eta 6.1.1 oinarrian adierazitakoaren arabera gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba egitetik salbuetsita geratu nahi badute oinarri horretan aipatutako tituluren bat dutelako, titulu horien fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gainditu eta titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Halaber, aurreko deialdietan proba gainditu dutela-eta salbuetsita geratu nahi duten izangaiek proba gaindituta dutela egiaztatuko duen dokumentua aurkeztu beharko dute.

Dokumentu horiek aurkeztu ezean, interesdunak ezingo dira salbuetsi, eta, hortaz, 6.1 oinarrian ezarritako proba egin beharko dute.

3.3.2.– Deialdi honen 3.3.1 oinarrian adierazitako dokumentuak «Administrazioarentzako alea» frogagiriarekin batera aurkeztuko dira (eskabidea betetzean lortu ahal izango da).

Fotokopia bidez aurkezten diren dokumentuak konpultsatuta aurkeztu beharko dira.

3.3.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako dokumentu guztiak. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Dena den, zalantza edo erreklamaziorik sortuz gero, dokumentu horien inguruko beharrezko argibideak eskatu ahal izango ditu Administrazioak.

Izangaiek beren-beregi hartzen dute beren gain aurkeztutako dokumentuen egitasunaren gaineko erantzukizuna. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatuta badago, izangaiek galdu egingo du deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

3.4.– Aurkezteko lekua.

3.4.1.– Deialdi honen 3.3.1 oinarrian adierazitako dokumentuak («Administrazioarentzako alea» frogagiriarekin batera) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari helaraziko zaizkio. Helbide hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Araban: Zuzenean, Ramiro Maeztu 10, behea – Vitoria-Gasteiz.

Bizkaian: Zuzenean, Kale Nagusia 85 – Bilbao.

Gipuzkoan: Zuzenean, Andia 13 – Donostia.

b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako lekuetan, hargatik eragotzi gabe lege horren xedapen iragankorretatik laugarrenean xedatutakoa.

Dokumentuak posta-bulegoren batean aurkeztu nahi badira, 3.4.2 oinarrian adierazitako hel-bidea idatzi beharko da gutun-azalean. Irekita eraman beharko da gutun-azala, posta-bulegoko langileak eguna eta zigilua jar ditzan, gutun-azala ziurtatu aurretik. Hala egin ezean, dagokion bulego publikoan sartu den egunean aurkeztu dela ondorioztatuko da.

3.4.2.– Atzerrian egindako eskabideen dokumentuak tokian tokiko Espainiako ordezkariak diplomatikoetan edo kontsulatuetan aurkeztu ahal izango dira, eta erakunde horiek igorriko dituzte eskumena duen erakundera: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010).

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeko, deialdi honetako 3.2 oinarrian xedatutakoari jarraituko zaio.

3.5.– Eskabideak eta dokumentuak aurkezteko epea.

Deitutako prozeduran parte hartu nahi dutenek hogeitun egun naturaleko epea izango dute, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, 3.1 oinarrian adierazten den parte-hartzeko eskabidea betetzeko.

Epe berean aurkeztu beharko dituzte 3.3.1 oinarrian aipatutako dokumentuak, 3.4 oinarrian aurreikusitako lekuetan, «Administrazioarentzako alea» frogagiriarekin batera.

3.6.– Bestelako dokumentuak aurkezteko egutegia.

3.6.1.– Euskararen hizkuntza-eskakizunaren betekizuna betetzen dela egiaztatzeko egiaztageria 2.6.2 oinarrian adierazitako epean aurkeztuko da.

3.6.2.– Programazio didaktikoa 7.3.1 oinarrian adierazitako epean aurkeztuko da .

3.6.3.– Merezimenduen egiaztageriak 8.1 oinarrian adierazitako epean aurkeztuko dira.

3.6.4.– Gainerako baldintza orokorren eta berariazko baldintzen egiaztageriak 11.1 oinarrian adierazitako epean aurkeztuko dira.

IV. KAPITULUA

ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIAK

4.– Izangaiak onartzea.

4.1.– Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Langileak Kudeatzeko zuzendariak gehienez hilabeteko epean emango du ebazpena. Horrela, onetsizat joko du onartutako eta baztertutako

izangaien behin-behineko zerrenda eta, era berean, zerrenda hori non ipiniko den ikusgai adieraziko du. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpen hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Era berean, informazio moduan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere argitaratuko da adierazitako ebazpena.

Zerrendan, datu hauek agertuko dira: izen-abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo antzekoren batena atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan, izangaiak parte hartzen duen txanda edo prozedura eta espezialitatea, eta, baztertutakoen kasuan, baita ere, baztertzeko arrazoiak. Halaber, gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeako proba zein izangaik egin behar duten ere adieraziko da.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpena adierazitako lekuetan argitaratuta, interesdunei behar bezala jakinarazi zaiela ondorioztatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.2.– Erreklamazioak.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, hamar egun balioduneko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; gainera, hala badagokio, zuzendu ahal izango da zerrendatik baztertea eragin duen akatsa. Halaber, datu pertsonaletan akatsak atzeman dituzten izangaiek akatsak daudela adierazteko aukera izango dute epe horretan.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaizkio, eta 4.1 oinarrian adierazitako ebazpenean esaten diren lekuetan aurkeztuko dira.

Baldin eta interesdunak ez badu adierazitako epe horretan zuzentzen zerrendatik baztertea eragin zuen akatsa, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

4.3.– Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez onartu edo ezetsiko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ebazpen berak onetsizat joko du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpena eta behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarentzat adierazitako leku beretan argitaratuko dira.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

4.4.– Oinarri honetan aurreikusi den prozesuan onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, programazio didaktikoa entregatu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeako ezarritako epeak amaitutakoan, baldintza bi horiek betetzen ez dituztelako baztertu direnen zerrendak argitaratuko dira. Era berean, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak, gaztelaniaren ezagutza

egiaztatzeko proba egitetik salbuetsita ez badaude eta proba gainditzen ez badute, baztertuta geratuko dira.

Bestalde, onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren gainerako betekizunak beteta dituztela aitortzen zaienik. Deialdi honen 11. oinarriak xedatutakoari jarraiki hautatuko diren izangaiek aurkeztu behar dituzten dokumentuak ikusita egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu izangai horrek.

V. KAPITULUA

HAUTAKETA-ORGANOAK

5.– Hautaketa-organoak: Epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak.

5.1.– Hautaketa-organoek egingo dute prozedura honetako parte-hartzaileen hautaketa; hargatik eragotzi gabe 6.1 eta 6.2 oinarrietan, hurrenez hurren, gaztelaniaren eta euskararen ezagutza egiaztatzeko proben balorazio-epaimahaiei dagokionez aurreikusitakoa.

Nahitaez hartu behar da parte hautaketa-organoetan; hala ere, kontuan hartuko da 5.5 oinarrian abstenitzeko edo errefusatzeko arrazoiei buruz eta 5.2.2 eta 5.4 oinarrietan salbuespen-kasuei buruz aurreikusitakoa.

Hautaketa-organoetako kideek justifikatu ezin badute zergatik ez diren joan prozeduraren batzar eta ekitaldietara, eraketakora barne, eta organoaren buruak edo Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako titularrak egin badu deialdia, indarrean den araudiaren arabera dagokien erantzukizuna izango dute.

Organo horien jarduteko prozedurak, une oro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoari jarraitu beharko dio.

5.2.– Epaimahaiak.

5.2.1.– Epaimahai kopurua.

Beharrezko ikusten den beste epaimahai izendatu ahal izango dira, espezialitate bakoitzeko eskatzaile kopuruaren arabera.

5.2.2.– Osaera eta izendapena.

Epaimahaiak bost kidek osatuta egongo dira: epaimahaiburu bat eta lau epaimahaikide. Bostek izan beharko dute irakasleen funtzionarioen kidegoetako jarduneko karrerako funtzionario edo hezkuntzako ikuskari. Izangaiek zein kidegotara iritsi nahi duten, kidego horren sailkapen-maila bera edo handiagoa duten kidegoetakoak izango dira kideak, eta gehienak kidego horretakoak izango dira.

Espezialitatearen printzipioa hartuko da kontuan epaimahaiak osatzeko orduan; horren arabera, kide gehienek epaitu behar duten espezialitateko titular izan beharko dute eta, ahal dela, espezialitate horretan izango dute destinoa gaur egun. Halaber, arrazoi oinarrituek eta objektiboek galarazi ezean, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.b) eta 20.6 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Hezkuntzako sailburuak askatasunez izendatuko du epaimahaiburua. Lau epaimahaikideak izendatzeko, berriz, zozketa egingo da oinarri honetan aipatzen diren funtzionarioen artean. Salbuespen gisa, titularren kopuru txikiagatik zozketa egiterik ez dagoen espezialitateetan, espezialitate horietako funtzionario titular guztiak zuzenean izendatuko ditu Hezkuntzako sailburuak.

2018ko apirilaren 11n egingo da zozketa, goizeko 10:00etan, Lakua-2 eraikineko 3. gelan (sarrera Donostia kaleko 1. zenbakitik, Vitoria-Gasteiz).

2017-2018 ikasturtean zuzendari, ikasketaburu edo idazkari karguak betetzen dituzten funtzionarioak, baita sindikatuen ordezkarietako eginkizunak egiten aritzegatik baimena dutenak ere –beren lanera joatetik guztiz liberatuta badaude–, salbuetsita egongo dira hautaketa-organoetan parte hartzetik; hortaz, horiek ez dira kontuan hartuko zozketa egiteko garaian. Era berean, ez dira kontuan hartuko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bitartez deitu ziren hautaketa-prozeduretan parte hartu duten epaimahaikideak (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitu ziren, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere; 2016ko otsailaren 9ko EHAA). Salbuespena izango da espezialitatearen batean ezin bada epaimahai osoa izendatu parte hartzeko moduan dauden karrerako funtzionarioen kopurua kontuan hartuta.

Epaimahaikideen joan-etorriek eragin ditzaketen kalteak eta eragozpenak minimizatze aldera, zozketa lurralde-mailan egingo da, espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitza egongo den lurralde historikoaren arabera. Baldin eta adierazi den lurralde-irizpidea betez ezin badira epaimahai guztietako epaimahaikide guztiak izendatu, zozketa egingo da, eta gainerako bi lurralde historikoetako karrerako funtzionarioak sartuko dira zozketa horretan. Karrerako funtzionario gutxi dauden espezialitateetako epaimahaietan ere salbuetsi ahal izango da lurralde-irizpide hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko da zein lurralde historikotan kokatuko diren espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitzak, eta zozketa egin baino lehen argitaratuko da ebazpen hori.

Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiengatik, hezkuntza-arloko beste administrazio batzuei eskatu ahal izango zaie espezialitateko edo, hala badagokio, kidegoko funtzionarioak proposa ditzatela epaimahaietako kide izateko. Salbuespen gisa ere, eta justifikatutako arrazoiengatik, beste espezialitate batzuetako funtzionarioekin osatu ahal izango dira epaimahaiak eta, horrelakoetan, aholkulari espezialistak izendatu ahal izango dira, 5.6 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Epaimahaiak izendatzeko orduan autonomia-erkidego honetako bi hizkuntza ofizialetako hizkuntza-kompetentzia bermatu beharko da.

Epaimahai bakoitzerako ordezkari epaimahai bat izendatuko da, irizpide bereberri jarraituz.

Hezkuntzako sailburuak agindu bidez izendatuko ditu epaimahaiak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bi hilabeteko epean gehienez ere, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Kidegoan antzinatasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, epaimahaiak besterik erabaki ezean.

5.2.3.– Borondatezko parte-hartzea.

Euren borondatez epaimahai batean mahaikide izan nahi dutenek idazkia aurkeztu beharko diote Langileak Kudeatzeko zuzendariari, 3.5 oinarriaren arabera eskabideak aurkezteko ezarrita dagoen epe berean. Aipatutako organoak ebatziko ditu eskabideak, kontuan hartuta espezialitatean titularra den, zein destino duen bertan gaur egun eta dagokion espezialitatearen epaimahaiek zein lurralde historikotan izango duten egoitza kasu bakoitzean.

Borondatezko parte-hartze honetatik salbuesten dira 2017-2018 ikasturtean zuzendari, ikaske-taburu edo idazkari karguak betetzen dituzten funtzionarioak.

5.3.– Hautaketa-batzordeak.

Aurkeztutako eskabide kopurua dela-eta epaimahai bat baino gehiago eratu beharko bada espezialitate baterako edo batzuetarako, hautaketa-batzordeak eratuko dira dagozkion espezialitateetarako.

Espezialitateko epaimahaiburuek osatuko dituzte batzordeak. Gutxienez bost kide izango dituzte batzordeak, eta epaimahaiburuen kopurua bost baino txikiagoa izanez gero, epaimahaikideetara joko da, harik eta bostekoa osatu arte. Honela egingo da:

1) Lau epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2., 3. eta 4. epaimahaietako buruak eta 1. epaimahaiko idazkaria.

2) Hiru epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2. eta 3. epaimahaietako buruak eta 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak.

3) Bi epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2. epaimahaiko burua, 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak eta 1. epaimahaiko 1. epaimahaikidea.

Batzorde horietako burua izango da espezialitateko zenbaki txikiena duen epaimahaiko burua. Hala ere, 10 epaimahai edo gehiago dauden espezialitateetan, Hezkuntzako sailburuak izendatuko du batzordeburua, hezkuntzako ikuskarien kidegoan lanean dauden karrerako funtzionarioen artean.

Batzordearen atal diren kidegoetan antzintasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, hautaketa-batzordeak besterik erabaki ezean.

Epaimahai bakarra izendatzen den espezialitateetan, epaimahaiak jardungo du hautaketa-batzorde gisa, ondorio guztietarako.

5.4.– Batzorde barematzaileak.

Espezialitate bakoitzean egon daitekeen eskatzaile kopuruaren arabera, behar diren batzorde barematzaileak eratuko dira, betiere espezialitateen edo espezialitate-taldearen arabera. Batzordeak gutxienez bost eta gehienez zazpi kidek osatuta egongo dira: batzordeburu bat eta gainerakoak batzordekideak. Batzordeburua hezkuntzako ikuskari bat izango da eta Hezkuntzako sailburuak

izendatuko du. Batzordekideak izendatzeko, berriz, zozketa egingo da, kidegoko eta dauden batzordearen espezialitateko edo espezialitateetako jarduneko karrerako funtzionarioen artean.

Arrazoi oinarrituek eta objektiboek galarazi ezean, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza ego-kia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.b) eta 20.6 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Batzordekideak izendatzeko zozketa epaimahaikideen zozketarekin batera egingo da.

2017-2018 ikasturtean zuzendari, ikasketaburu edo idazkari karguak betetzen dituzten funtzionarioak, baita sindikatuen ordezkartzako eginkizunak egiten aritzegatik baimena dutenak ere –beren lanera joatetik guztiz liberatuta badaude–, salbuetsita egongo dira hautaketa-organoetan parte hartzetik; hortaz, horiek ez dira kontuan hartuko zozketa egiteko garaian. Era berean, ez dira kontuan hartuko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bitartez deitu ziren hautaketa-prozeduretan parte hartu duten batzorde barematzaileko kideak (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitu ziren, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere; 2016ko otsailaren 9ko EHAA). Salbuespena izango da espezialitatearen batean ezin bada batzorde barematzaile osoa izendatu parte hartzeko moduan dauden karrerako funtzionarioen kopurua kontuan hartuta.

Epaimahaikideen joan-etorriek eragin ditzaketen kalteak eta eragozpenak minimizatze aldera, zozketa lurralde-mailan egingo da, espezialitate bakoitzeko batzorde barematzaileen egoitza egongo den lurralde historikoaren arabera. Baldin eta adierazi den lurralde-irizpidea betez ezin badira batzorde barematzailetako batzordekide guztiak izendatu, zozketa egingo da, eta gainerako bi lurralde historikoetako karrerako funtzionarioak sartuko dira zozketa horretan. Karrerako funtzionario gutxi dauden espezialitateetako batzorde barematzailetan ere salbuetsi ahal izango da lurralde-irizpide hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko da zein lurralde historikotan kokatuko diren espezialitate bakoitzeko batzorde barematzaileen egoitzak, eta zozketa egin baino lehen argitaratuko da ebazpen hori.

Salbuespen gisa, nahiz eta aurretiaz adierazitako guztia aplikatu ezin badira batzordekide guztiak izendatu, beste espezialitate batzuetako karrerako funtzionarioekin osatu ahal izango dira batzorde barematzaileak, lurralde-irizpidea ere kontuan hartuz.

Batzorde barematzaileak izendatzeko orduan autonomia-erkidego honetako bi hizkuntza ofizialetako hizkuntza-kompetentzia bermatu beharko da.

Batzorde barematzaile bakoitzerako ordezeko batzorde barematzaile bat izendatuko da, irizpide berberei jarraituz.

Hezkuntzako sailburuak agindu bidez izendatuko ditu batzorde barematzaileak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bi hilabeteko epean gehienez ere, izan-gai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Kidegoan antzintasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, batzorde barematzaileak besterik erabaki ezean.

Batzorde horiek Hezkuntza Sailburuordetzari atxikitako zuzendaritzen eta zerbitzuen aholkularitza baliatu ahal izango dute.

5.5.– Hautaketa-organoetako kideak abstenitzea eta errekusatzeta.

5.5.1.– Abstenitzea.

Hautaketa-organoetako kideak esku hartzetik abstenituko dira, eta egiaztagirien bitartez jakinaraziko diote Langileak Kudeatzeko zuzendariari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusten diren inguruabarren batean badaude, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan lanik egin badute kidego eta espezialitate berean sartzeko hautaketa-probetarako izangaiak prestatzen.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarretan ez daudela agertzeko, esanbidezko deklarazioa eskatuko diete hautaketa-organoetako buruek hautaketa-organoetako kideei. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluko 5. puntuan adierazita dagoen bezala, inguruabar horietakoren bat dagoen kasuetan ez abstenitzeak dagokion erantzukizuna ekarriko du.

Hamar egun naturaleko epea egongo da abstentzioa eskatzeko, hautaketa-organoen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Organo eskudunak dagokion erabakia hartu beharko du.

5.5.2.– Errekusatzea.

Izangaiak hautaketa-organoetako kideak errekusa ditzakete, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak ematen badira.

5.6.– Hautaketa-organoak eratzea.

Buruek deialdia egin ondoren, hautaketa-organoak eratuko dira, izendatutako kide guztiak (titularrak zein ordezkioak) bertan daudela, ahal bada behintzat. Hala ere, eraturat joko dira burua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta gutxienez kideen erdiak bertan badira.

Hautaketa-organoak eratu ostean, ahalik eta lasterren bidali beharko dizkiete, guztiek, erate-aktak (kide guztien sinadurekin) Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak baloratu beharko dituen aparteko inguruabarrak gertatu ezean, hautaketa-organoak eratu ondoren, honako kide hauek egon beharko dute organoaren jardura baliozkoa izateko: burua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta gutxienez kideen erdiak.

Epaimahaiek edo, hala badagokio, hautaketa-organoek, aukera izango dute haien lanean aholkulari espezialistak edo laguntzaileak sartzeta proposatzeko. Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko ditu. Lehenengo eginkizuna izango da hautaketa-organoetako kideei aholkuak ematea euren espezialitateko ezagutza eta merezimenduak ebaluatzean. Laguntzaileek, aldiz, organoek esleituko dizkieten laguntza-zeregin teknikoak egingo dituzte. Batzuek zein besteek dagozkien eskumenetako eginkizunak baino ez dituzte egingo. Aholkulari eta laguntzaileek esleitu zaien eginkizunerako behar den lanbide-gaitasuna izan beharko dute.

5.7.– Hautaketa-organoen eginkizunak.

5.7.1.– Epaimahaiei dagokie:

a) Hautaketa-prozesuko faseak garatzea, deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

b) Oposizio-faseko probak kalifikatzea, IX. eranskinean adierazitako baloratzeko irizpideei jarraituz.

c) Lehiaketa-faseko merezimenduak baloratzea.

d) Hautaketa-batzordeei agindutako eginkizunak, halako batzorderik ez badago.

5.7.2.– Hautaketa-batzordeei dagokie:

a) Epaimahaien arteko koordinazioa.

b) Epaimahaien jarduera-irizpideak zehaztu eta homogeneousatzea.

c) Proba praktikoaren edukia nola zehaztuko den erabakitzea, deialdi honetako VII. eranskinean zehazten diren premisak kontuan izanda.

d) Lehiaketa-faseko puntuak epaimahaiek oposizio-fasean emandako puntuei batzea, izangaiak ordenatzea eta lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditu dituzten izangaiak aditzera ematea.

e) Lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditu dituztenen izangaien zerrendak egin eta onestea, eta zerrenda horiek deialdia egin duen organoari helaraztea.

Hautaketa-prozedurak garatu bitartean, epaimahai bakarrek edo, hala badagokio, hautaketa-batzordeek ebatziko dituzte arau hauek aplikatzerakoan sor litezkeen zalantza guztiak, eta aurreikusi ez diren egoeretan zer egin behar den erabakiko dute.

5.7.3.– Batzorde barematzaileei dagokie: I. eranskineko III.1 eta III.2 ataletako eta II. eranskineko II., III.2.1, III.2.2 eta III.2.3 ataletako merezimenduak baloratzea, epaimahaiek delegatuta.

5.8.– Beharrezkoa izanez gero, hautaketa-organoei bidezko diren neurriak hartuko dituzte desgaitasunak dituzten izangaiek gainerako parte-hartzaileen aukera berak izan ditzaten ariketak egiterakoan. Horretarako, desgaitasunak izan eta 3.1.2 oinarrian aurreikusten den moduan egingako eskabidea onartzen zaien pertsonentzat, ariketak egiteko dagoen denborari eta baliabideei dagozkien egokitzapenak ezarriko dira, betiere baldin eta egokitzapen horiek probaren edukia desnaturalizatzen ez badute eta desgaitasun horiek bateragarriak baldin badira irakasle-lanean normaltasunez aritzearekin.

5.9.– Beste organo batzuen lankidetzat: Koordinatzaileak.

Epaimahaiek eta hautaketa-batzordeek koordinatzaileen laguntza izango dute. Ikuskatzaileen kidegoko karrerako funtzionarioak izango dira, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko ditu. Aipatutako hautaketa-organoei koordinazioa eta administrazio-laguntza eskaintzea izango da koordinatzaileen zeregina. Funtzio horien garapenean, prozedura era egokian garatzen dela zainduko dute, eta horretarako epaimahaiekin eta hautaketa-batzordeekin elkarrekin lan egingo dute: orientabideak emango dituzte prozeduraren administrazio-kudeaketaren eta antolaketaren inguruan, proba praktikoa egin eta ebaluazio irizpideak aplikatzeko, etab; tresnak eskainiko dizkiete, prozeduran zehar gerta daitezkeen zailtasunak edo ezbeharrak ebazteko; laguntza emango diete, epaimahaien lanean, jardueretan eta erabakietan irizpide-homogeneotasuna bultzatzeko, eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatzen lagunduko dute une oro.

5.10.– Kalte-ordainak eta dietak.

Agindu honen bidez deitu diren prozeduretan parte hartuko duten epaimahai, hautaketa-batzorde, batzorde barematzaile, koordinatzaile, aholkulari espezialistek eta laguntzaileek eskubidea izango dute Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zehaztutako kalte-ordainak jasotzeko.

VI. KAPITULUA

OPOSIZIO-FASEA

1. ATALA

AURREKO PROBAK

6.– Gaztelaniaren eta euskararen ezagutza egiaztatzeko probak.

Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko eta euskararen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probekin hasiko da hautaketa-prozedura, probak egin behar dituzten izangaien kasuan.

6.1.– Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaientzat.

6.1.1.– Oposizio-faseko probak egin aurretik, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek proba baten bidez egiaztatu beharko dute gaztelaniaren ezagutza, hizkuntza hori behar bezala ulertzeko eta ahoz eta idatziz erabiltzeko gai direla egiaztatzeko. Proba hori baloratzeko epaimahaia izendatuko duen ebazpenean zehaztuko dira probaren lekua, data eta ordua.

Dena den, proba egitetik salbuetsita daude honako tituluren edo ziurtagiriren bat dutenak (eska-bidearekin batera aurkeztu beharko dute horren egiaztagiria):

– Espainieraren Goi Mailako Diploma edo espainieraren C2 mailako diploma, urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuak ezarria eta otsailaren 22ko 264/2008 Errege Dekretuak aldatua.

– Atzerriarrentzako espainierako gaitasun-ziurtagiria edo maila aurreratuaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialek emandakoak.

– Filologia hispanikoan edo erromanikoan lizentziadun titulua edo gradu-titulu baliokidea.

– Kidegora sartzeko alegatutako titulua, Espainiako estatuan edo, bestela, hizkuntza ofiziala espainiera duen estaturen batean igorri eta egindakoa.

Era berean, salbuetsita daude Espainiako nazionalitatea ez duten baina hizkuntza ofiziala espainola duen herrialderen batekoak diren pertsonak, baita proba hau aurreko deialdiren batean gainditu izana egiaztatzen dutenak ere.

6.1.2.– Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko probaren edukia izangaiei egindako deialdian zehaztuko dute epaimahaiek. Horretarako, aintzat hartuko da urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretua (BOE, azaroaren 8koa), Atzerriko Hizkuntza gisa Espainieraren Goi Mailako Diploma arautzen duena, otsailaren 22ko 264/2008 Errege Dekretuak aldatua.

6.1.3.– Epaimahaiburu batek eta lau kidek osatuko duten epaimahaia baloratuko du atal honean aipatzen den proba. Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko ditu epaimahaikideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Katedradunen eta Irakasleen kidegoetako (Gaztelania eta Literatura espezialitatekoak) edo hizkuntza-eskola ofizialetako Katedradunen eta Irakasleen kidegoetako (Atzerriarrentzako espainiera espezialitatekoak) jarduneko funtzionarioen artean, betiere, egungo destinoa espezialitate horietan baldin badaukate.

Ordezko epaimahai bat ere izendatuko da, irizpide berberei jarraituz.

6.1.4.– Probaren kalifikazioa «gai» ala «ez gai» izango da; «gai» kalifikazioa lortu beharko da oposizio-faseko probak egin ahal izateko.

Proba bukatu eta kalifikatu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena egingo du emaitzen argitalpena onartzeko. Bertan adieraziko da non ipiniko den emaitza horiek dituen zerrenda.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Behin-behineko emaitzen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiak, bost egun balioduneko epean, emaitzak argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira, behin-behineko emaitzetarako adierazitako leku beretan.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, emaitzak argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

6.1.5.– Proba hau kanporatzailea da, eta, hortaz, izangairen bat probara aurkeztzen ez bada edo, aurkeztuz gero, «gai» kalifikazioa jasotzen ez badu, hautaketa-prozesutik baztertuko da.

6.2.– Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba.

6.2.1.– Deialdi honen 2.6.1 oinarrian adierazitakoaren arabera, irakasle-lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna izatearen baldintza, deialdi honetan horretarako berariaz egingo den proba gaindituz egiaztatu daiteke. Proba horretan onartua izateko, 3.1.4 eta 3.3.1.a) oinarrietan ezarritako betekizunak bete beharko dira.

6.2.2.– Proba horren edukia, forma eta probak baloratzeko modua ezartzeko, araudi hauetan ezarritakoa beteko da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko urriaren 22ko Agindua eta Hezkuntzako sailburuordearen 2017ko azaroaren 16ko Ebazpena, 2018. urtean irakasleen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deialdia egiten duena (EHAA, 2017ko abenduaren 5ekoa).

6.2.3.– Aurreko puntuan adierazitako araudiaren arabera izendatutako epaimahaiek baloratuko dute proba hori.

6.2.4.– Probaren kalifikazioa «gai» ala «ez gai» izango da; «gai» kalifikazioa lortu beharko da oposizio-faseko probak egin ahal izateko.

6.2.5.– Proba amaitu eta kalifikatu ondoren, Interneteko helbide honetan argitaratuko dira emaitzak: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>, "Euskara" atala. Emaitzak argitaratu eta hiru egun balioduneko epean, interesdunek idatzizko erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, kalifikazioa berrikusteko; horretarako, dagokion azterketako epaimahaiburuari egin beharko diote erreklamazioa.

6.2.6.– Proba hau kanporatzailea da, eta, hortaz, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez daukaten izangaiak, salbuetsita ez dauden izangaiak edo 2.1.f) oinarriak aurreikusitako duen erregimen

iragankorraren arabera egiaztatzen ez daudenak, probara aurkezten ez badira edo, aurkeztuz gero, «gai» kalifikazioa jasotzen ez badute, hautaketa-prozesutik baztertuko dira.

2. ATALA

OPOSIZIO-FASEKO PROBEN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

7.– Oposizio-fasea.

7.1.– Txanda irekiaren eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandaren oposizio-faseen ezaugarriak.

Oposizio-fasean, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: aukeratutako irakaskuntza-espezialitateari buruzko berariazko jakintzak, gaitasun pedagogikoa eta aditua izatea irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren tekniketan.

Oposizio-faseak bi proba izango ditu, eta horietako bakoitza bi zatitan egongo da egituratuta. Proba guztiak kanporatzaileak izango dira.

7.1.1.– Lehenengo proba.

Helburua izango da aukeratutako irakaskuntza-espezialitateari buruzko berariazko jakintzak frogatzea. Bi zati izango ditu, eta batera baloratuko dira bi zatiak.

Lehenengo proba honen bi zatiak saio bereberran egin ahal izango dira.

7.1.1.1.– A zatia: proba praktikoa izango da, izangaiek aukeratutako espezialitateari dagokion prestakuntza zientifikoa dutela eta trebetasun teknikoetan adituak direla frogatzeko.

VII. eranskinean aurreikusitakoan oinarrituta prestatuko da proba praktikoareneko edukia.

Proba praktikoa idatziz egiten denean, izangaiek hiru ordu izango dituzte, gehienez, proba egiteko. Idatziz egiten ez denean (tresnen edo makinaren erabileraren erakustaldi praktikoa eskatzen duten espezialitateak direlako), proba egin baino lehen dagokion epaimahaiak iragarki-taulan adieraziko duena beteko da.

7.1.1.2.– B zatia: epaimahaiak ausaz ateratako gai-multzo baten artetik izangaiek gai bat aukeratu eta garatu beharko du idatziz. Gai-kopurua espezialitate bakoitzeko gai-zerrendari dagozkien gaien kopuru osoaren proportzionala izango da, honako irizpide hauen arabera:

- a) 25 gai baino gutxiago duten espezialitateetan, hiru gairen artean aukeratu beharko da.
- b) 25 gai baino gehiago eta 51 gai baino gutxiago duten espezialitateetan, lau gairen artean aukeratu beharko da.
- c) 50 gai baino gehiago duten espezialitateetan, bost gairen artean aukeratu beharko da.

Zati hau prestatzeko, V. eranskinean zehaztutako gaiak aplikatuko dira.

Izangaiek bi ordu izango dituzte B zatia egiteko.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuko 10.1.h) artikuluan ezarritakoa betetzeko, Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu ziurtatzeko lehenengo probako idatzizko ariketak era anonimoan zuzendu eta baloratuko direla. Ondorioz, idatzizko ariketa baliogabetuko da baldin eta izangaia identifikatu dezakeen edozein izen, marka edo seinale badu.

7.1.2.– Bigarren proba.

Helburua izango da izangaiaren gaitasun pedagogikoa frogatzea, eta ikustea ea aditua den irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren tekniketan. Poba horretan, izangaiak programazio didaktiko bat aurkeztu, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu beharko du.

7.1.2.1.– A. Programazio didaktiko bat aurkeztea.

Programazio didaktikoa EAEn indarrean den eta parte hartzen den espezialitateari lotutako gai edo eremu baten curriculumari buruzkoa izango da edo, hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiliz gero, hainbat gai edo eremurenak, horietako bat izango dela parte hartzeko aukeratu den espezialitatearekin lotutakoa. Bertan, honako alderdi hauek azaldu beharko dira: helburuak (edo ikaskuntzaren emaitzak, berariazko lanbide-heziketako espezialitateen kasuan), edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluaziorako prozedura eta tresnak, zeharkako nahiz diziplinazko oinarrizko kompetentziak eskuratzeari egiten dion ekarpena, kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien kompetentzia-atalekin lotutako amaierako gaitasunak eskuratzeari egiten dion ekarpena, bai eta dibertsitateari ematen dion erantzuna ere, bereziki azpimarratuz hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak.

Izangaiak ikasturte bat garatuko du programazioan, espezialitate horretako irakasleek emateko eskumena duten hezkuntza-maila edo -etapa bateko ikasturte bat. Gainera, VI. eranskinen aipatu den araudiak araututako indarreko curriculumak hartu beharko dira kontuan.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko izangaien kasuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren edo Lanbide Heziketako heziketa-zikloen etapari buruzkoa izan daiteke.

Programazio didaktikoak zorrotz bete beharko ditu baldintza hauek: DIN-A4 formatuko 50 folio izango ditu gehienera ere, alde bakarretik idatzita, espazio bikoitzean, eta «Arial» letra-tipoan idatzita, 12 puntuko tamainan (taula, koadro, eskema edo halakorik izango balu, horiek ere bete beharko dituzte betekizunak). 9 unitate didaktiko izan beharko ditu gutxienez, eta zenbakituta eta garatuta egon beharko dute lehenago aipatutako alderdietan. Unitate didaktiko hauek proiektuak, egoera-arazoak, lan-unitateak, erronkak, etab. eduki al dituzte. Dena den, programazioan agertu behar dira aukeratutako mailarako edo ikasturterako araudiak ezartzen dituen gutxienezko elementu curricularrak. Ez da eranskinik sartuko. Programazio didaktikoaren azala, aurkibidea eta erreferentzia bibliografikoak ez dira 50 folioen barruan zenbatuko, eta ez dituzte adierazitako betekizunak bete behar izango.

Programazio didaktikoa 7.3.1 oinarrian ezarritakoaren arabera emango zaio epaimahaiari, eta izangaiari programazioa defendatzeko deitzen zaionean defendatuko du epaimahaiaren aurrean. Poba hau ezin denez era anonimoan zuzendu, nahiz eta programazioan izangaia identifikatzeko moduko daturen bat azaldu, ez da aplikatuko lehenengo probarako adierazi den baliogabetze-irizpidea.

Izangaiek ezin izango dute material osagarrikerik erabili programazio didaktikoa aurkezteko eta defendatzeko (publikoa izango da); izangaiek emandako programazio didaktikoaren kopia berdina bakarrik erabili ahal izango dute.

7.1.2.2.– B. Unitate didaktiko bat prestatzea eta ahoz azaltzea.

Prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz azalduko den unitate didaktikoa izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotuta egon daiteke, edo espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik landuta; izangaiak berak hautatuko du.

Lehenengo kasuan, izangaiak berak bere programaziotik ausaz aterako dituen hiru unitate didaktikoren artetik bat aukeratuko du.

Bigarren kasuan, espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik izangaiak ausaz ateratako hiru gairen artetik bat aukeratuko du.

Unitate didaktikoak egitean, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira gutxienez: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, garatu behar diren helburu-konpetentziak edo gaitasunak, gelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, gelaren edo bestelako ikaskuntza-espazioen antolaketa eta metodologia, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, eta ikasleen ebaluazio eta segimendurako prozedura eta tresnak.

Unitate didaktikoa prestatzeko, ordubete eta hamabost minutu izango ditu izangaiak. Prestatzeko eta azaltzeko (publikoa izango da), lagungarri zaion material osagarria erabili ahal izango du –berak eraman beharko du materiala–, bai eta gidoi bat ere –ezingo da izan folio bat bi aldeetatik idatzita baino luzeagoa–; azalpena bukatutakoan, epaimahaiari emango dio gidoia.

7.1.2.3.– Bigarren probaren garapena.

Bigarren proban, lehenengo eta behin, aurretiaz eman den programazio didaktikoa aurkeztu eta ahoz defendatuko da epaimahaiaren aurrean. Horretarako, hogeit hamar minutu emango zaie, gehienez, izangaiei.

Gero, epaimahai beraren aurrean eta gehienez berrogei minutuz, unitate didaktikoaren ahozko azalpena emango da.

Izangaiaren azalpena bukatutakoan, epaimahaikideek galderak egin edo jarduerak eskatu ahal izango dizkiote izangaiari, azalpenaren edukiarekin lotuta edo bere ariketa praktikoari buruz; debate horrek ez du hamabost minutu baino gehiago iraungo. Guztira, pertsona bakoitzak ordubete eta hamabost minutu izango ditu gehienez jarduera horiek guztiak egiteko.

7.1.3.– Hizkuntza modernoetako espezialitateen proba guztiak dagokion hizkuntzan egingo dira osorik.

7.2.– Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko oposizio-fasearen ezaugarriak (Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa).

Proban, izangaiak gaiari buruz dituen ezagutzei eta haren baliabide didaktiko eta pedagogikoei erreparatuko zaie. Bi zatitan banatuko da:

Lehenengo zatia: epaimahaiak, ausaz, zortzi gai aukeratuko ditu V. eranskinean adierazitako kidego eta espezialitateari dagokion gai-zerrendatik, eta izangaiak zortzi gai horietatik bat aukeratu eta ahoz azalduko du. Azalpenaren osagarri, gaiaren planteamendu didaktikoa egingo du izangaiak, askatasunez aukeratuko duen ziklo edo maila zehatz bati buruz. Izangaiak daukan titulazio akademikoa eta bete nahi duen espezialitatea bat etorri gero, VIII. eranskinean adierazitakoaren arabera, epaimahaiak ausaz aukeratutako bederatzi gairen artean aukeratu beharko du bat izangaiak.

Izangaiak daukan titulazio akademikoa ez bada agertzen VIII. eranskineko zerrendan, bat dato-rran aztertu beharko da. Horretarako, aintzat hartuko dira izangaiak unibertsitate-karreran izan dituen ikasgaiak eta dagokion espezialitateko irakasle titularrek esleituta daukaten gai-curricu-luma. Helburu horrekin, batzorde bat izendatuko da, eta honako hauek izango ditu kide:

Burua: Langileak Kudeatzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

Kideak:

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako ordezkari bat.
- Hezkuntzako ikuskatzaile bat.

Izangai bakoitzak ordubete izango du azalpena prestatzeko, eta azalpen horretan lagungarri zaion material osagarria erabili ahal izango du –berak eraman beharko du materiala–, bai eta gidoi bat ere –ezingo da izan folio bat bi aldeetatik idatzita baino luzeagoa–; azalpena bukatutakoan, epaimahaiari emango dio gidoia.

Azalpenak berrogeita bost minutuko iraupena izango du gehienera. Bukatutakoan, epaimahaideek galderak egin edo jarduerak eskatu ahal izango dizkiote izangaiari, azalpenaren edukiarekin lotuta; debate horrek ez du hamabost minutu baino gehiago iraungo.

Bigarren zatia: ariketa praktiko bat izango da. Ariketa horrek 7.1.1.1. oinarrian txanda irekirako eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandarako deskribatu direnen ezaugarri berberak izango ditu.

Hizkuntza modernoetako espezialitateen proba dagokion hizkuntzan egingo da osorik.

7.3.– Oposizio-fasearen egutegia eta garapena.

7.3.1.– Programazio didaktikoa entregatzea.

2018ko maiatzaren 2tik 14ra bitartean, hautaketa-prozedurarako onartuta dauden izangaiek, Agindu honen 4. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, bai eta baztertuta daudenek ere (baldin eta gora jotzeko errekurtsoa jarri badute eta ebatzi gabe badago), programazio didaktikoa entregatu beharko dute.

Interneteko helbide hauetakoren batean entregatu beharko dira programazio didaktikoak: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira). Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean oro har ezarritako bideren bat erabili beharko da, hargatik eragotzi gabe lege horren laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa.

Programazio didaktikoak formatu elektroniko hauetako batean entregatu beharko dira:

- Microsoft Office 2016 edo aurrekoren bat.
- Libre Office 5.3 edo aurrekoren bat
- Portable Document Format (PDF).

Programazio didaktikoa entregatu ondoren, frogagiria inprimatu beharko da, horixe izango baita dokumentua entregatu izana egiaztatzeko agiria. Frogagiri horretan, izangaiaren NANA eta izangaia identifikatzen duen eskabide-zenbakia agertuko dira, baita dokumentua zein data eta ordutan entregatu den ere.

Espezialitate bererako programazio didaktiko bat baino gehiago entregatuz gero, aurkeztutako azkena besterik ez da kontuan hartuko. Erregistroan begiratuko dira entregen data eta orduak, azkena zein den zehazteko.

Programazio didaktikoa epe barruan entregatzen ez duten pertsonak galdu egingo dute hautaketa-prozeduran parte hartzen jarraitzeko eskubidea, eta baztertu egingo dira. Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du, programazio didaktikoa ez entregatzeagatik baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda onartzeko. Bertan adieraziko da non ipiniko den ikusgai zerrenda hori. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpen hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira). Era berean, informazio moduan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere argitaratuko da adierazitako ebazpena.

Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, bost egun balioduneko epean, emaitzak argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez onartu edo ezetsiko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ebazpen berak onetsizat joko du eskatutako programazio didaktikoa ez entregatzeagatik baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda. Behin betiko zerrenda horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote izangaiek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Ebazpena eta behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarentzat adierazitako leku beretan argitaratuko dira.

Programazio didaktikoa entregatu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren prozesuan onartuta jarraitzen dutenek egin ahal izango dituzte oposizio-faseko probak. Gainera, probak egin ahal izango dituzte, baztertuta agertu arren, deitutako ekitaldian bertan egiaztatzen dutenek gora jotzeko errekurtsioa jarri dutela baina oraindik ebatzi gabe dagoela.

7.3.2.– Oposizio-faseko proben garapena.

Oposizio-fasea 2018ko ekainetik aurrera hasiko da. Maiatzeko bigarren hamabostaldian, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez zehaztuko dira epaimahaien egoitzak, bai eta oposizio-fasea egiteko lekuak eta datak ere.

Ariketa kolektiboetan parte hartzeko deialdia jaso duten pertsonak azterketa lekuan agertu beharko dira ezarritako data eta orduan. Banakako ariketen kasuan, egun bakoitzerako deialdia jaso duten pertsonak epaimahaiak ariketak hasteko ezarri duen orduan agertu beharko dira.

Epaimahaiak banakako probak lehendabizi egin behar dituzten izangaien zitazioak iragarriko dituzte, eta egokitzen jotzen diren beste gai batzuk ere; iragarpen horiek probak egingo diren ikastetxeetako iragarki-tauletan jarriko dituzte. Era berean, informazio moduan, Interneteko helbide hauetan ere iragarriko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Behin epaimahaien aurrean banakako jarduketak hasita, izangaiantzako hurrengo deialdiak ere probak egingo diren ikastetxeetan iragarri beharko dira, hasi baino hogeita lau ordu lehe-

nago, gutxienez. Era berean, informazio moduan, Interneteko helbide hauetan ere iragarriko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> eta <http://www.irakasle.eus>

Izangaiek epaimahaien aurrean banakako probetan jarduteko ordena zehaztean, kontuan hartuko da zer prozeduratan eta zer txandatan hartzen duten parte. Hortaz, proba aurrena egingo dutenak izango dira goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran parte hartzen dutenak, eta, ondoren, txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzen duten izangaiek egingo dute proba –azken bi txanda horietakoek batera egingo dute–. Txanda horien barruko ordenari dagokionez, izangaien abizenen alfabeto-ordenari jarraituko zaio, K letratik hasitako abizena duen lehenengo pertsona izanik lehena, Langileak Kudeatzeko zuzendaria 2017ko martxoaren 23ko Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, argitara eman zen 2017-2018 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan -baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere- alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra zozketaren emaitza.

Izangaien lehenengo abizena aipatutako letraz hasten ez den kasuetan, hurrengo letrarekin edo letrekin hasiko dute epaimahaiak jarduketan ordena. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die izangaiei identifika daitezela; horretarako, izangaiek NANA edo jatorriko herrialdeko antzeko dokumentu bat, pasaporte edo titularraren argazkia duen gidabaimena aurkeztu beharko dute.

Epaimahaiak jakinez gero izangaien batek ez dituela betetzen deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak, epaimahaiak, lehendabizi izangaia entzunda, izangaia baztertzea proposatuko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, eta, era berean, pertsona horren hautaketa-probetarako onarpen-eskabidean zer-nolako desegokitasunak edo faltsukeriak dauden jakinaraziko dio, dagozkion ondorioak izan ditzan. Kasu horretan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpena eman bitartean, hautaketa-prozesuan parte hartzen jarraitu ahal izango du izangaia, modu baldintzatuan. Izangaia baztertzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Halaber, epaimahaiak ahalmena dute ariketak egiten direnean edozein iruzur egiten duten izangaia hautaketa-prozeduratik baztertzeko, iruzur horren eraginez proba ezin denean normaltasunez garatu, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak aintzat hartuta.

Epaimahaiburuak egitate horien berri emango dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, eta dagokion bilkura-aktan jasoko du.

Izangaia baztertzeko epaimahaiaren erabakiaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

7.3.3.– Sindikatuei hautaketa-prozesuaren jarraipen egokia egiteko behar duten informazioa eta/edo dokumentazioa emango die Hezkuntza Sailak.

7.4.– Oposizio-fasearen kalifikazioa.

Epaimahaiak, oposizio-faseko probak kalifikatzeko, IX. eranskinean adierazitako balorazio-irizpideak hartuko dituzte kontuan.

Epaimahaikide guztien irizpideek bat egiteko eta ebaluazioa ahalik objektiboena izateko, ebaluatu beharreko kompetentzia bakoitzarentzat beharrezko diren errubrikak erabiliko.

7.4.1.– Txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan sartzeko prozedura.

7.4.1.1.– Lehenengo proba (A eta B zatia).

Proba hau 0 eta 10 puntu artean baloratuko da; proba osatzen duten bi zatiei dagozkien kalifikazioak batuz lortuko da balorazio hori. Probaren A zatia eta B zatia 0 eta 10 puntu artean kalifikatuko dira, eta honela haztatuko dira:

a) A zatia: kalifikazio haztatua kalkulatzeko, lortutako kalifikazioa bider 0,6 egingo da.

b) B zatia: kalifikazio haztatua kalkulatzeko, lortutako kalifikazioa bider 0,4 egingo da.

Proba gainditzeko, zati bakoitzean lortutako puntuazioak horiei esleitutako puntuazioaren % 25ekoa edo gehiagokoa izan beharko du, eta guztizko puntuazioak (bi zatien puntuazio haztatu baturak) bost puntu edo gehiagokoa izan beharko du.

7.4.1.2.– Bigarren proba.

Proba honen balorazio globala 0 eta 10 puntu artekoa izango da; proba osatzen duten bi zatiei (A eta B) dagozkien kalifikazioak batuz lortuko da balorazio global hori, honela haztatuta:

a) A zatia: programazioaren idatzizko dokumentuak % 40 balioko du (0 eta 10 puntu artean esleitutako kalifikazioa bider 0,4 egingo da) eta ahozko defentsak % 60 balioko du (0 eta 10 puntu artean esleitutako kalifikazioa bider 0,6 egingo da). Era berean, haztatu egingo da kalifikazio horien baturatik eskuratzen den 0 eta 10 puntu arteko kalifikazioa (adierazitakoaren arabera kalkulatuta), eskuratu den kalifikazio hori bider 0,4 eginda.

Eskatutako lanaren zehaztasun-maila zalantzarik gabe zehaztearren eta aukera-berdintasuna bermatzearren, baldin eta epaimahaiak ikusten badu programazio didaktikoa ez datorrela bat 7.1.2.1 oinarriaren laugarren paragrafoan ezarritako baldintza formalekin (DIN-A4 formatuko 50 folio gehienera ere, alde bakarretik idatzita, espazio bikoitzean, «Arial» letra-tipoan idatzita, 12 puntuko tamainan eta 9 unitate didaktiko gutxienez), programazio didaktikoaren dokumentu idatziaren puntuazioa 0 izango da.

b) B zatia: kalifikazio haztatua kalkulatzeko, lortutako kalifikazioa (0 eta 10 puntu artekoa) bider 0,6 egingo da.

Bigarren proba gainditzeko, izangaiek 5 puntu edo gehiagoko puntuazio global haztatua lortu beharko dute.

7.4.1.3.– Oposizio-faseari dagokion kalifikazioa fase hau osatzen duten bi zatietan lortutako puntuazioen batez besteko aritmetikoa izango da, izangaiek bi zatia gainditu dituenean.

7.4.2.– Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozedura.

Proba honen balorazio globala 0 eta 10 puntu artekoa izango da; proba osatzen duten bi zatiei dagozkien kalifikazioak batuz lortuko da balorazio global hori, honela haztatuta:

a) Lehenengo zatia: kalifikazio haztatua kalkulatzeko, lortutako kalifikazioa bider 0,5 egingo da.

b) Bigarren zatia: kalifikazio haztatua kalkulatzeko, lortutako kalifikazioa bider 0,5 egingo da

Proba gainditzeko, izangaiek 5 puntu edo gehiagoko puntuazio global haztatua lortu beharko dute.

Epaimahaiak, balorazioa egiteko, izangaia gaiari buruz dituen ezagutzak, baliabide didaktikoak eta baliabide pedagogikoak hartuko ditu kontuan.

7.4.3.– Izangai bakoitzak ariketa bakoitzean lortutako puntuazioa epaimahaian dauden kide guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoaren bidez finkatuko da. Epaimahaian dauden kideek emandako puntuazioetan hiru puntu edo gehiagoko aldea badago, kalifikazio altuena eta baxuena ez dira kontuan hartuko, eta gainerako kalifikazioekin egingo da batez bestekoa.

7.5.– Oposizio-fasean lortutako kalifikazioak argitaratzea.

Proba bakoitza amaitutakoan, jakinarazteari begira, epaimahai bakoitzak egoitza duen ikas-tetxean ipiniko dituzte epaimahaiek izangaiek lortutako kalifikazioen behin-behineko zerrendak. Era berean, Interneteko helbide hauetan ere ikusi ahal izango dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-sail/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Kalifikazio horien aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote izangaiek dagokien epaimahaiari, bi egun balioduneko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Erreklamazioak epaimahaiburuari bidaliko zaizkio, eta epaimahaiaren egoitzan aurkeztu beharko dira. Behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko dute epaimahaiek non (egoitzaren barruan) eta zer ordutegitan aurkez daitezkeen erreklamazioak.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gehienez berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, epaimahaiek kalifikazioen behin betiko zerrendak jakinaraziko dituzte, aipatutako tokietan; puntuazioak aldatu ez badira, erreklamazioak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Ondoren, oposizio-fasean lortutako guztizko kalifikazioak argitaratuko dira, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Kalifikazio horiek lortzeko, batez besteko aritmetikoa egingo da fase hori osatzen duten bi probetan lortutako puntuazioekin, proba guztiak gainditu direnean. Interneteko helbide hauetan ikusi ahal izango dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-sail/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Guztizko kalifikazio horien aurka ez dago errekurtsioa aurkezterik; interesdunek, nahi izanez gero, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute deialdi honen 10.3.2 oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren aurka.

7.6.– Oposizio-fasea gainditu duten izangaiek lortutako puntuazioak jakinaraziko dizkiote epaimahaiek hautaketa-batzordeari, batzorde horrek lehiaketa-faseari dagozkion kalifikazioak batu ditzan, 9. oinarriak aipatzen duen puntuazio globala lortzearren.

VII. KAPITULUA

LEHIAKETA-FASEA

8.– Dokumentuak entregatzea, ofizioz barematzea eta puntuazioak argitaratzea.

8.1.– Lehiaketa-fasea I. eta II. eranskinetan adierazitako merezimenduei puntuazioa esleitzean datza.

2018ko maiatzaren 2tik 14ra bitartean, hautaketa-prozeduran onartuta dauden izangaiek, agindu honen 4. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, bai eta baztertuta daudenek ere (baldin eta gora jotzeko errekurtsioa jarri badute eta ebatzi gabe badago), I. eta II. eranskinetan adierazitako

merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), oinarri honetan eta aipatutako eranskinetan aurreikusitakoaren arabera.

Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren espediente akademikoaren batez besteko nota baloratu ahal izateko, titulu atzerrian lortu duten izangaiek, merzeimenduak aurkezteko epea agortu ondoren, beste hogeit egun natural izango dituzte titulu eman zuen herrialdeko Hezkuntza Administrazioak karrera osoan lortutako kalifikazioen batez besteko notaren ziurtagiria eman dezan. Horrez gain, Espainiako kalifikazioekiko baliokideak zehazteko, atzerriko sistema akademiko horretan lor daitezkeen kalifikazio gorenak zein diren ere adierazi beharko du.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte burututako merzeimenduak bakarrik baloratuko dira.

Izangai bakoitzak gehienez ere 10 puntu jaso ditzake lehiaketa-fasean bere merzeimenduak baloratzean.

8.2.– Agindu honen I. eta II. eranskinetan merzeimendu hauek daude: inola ere ez ofizioz zenbatesten direnak, bai eta ofizioz zenbatesten direnak ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude (ofizioz zenbatesten direnean, dagokion merzeimenduen ataletan espresuki adierazten da, aipatutako eranskinetan). Jasota dauden merzeimenduak kontsultatzeko, www.irakasle.eus helbidera jo behar da («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Espediente Pertsonala», atal hauetan:

- Zerbitzu-orria.
- Tituluak (atal honetan, espediente akademikoaren batez besteko nota ere agertu ahal izango da).
- PREST_GARA ikastaroen eta homologatuen ziurtagiriak lortzea.
- Zuzendaritza-karguak (goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozedurarako).

Halaber, ikastaroak ere kontsulta daitezke Interneteko helbide berean: «Administrazio-izapi-deak» atalean – «2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Norberari egokitutako kontsultak».

www.irakasle.eus helbidera sartzeko erabili beharreko pasahitza izango da izangaia beste prozesu batzuetan (ordezpenetarako izangaien zerrendak, etab.) parte-hartzeagatik daukana; edo, pasahitzik ez dutenentzat, eskabidea betetzerakoan sistemak berak sortu duena, 3.1.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

8.3.– Izangaiek honako egiaztagiriak bakarrik aurkeztu behar dituzte: ofizioz zenbatesten ez diren merzeimenduenak eta ofizioz zenbatetsi arren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez dauden merzeimenduenak. Aipatutako egiaztagiriak «Administrazioarentzako alea» frogagiriarekin batera aurkeztuko dituzte (eskabidea betetzean edo dokumentuak entregatzeko aurretiko hitzordua eskatzean lortu ahal izango da). Frogagiri horretan, «Aurkeztutako dokumentazioa» atalean, barematzeko aurkezten dituzten egiaztagiriaren merzeimendu guztiak alegatu behar dituzte.

8.4.– Izangaiek beren-beregi hartzen dute beren gain aurkeztutako dokumentuen gaineko erantzukizuna. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulaturik badago, izangaia galdu egingo du deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Administrazioak eskubidea izango du edozein unetan behar diren azalpenak eta dokumentuak eskatzeko, merezimenduei dagokienez sortutako zalantzak edo erreklamazioak ebazteko.

8.5.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako dokumentu guztiak. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta bakar-bakarrik ondoren adierazten diren merezimenduei dagokienez, dagokion hizkuntzan aurkez daitezke egiaztagiriak:

- I. eranskinaren III.1 (argitalpenak) eta III.2 (etengabeko prestakuntza) ataletako merezimenduak.
- II. eranskinaren II (prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak), III.2.1 (argitalpenak), III.2.2 (sariak) eta III.2.3 (proiektuak) ataletako merezimenduak.

8.6.– Izangai bakoitzari dagokion puntuazioaren esleipena, epaimahaiek delegatuta, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek egingo dute, I. eranskineko III.1 eta III.2 ataletako eta II. eranskineko II, III.2.1, III.2.2 y III.2.3 ataletako merezimenduak izan ezik. Azken horiek batzorde barematzaileek baloratuko dituzte.

8.7.– Lehiaketa-fasean lortutako puntuazioak argitaratzea.

8.7.1. Honako hauetako merezimenduak: I. eranskineko I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskineko I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak (Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematuak).

Espezialitate guztietako izangaiek atal horietan lortu dituzten puntuazioen behin-behineko zerrenda 2018ko uztaileko lehenengo hamabostaldian argitaratuko da. Argitaratzeko data zehatza alde zuzenean iragarriko da Hezkuntza Sailaren web-orri hauetan: <http://www.irakasle.eus> eta <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>.

Lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratuko da:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira): «2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» > «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» > adierazi kidegoa eta espezialitatea > «Emitzak» > «Lehiaketa-aldia – Partziala».

Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, lau egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Erreklamazio horiek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta lurralde historiko bakoitzeko Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira.

Puntuazioen behin betiko zerrenda, erreklamazioak aztertu ondoren, behin-behineko zerrenda bezala argitaratuko da.

8.7.2.– Honako hauetako merezimenduak: I. eranskineko III.1 eta III.2 azpiatalak eta II. eranskineko II atala eta III.2.1, III.2.2 eta III.2.3 azpiatalak (batzorde barematzaileek barematuak).

Espezialitate bakoitzeko izangaiek atal horietan lortu dituzten puntuazioen behin-behineko zerrendak dagokion batzorde barematzaileak argitaratuko ditu 2018ko uztaileko lehenengo hamabostaldian; argitaratze-data zehatza espezialitate bakoitzean barematu behar diren izangai kopuruaren arabera eta, ondorioz, baremazio-lana amaituko den dataren arabera izango da.

Behin-behineko zerrendak, lortutako puntuazioekin, espezialitate bakoitzeko batzorde barematzaileak argitaratuko ditu bere «Iragarki-taulan»:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira): «2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» > «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» > adierazi kidegoa eta espezialitatea > «Baremazio-Batzordeak» > adierazi batzorde zk. > «Iragarki-taula».

Behin-behineko zerrenden aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, lau egun balioduneko epean, zerrendak argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Erreklamazio horiek dagokion espezialitateko batzorde barematzailearen buruari zuzenduko zaizkio, eta batzorde horren egoitzan aurkeztu beharko dira. Behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko dute batzorde barematzaileek non (egoitzaren barruan) eta zer ordutegitan aurkez daitezkeen erreklamazioak.

Puntuazioen behin betiko zerrendak, erreklamazioak aztertu ondoren, behin-behineko zerrendentzat adierazitako leku beretan argitaratuko dira.

8.7.3.– Behin betiko puntuazioen aurka, ezin izango da errekurtsorik aurkeztu; hala badagokio, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu beharko dute interesdunek 10.3.2 oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren aurka.

8.7.4.– Irakaskuntza-kidegora sartzeko prozeduran (txanda irekiko eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda), oposizio-faseko lehenengo proba gainditu duten izangaien merezimenduengatik esleitu zaizkien puntuazioak barematu eta argitaratuko dira. Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduraren kasuan, izangai guztiei esleitutako puntuazioak barematu eta argitaratuko dira.

8.8.– Lehiaketa-fasean lortutako kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten izangaiei soilik aplikatuko zaie.

8.9.– Izangaiek eskubidea izango dute aurkeztu dituzten jatorrizko dokumentuak berreskuratzeke (I. eranskineko III.1 atalean eta II. eranskineko III.2.1 atalean –«Argitalpenak»– barematzeko aurkeztu zituen dokumentuak). Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak zehazten duen lekuan eta epean jaso ahal izango ditu, prozesua amaitu ondoren, betiere izangairen batek erreklamaziorik edo errekurtsorik aurkezten ez badu; halakorik egingo balu, dokumentuak atxiki egin daitezke, egiaztapen edo froga gisa. Dokumentuak epe horretan jasotzen ez badira, horiek berreskuratzeari uko egiten zaiola ulertuko da, eta jasotzeko eskubidea galduko da.

VIII. KAPITULUA

LEHIAKETA- ETA OPOSIZIO-FASEAK GAINDITZEA

9.– Lehiaketa- eta oposizio-faseetako puntuazioak haztatzea eta puntuazio globala.

Puntuazio globala da oposizio-fasean eta lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen batura, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan sartzeko eta iristeko prozeduretarako aurreikusitako haztapena egin ostean.

Horrela, sartzeari dagokionez, hau izango da puntuazio globala osatzeko haztapena: % 60 oposizio-faserako eta % 40 lehiaketa-faserako. Iristeari dagokionez, haztapena % 55ekoa izango da oposizio-faserako eta % 45ekoa lehiaketa-faserako.

10.– Izangaiak ordenatzea eta oposizio-lehiaketa gainditzea.

10.1.– Izangaiak ordenatzea.

10.1.1.– Fase bakoitzeko puntuazioak atera eta haztatu ondoren, hautaketa-batzordeek lehiaketa-faseko puntuazioak gehituko dizkiete oposizio-fasean lortutako puntuazioei azken fase horretan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaien kasuan, eta ordenatu egingo dituzte prozedura, txanda eta espezialitate bakoitzean, lortutako puntuazio globalaren arabera.

10.1.2.– Ordenatzean berdinketarik balego, hurrenez hurren ondorengo irizpideen arabera ebatziko dira:

10.1.2.1.– Txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan sartzeko prozedura.

a) Oposizio-fasean puntuazio handiagoa lortu izana.

b) Oposizio-faseko ariketa bakoitzean puntuazio handiagoa lortu izana, ariketak deialdi honetan agertzen diren ordenaren arabera.

c) Lehiaketa-faseko merezimenduen ataletan puntuazio handiagoa lortu izana, atal horiek deialdian agertzen diren ordenaren arabera.

d) Lehiaketa-faseko merezimenduen azpiataletan puntuazio handiagoa lortu izana, azpiatal horiek deialdian agertzen diren ordenaren arabera.

e) Berdinketak bere horretan badirau, dagokion hautaketa-organoak egoki iriztitako gaitasun-proba osagarriak egin daitezela aginduko du. Emakumeak % 40 baino gutxiago diren espezialitateetan, aipatutako probak egin beharrean, emakumeen lehentasuna erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa. Salbuespena izango da lanposturako beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Hala eta guztiz, berdinketak bere horretan badirau, egoki iriztitako gaitasun-proba osagarriak egingo dira.

10.1.2.2.– Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozedura.

a) Proban puntuazio handiagoa lortu izana.

b) Merezimenduen baremoaren ataletako bakoitzean puntuazio handiagoa lortu izana, atal horiek deialdian agertzen diren ordenaren arabera.

c) Merezimenduen baremoaren azpiataletan puntuazio handiagoa lortu izana, azpiatal horiek deialdian agertzen diren ordenaren arabera.

d) Berdinketak bere horretan badirau, dagokion hautaketa-organoak egoki iriztitako gaitasun-proba osagarriak egin daitezela aginduko du. Emakumeak % 40 baino gutxiago diren espezialitateetan, aipatutako probak egin beharrean, emakumeen lehentasuna erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa. Salbuespena izango da lanposturako beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Hala eta guztiz, berdinketak bere horretan badirau, egoki iriztitako gaitasun-proba osagarriak egingo dira.

10.2.– Hautaketa-prozesua gainditzea.

10.2.1.– Praktika-fasera pasatzeko hautatuko dira izangaiak, baldin eta, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izanik, edota aldi baterako hori egiaztatzetik salbuetsita izanik, eta gaztelaniaren ezagutza egiaztatzeko proba gaindituta, hala badagokio, aukeratutako prozeduran, txandan eta espezialitatean deitutako lanpostu-kopuru osoaren berdina edo txikiagoa den hurrenkera-zenbakia badute, puntuazio globalaren arabera ordenatu ondoren.

10.2.2.– Aipatutako jarduerak egin ondoren, hautaketa-batzordeek hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak osatuko dituzte. Zerrenda horietan, zeinak espezialitateen arabera bereiziko baitira, batetik, txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartu dutenak egongo dira (batera), eta, bestetik, goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran parte hartu dutenak.

Txanda irekian hautatutako pertsonen zerrendak eratzean, hautaketa-organoek hasieran txanda horri esleituta zeuden lanpostuei gehituko dizkiete desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan eta goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran bete gabe geratu diren lanpostu guztiak.

Espezialitate bakoitzerako zenbat lanpostu eskaini diren, hautaketa-organoek inoiz ezin izango dute gaindituztat eman kopuru horretatik gorako izangai-kopurua hautaketa-prozesuan.

10.3.– Oposizio-lehiaketa gainditu duten hautatutako izangaien zerrendak argitaratzea.

10.3.1.– Hautaketa-organoek Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dizkiote hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpen baten bidez xedatuko du hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak argitaratzea, eta bertan adieraziko du zerrendak non egongo diren ikusgai.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrendak, interesdunei jakinarazteari begira, Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Era berean, informazio moduan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan ere argitaratuko da adierazitako ebazpena.

Behin-behineko zerrenda horien aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, horietan egon litezkeen akatsak direla-eta.

10.3.2.– Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, hautaketa-organoek Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dizkiote hautatutako izangaien behin betiko zerrendak; zuzendariak ebazpena emango du, zerrenda horiek argitaratzea xedatzeko. Ebazpena eta hautatutako izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, bai eta Interneteko helbide hauetan ere, interesdunei jakinarazteari begira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Zerrenda horien ale bat deialdia egiten duen organoari helaraziko zaio, eta prozesuaren garapenean sortutako gainerako dokumentazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren zaintzapean geldituko da.

10.3.3.– Hautaketa-organoek, espezialitate bakoitzerako hautatu dituzten izangaien zerrendarekin batera, beste zerrenda ordenatu bat ere prestatuko dute hautatutako izangai ordezkoeekin, zerrendakide-kopuru bera izango duena, aurkez daitezkeen errekursoak onetsiz gero edo hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egin izanagatik—Langileak Kudeatzeko zuzendariaren aurrean aurkeztuak 2018ko abuztuaren 18a baino lehenago—, hautatutako izangairen batek izaera hori galtzen badu edo.

11.– Hautatutako izangaiek egin beharrekoa.

11.1.– Dokumentuak aurkeztea.

Hogei egun naturaleko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, pertsona horiek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dituzte agiri hauek, «Hautatuek agiriak entregatzea» izeneko ereduarekin batera:

a) Kidegoan sartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko ikasketa guztiak gainditu dituela eta titulua emateko eskubideak ordaindu dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Ez dute horrelakorik aurkeztu behar hautaketa-prozesuan zehar dagoeneko aurkeztu dutenek.

Atzerrian lortutako tituluaren kasuan, Bigarren Hezkuntzako irakaslearen edo Lanbide Heziketako irakaslearen lanbide arautura iritsi eta lanbidean jardun ahal izateko lanbide-kualifikazioa aitortzen duen kredentziala edo dagokion homologazioa erantsi beharko dira, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.

b) Indarrean den Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, kasu honetan izan ezik: «Hautatuek agiriak entregatzea» ereduaren esanbidezko adostasuna adieraztea Hezkuntza Sailak nortasun-datuak kontsulta ditzan, nortasun-datuak egiaztatzeke sistema elektronikoen bitartez.

Espanian bizi diren atzerriko izangaiek aurkeztu beharko dituzte nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua, eta indarrean den Europako Erkidegoko egoiliarraren edo horren senidearen txartelaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, indarrean den Europako Erkidegoko egoiliarraren edo langile mugakidearen aldi baterako txartelaren fotokopia konpultsatua.

Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalak diren izangaiek, edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla-eta langileen zirkulazio librea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalak badira eta Espainian bizi ez badira, atzerrian bizi direlako edo Espainian egonaldi-araubidean daudelako, nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

Izangaiak atzerritarrak izanik, Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla-eta langileen zirkulazio librea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalen ezkontideak badira (baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude), eta euren edo ezkontidearen ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izan arren, mendekoak badira, hauek aurkeztu beharko dituzte: pasaportearen edo bisatuaren eta, hala behar izanez gero, dagokion txartela eskatu izanaren frogagiriaren edo bisatuaren eta txartel horren salbuespena eskatu izanaren frogagiriaren fotokopia konpultsatua. Dokumentu horiek eskatu ez badira, agintari eskudunek emandako dokumentuak, ahaidetasuna frogatzen dutenak, aurkeztu beharko dituzte; aurkeztu beharko dituzte,

halaber, Europar Batasuneko edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla-eta langileen zirkulazio librea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalaren –zeinarekin lotura hori duen– zinpeko deklarazioa edo hitzematea, non adieraziko baita ezkontidearengandik ez dagoela zuzenbidez bananduta eta, hala badagokio, izangaia horren pentzudan edo kargura bizi dela.

c) Zinpeko deklarazioa edo hitzematea, hauek adieraziz: diziplina-espeditate baten ondorioz ez dutela baztertu inongo administrazio publikotatik, ez dutela funtzio publikoak egiteko desgaitu, eta ez dagoela sartuta Herri Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasunen inolako legezko kausatan.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, bestalde, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu beharko dute, hauek adieraziz: ez dutela beren gain norberaren estatuko funtzio publikoan jardutea galarazten dien diziplina-zehapenik edo kondena penalik.

d) Desgaitasunen bat izan eta hori baliatu duen izangaia foru-aldundiko, autonomia-erkidegoko, edo, hala egokituz gero, Estatuko Administrazio Orokorreko gizarte-ongizateko sailtako organo eskudunen ziurtagiria aurkeztu beharko du, non jasoko baita izangaia % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duela; bestela, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ebazpena aurkeztu beharko du, zeinaren bidez ezintasun iraunkor osoa aitortzen baitzaio irakaskuntzakoa ez den beste lanbide baterako. Bi kasuetan egiaztatu beharko du aukeratu dituen kidegoari eta espezialitateari dagozkien zereginak eta egitekoak burutzeko bateragarritasuna.

Eskabideak aurkezteko hasierako epean aurkeztu badu, orain ez du aurkeztu behar.

e) Aukeratutako kidego eta espezialitateko egitekoekin bateraezina den muga fisiko edo psikorik edo gaixotasunik ez duela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria.

f) Deialdi honen 2.2.3 oinarrian aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo tituluaren fotokopia konpultsatua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita daudela egiaztatzen duen tituluarena. Ez dute horrelakorik aurkeztu behar hautaketa-prozesuan zehar dagoeneko aurkeztu dutenek.

Oinarri horrek aipatutako prestakuntzaren baliokidea dela aitortzen duen alde zurreko irakaskuntza-esperientzia egiaztatzeko, I. eranskinen I. atalean adierazitakoari jarraituko zaio.

g) Epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik kondenatuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina. Delitu horren barruan sartzen dira sexu-erasoak eta -abusoak, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea, baita gizakien salerosketa ere. Hala ere, ez dute horrelakorik aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari datu horiek kontsultatzeko esanbidezko adostasuna eman diotenenk, elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bitartez, 3.1.5 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek honako hau ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko dute: jatorrizko herrialdeetan ez dutela kondenarik izan aipatutakoen izaera bereko delituei dagokienez.

11.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako dokumentu guztiak. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

11.3.– Ezarritako epean dokumentazioa aurkezten ez dutenek –ezinbesteko kasuetan izan ezik–, edo dokumentu horien azterketatik ondorioztatzen bada 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 oinarrietan adierazitako betekizunen bat betetzen ez dutela, karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubide guztiak galduko dituzte, alde batera utzi gabe hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik izan dezaketen erantzukizuna.

Ezinbesteko kasuren batean dagoenak berehala jakinarazi beharko dio Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari, idatziz, aipatutako zuzendaritzak azter dezan.

Kode Zibilaren 1105. artikulua araberak, ezinbesteko kasuak dira aurreikusi ezin diren gertaerak, edo, aurreikusita ere, saihetsezinak direnak.

11.4.– Deialdi honen 12.3 oinarrian aipatzen diren pertsonak bi aukera dituzte: praktiketako funtzionario izendatuak izatea edo, karrerako funtzionario izendatu arte, haien jatorrizko kidegoetan jarraitzea. Idatziz adierazi beharko dute zer aukeratu duten. Idatzia Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidali beharko diote, bost egun balioduneko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

11.5.– Praktika-fasean hastea ikasturte akademiko batez atzeratu behar dutenek –amatasun-bajan, aldi baterako ezintasun egoeran edo ezinbesteko beste kasuren batean daudelako eta horren ondorioz ezin dutelako praktika-fasea ohiko eran egin– idatziz eskatu beharko diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bost egun balioduneko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, beharrezko egiaztagiria erantsita. Zuzendaritza horrek ebazpena emango du, eskabidea baiesteko edo ukatzeko.

Atzeratze-epea igaro eta gero praktika-fasea hasten ez duenak karrerako funtzionarioaren izendapenari dagozkion eskubide guztiak galduko ditu.

11.6.– Atzerrian bizi diren hautatutako izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, Espainiaren ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsulatuetan aurkeztu ahal izango dute, eta erakunde horiek organismo eskudunera igorriko dute dokumentazioa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010). Toki horietan aurkezteko epea oro har 11.1 oinarrian adierazitakoa izango da.

11.7.– Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran hautatutako izangaiek ez dituzte dokumentu bidez justifikatu beharko karrerako funtzionarioaren aurreko izendapena lortzeko dagoeneko egiaztatu zituzten baldintzak eta beteki-zunak; horrela, 11.1.a oinarrian ezarritako dokumentazioa bakarrik aurkeztu beharko dute.

IX. KAPITULUA

PRAKTIKA-FASEA

12.– Praktiketako funtzionario izendatzea.

12.1.– Hezkuntzako sailburuak praktiketako funtzionario izendatuko ditu hautatutako izangaiek, praktikak egiteko betebeharretatik salbuetsita ez badaude, edo, salbuetsita izanik ere, praktikak egitea erabaki baldin badute; kasu horretan, ez dituzte ebaluatuko.

12.2.– Praktika-fasetik salbuetsita egoteak edota praktikak egiteko atzerapena lortzeak ez du aldaketarik ekarriko gainerako izangaiei esleitutako lanpostuetan, ez eta hautatutako pertsonen zerrendan ere.

12.3.– Hautatutako izangaiek ez dute praktika-faserik egin beharko baldin eta egiaztatzen badute irakasleen kidego batean karrerako funtzionario gisa gutxienez ikasturte batean lan egiten dutela, edo goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduren bidez sartzen badira. Kasu horietan, izangaiek aukeratu dezakete praktika-fasea egin (hori ez da ebaluatuko) edo, karrerako funtzionario izendatu arte, haien jatorrizko kidegoan jarraitu.

12.4.– Praktika-fasea egiteko destinoen esleipena egingo da hautatuak izan diren espezialitatean eta hautaketa-prozeduran lortutako puntuazioaren arabera, parte hartzeko erabiltzen den txanda gorabehera, ikasturte akademikoaren hasierako esleipen-prozesuarekin bat etorrira, praktika-fasea egin behar dutenei dagokionez. Prozesu hori 2011ko uztailaren 15eko Aginduak arautzen du (uztailaren 29ko EHAA).

Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran hautatuak izan diren eta praktikak egitea aukeratu duten pertsonen lehentasuna izango dute esleipen-prozesu horretan, destinoak lortzeari dagokionez, txanda irekiaren eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandaren bidez sartzen direnen aurrean.

12.5.– Praktika-fasea egiteko lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira. Hautatutako pertsonen esleitu zaizkien destinoetan egin beharko dute praktika-fasea, eta, 2018-2019 ikasturtearen hasieran destino horietara agertzen ez badira, hautaketa-prozedurari uko egiten diotela ulertuko da, salbu eta praktika-fasea hastea atzeratzeko aukera eman bazaie edo, behar bezala egiaztatutako kausak direla-eta, destinoetara agertzea ezinezkoa izan bazaie.

Praktiketako funtzionario izendatu dituzten izangaiek eta, praktika-fasea egitetik salbuetsita izanik, jatorrizko euren kidegoetan jarraitu nahi izan duten izangaiek lanpostu-hornikuntzarako deituko diren hurrengo lehiaketetan parte hartu beharko dute, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeren batean eta hautatuak izan diren espezialitatean euren lehen behin betiko destinoa lortu arte.

13.– Praktika-fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.

13.1.– Praktika-fasearen xedea da hautatutako izangaiek irakaskuntzarako duten gaitasuna egiaztatzea. Praktikak, oro har, amaitutzat joko dira eta ebaluatu egin ahal izango dira irakaskuntza zuzeneko sei hilabete egin eta gero, gutxienez 2/3eko eguneko lanaldiarekin.

Salbuespenezko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun egoeran, amatasun-bajan edo aurreikusi gabeko eta albuespenezko beste egoeraren batean badago eta horren ondorioz ezin badu praktika-fasea ohiko eran egin –kalifikazio-batzordeak baloratuko du–, praktika-fasea, gutxienez, hiru hilabeteko batetik gorakoa izan ahalko da, eta aldi horrek jarraitua izan beharko du. Salbuespenezko kasu horietan ere, gutxienez 2/3eko eguneko lanaldia egin beharko da.

Horren garapena Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez arautuko da, betiere Ikastetxeen Zuzendaritzak eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak proposatuta.

Fase hori 2018-2019 ikasturtearen hasierarekin batera hasiko da.

13.2.– Kalifikazio-batzordeek izendatutako irakasle esperientziadunen tutoretzapean egingo da praktika-fasea. Batzorde horien osaera praktika-fasea arautuko duen ebazpenean xedatuko da.

13.3.– Praktika-fasean, lanpostuan sartzeko eta trebatzeko jarduerak, kalifikazio-batzordeek programatutakoak, egin ahal izango dira. Horrez gain, batzordeek izangaiei amaierako txostena egiteko eskatu ahal izango diete, topatutako zailtasunak eta jasotako laguntzak balora ditzaten.

13.4.– Praktika-fasea amaitzean, izangai guztiek «gai» edo «ez gai» kalifikazioa jasoko dute. Dagokion kalifikazio-batzordeak egingo du ebaluazioa, adierazitako ebazpenak ezarritako irizpideei jarraikiz. Betiere, ebaluazioa egitean, aintzat hartuko dira irakasle-tutoreak, praktikak egiteko erabili den ikastetxeko zuzendariak eta programatutako trebakuntza-jardueren arduradunek egingako txostenak.

«Ez gai» deklaraturako izangaia praktiketako funtzionario gisa sartu beharko da «ez gai» deklaraturia izan den ikasturtearen hurrengo ikasturtean, eta praktika-fasea behin bakarrik errepikatu ahal izango du.

Hurrengo urterako kidego eta espezialitate bererako hautaketa-prozesua deituta egongo balitz, hurrengo promozioko hautatuekin batera sartuko da lanera, eta, kasu horretan, sartutako promozioan, bere espezialitatean hautatutako azken izangaiaren hurrengo tokia beteko du.

Lanera sartzen ez direnek edo bigarren ez «ez gai» kalifikazioa jasotzen dutenek karrerako funtzionarioaren izendapena lortzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Deialdia egin duen agintaritzak deklaraturako du eskubide horien galera, ebazpen ziodun baten bidez.

X. KAPITULUA

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

14.– Karrerako funtzionario izendatzea.

Aurkeztutako dokumentuak egiaztatu ostean, Hezkuntzako sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du praktika-fasea gainditu duten izangaien eta praktikak egitetik salbuetsita zeuden izangaien (praktikak egitea –ebalatu gabe– zein ez egitea aukeratu ahal izan dute) izendapena karrerako funtzionario gisa. Praktika-fasea zer ikasturtetan gainditu duten, hurrengo ikasturtearen hasiera-egunetik aurrera izango ditu ondorioak izendapenak.

Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran hautatutako pertsonak, Euskal Hezkuntza Administrazioan eskatutako kidego eta espezialitateko behin betiko lanpostuak betetzen ari badira, lanpostu horietan behin betiko jarraitzea erabaki ahal izango dute, eta, beraz, ez diete eragingo 12.4 eta 12.5 oinarrietako aurreikuspenek.

XI. KAPITULUA

ORDEZKOEN ZERRENDETAN SARTZEA

15.– Zerrendak irekitzea hautaketa-prozesuko probak gainditu dituztenentzat.

Hautaketa-prozesuko probak gainditu dituzten baina hautatuak izan ez diren izangaiak irakasleen ordezenpenetarako izangaien zerrendan sartu ahal izango dira, zeina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak arautzen baitu

(2012ko abuztuaren 27ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duena). Probak gainditu dituzten espezialitatearen zerrendan sartuko dira, betiere lehendik zerrenda horretan ez bazeuden.

Ondorio horretarako, hautaketa-prozesutik datozen praktiketako funtzionarioen izendapenak argitaratu ostean, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdi espezifiko bat egingo du, probak gainditu dituzten baina hautatuak izan ez diren pertsonak sartzeko aukera balia dezaten. Deialdi hori Interneteko helbide hauetan argitaratuko da: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> eta <http://www.irakasle.eus>

Pertsona horiek aurkeztu beharko dituzte hautaketa-prozesuan eskatutako betekizun orokorrek eta berariazko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak (11.1 oinarria); horrez gain, honako hauek aukeratu beharko dituzte horretarako ezarriko den epean: zer lurralde-tan eman nahi dituzten eskolak, lanaldi-mota eta eskolak emateko hizkuntza-eskakizuna.

Aukera horretaz baliatzen direnek zerrenda ordenatu bat eratuko dute hautaketa-prozesuan lortutako puntuazio globalaren arabera.

Geroago, urtero egiten den ordezenpenetarako izangaien zerrendaren birbaremazioan, zerrenda diferentziatuko pertsonak (hautaketa-prozesuaren bitartez sartu direnak) zerrenda orokorrean bateratuko dira.

II. TITULUA

ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO PROZEDURA

16.– Datu orokorrak.

Kapitulu honetan araututako prozeduraren bitartez, espezialitate hauek eskuratu ahal izango dira:

– Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa: Filosofia, Musika, Marrazketa, Ekonomia, Enpresen administrazioa, Analisiak eta industria kimika, Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak, Lanerako prestakuntza eta orientabidea, Gizarte esku-hartzea, Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa, Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak, Energia sistemen antolakuntza eta proiektuak, Osasun prozesuak, Sistema elektronikoak eta Sistema elektroteknikoak eta automatikoak.

– Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoa: Instalazio elektroteknikoak, Ibilgailuen mantentze-lanak, Makinen mekanizazioa eta mantentzea, Osasun eta laguntza prozedurak, Merkataritza-prozesuak, Administrazio-kudeaketako prozesuak eta Informatika sistemak eta aplikazioak.

Prozedura honi aplikatuko zaizkio agindu honetako 1.6 oinarrian jasotako xedapenak eta sartzeko eta iristeko prozedurako gainerako oinarriak, baldin eta prozedura honetarako xedatzen denari kontra egiten ez badiote.

Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura aipatutako espezialitateetara sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedurarentzat adierazitako leku beretan egingo da.

17.– Betekizunak.

Prozedura honetan parte hartu ahal izateko, izangaiek betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoko karrerako funtzionario izatea, lortu nahi den espezialitatea zer kidegori dagokion oinarri hartuta, destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko kudeaketa-eremuan izatea.

b) Eskuratu nahi den espezialitatean sarbide irekia izateko behar diren betekizunak izatea (2. oinarrian daude adierazita).

18.– Eskabideak.

18.1.– Prozedura honetan parte hartu nahi dutenek bete beharreko eskabideak Interneteko helbide honetan egongo dira eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>- «2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Especialitate berriak eskuratzeko prozedura» – «Onartzeko eskabidea».

18.2.– Epea.

Deialdi honen 3.5 oinarrian ezarritakoa izango da.

18.3.– Tasak.

Prozedura honen bidez parte hartzen duten izangaiek 3.2 oinarrian ezarritakoaren arabera ordainduko dute tasa.

19.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko eta behin betiko zerrenden argitalpena deialdi-agindu honen 4. oinarrian xedatutakoarekin bat etorriko da.

20.– Hautaketa-organoak.

Hautaketa-organoak 5. oinarrian irakasleen kidegoetara sartzeko eta iristeko prozeduretarako aipatzen diren berdinak izango dira, eta prozedura honi buruz aipatutako oinarrian zerrendatzen diren egiteko berdinak beteko dituzte.

21.– Probaren hasiera eta garapena.

Probaren hasiera eta garapena deialdi-agindu honen 7.3.2 oinarrian xedatutakoaren arabera egingo dira.

Epaimahaien aurreko proba egiteko hurrenkerari dagokionez, prozedura honetako izangaiak azkenak izango dira parte hartzen; hau da, goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran eta txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzen dutenek amaitutakoan hartuko dute parte.

22.– Probaren ezaugarriak.

Proban, kontuan hartuko dira izangaiak irakasgaiari buruz dituen ezagutzak, bai eta dituen baliabide didaktiko eta pedagogikoak ere. Lortu nahi duen espezialitateko gai baten ahozko azalpena eman beharko du; epaimahaiak ausaz ateratako gai-multzo baten artetik, izangaiak gai bat aukeratuko du. Gai-multzoaren kopurua espezialitate bakoitzeko gai-zerrendari dagozkien gaien kopuru osoaren proportzionala izango da, honako irizpide hauen arabera:

a) 25 gai baino gehiago eta 51 gai baino gutxiago duten espezialitateetan, lau gairen artean aukeratu beharko da.

b) 50 gai baino gehiago duten espezialitateetan, bost gairen artean aukeratu beharko da.

Azalpenaren osagarri, gaiaren planteamendu didaktikoa egingo du izangaiak, askatasunez aukeratuko duen ziklo edo maila zehatz bati buruz.

Izangai bakoitzak ordubeteizango du, gehienez, azalpena prestatzeko, eta azalpen horretan lagungarri zaion material osagarria erabili ahal izango du –berak eraman beharko du materiala–, bai eta gidoi bat ere –ezingo da izan folio bat bi aldeetatik idatzita baino luzeagoa–; azalpena bukatutakoan, epaimahaiari emango dio gidioia. Azalpenak berrogeita bost minutuko iraupena izango du gehienera. Bukatutakoan, epaimahaikideek galderak egin edo jarduerak eskatu ahal izango dizkiote izangaiari, azalpenaren edukiarekin lotuta; debate horrek ez du hamabost minutu baino gehiago iraungo.

23.– Kalifikazioa.

23.1.– Epaimahaiak aurreko oinarriak aipatzen duen probari «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango dio, eta espezialitate berria «gai» kalifikazioa lortu duten izangaiek eskuratuko dute soilik.

23.2.– Proba amaitu ostean, jakinarazteari begira, epaimahaiek ikusgai jarriko dituzte izangaiek lortutako kalifikazioen behin-behineko zerrendak, epaimahai bakoitzak egoitza duen ikastetxean; era berean, Interneteko helbide hauetan ere kontsultatu ahal izango dira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Kalifikazio horren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote izangaiek dagokien epaimahaiari, bi egun balioduneko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Erreklamazio horiek epaimahai bakoitzak egoitza duen ikastetxean aurkeztu beharko dira, 7.5 oinarrian jasotakoaren arabera.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gehienez berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, epaimahaiek kalifikazioen behin betiko zerrendak jakinaraziko dituzte, aipatutako tokietan; eta, puntuazioak aldatu ez badira, erreklamazioak ezetsi egin direla ulertu beharko da.

Behin betiko kalifikazioen aurka, ezin izango da errekurtsorik aurkeztu; hala badagokio, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu beharko dute interesdunek deialdi honetako 23.3 oinarrian aurreikusitako azken ebazpenaren aurka.

23.3.– Hautaketa-organoek Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko diote «gai» kalifikazioa duten izangaien zerrenda. «Gai» kalifikazioa lortu duten izangaiek deialdi honetako 17. oinarrian eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez, «gai» deklaratu diren pertsonen zerrenda argitaratuko da, eta zerrenda horretan adieraziko da zein den eskuratutako espezialitate berria.

Ebazpena eta behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, bai eta Interneteko helbide hauetan ere, interesdunei jakinarazteari begira: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («2018ko EPE. Irakasleak. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

23.4.– Hogeit hamar egun naturaleko epean, espezialitate berria eskuratu duten izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, pertsona horiek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dute honako hau ziurtatzen duen agiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina: ez direla kondenatuak izan, epai irmoz, sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik (horien artean dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea), ez eta gizakien salerosketagatik ere. Hala ere, ez dute horrelakorik aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari datu horiek kontsultatzeko esanbidezko adostasuna eman diotenek, elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bitartez, 3.1.5 oinarrian adierazitakoaren arabera.

23.5.– Prozedura honen bidez espezialitate berri bat eskuratzen dutenak praktika-fasetik salbuetsita geratuko dira.

23.6.– Espezialitate berri bat eskuratzeak ez du esan nahi ordura arte izandakoak galtzen direnik. Espezialitate bat baino gehiago eskuratuta dutenak horietako edozeini dagozkion lanpostuetara sartu ahal izango dira irakasle funtzionarioen lanpostuak betetzeko ezarritako mekanismoen bidez.

III. TITULUA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

24.– Parte hartzen dutenek aurkeztutako datuak hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek inola ere ez dituzte erabiliko beste batzuek, eta laga ere ez zaizkie lagako, ez bada interesdunaren baimen argi eta garbirik, edo ez bada datu pertsonalak babesteko legean jasotako kasuren batean (15/1999 Legea, abenduaren 13koa, 6.2 eta 11.2 artikulua; 1999ko abenduaren 14ko BOE, 298. zk.).

Aipatutako 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, datuak lagatzen dituen pertsonak, edozein unetan, datuak eskuratu, zuzendu, ezereztu eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu.

Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenetara egokitu beharko da.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

TXANDA IREKIA ETA DESGAITASUNA DUTENENTZAT GORDETAKO TXANDA

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte burututako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Izangaiek ezin izango dute 10 puntu baino gehiago lortu merezimenduen balorazioagatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako merezimenduen egiaztagiria. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua. Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta bakar-bakarrik III.1 Argitalpenak eta III.2 Etengabeko prestakuntza izeneko atalei dagokienez, dagokion hizkuntzan aurkez daitezke egiaztagiria.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– Aldez aurreko irakasle-esperientzia (Gehienez 7,000 puntu)		
I.1.– Ikastetxe publikoetan, eskatutako kidegoko espezialitateetako irakaskuntzan izangaiak lortu duen esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0583 puntu gehituko da.	0,700	Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emandako zerbitzu-orria. Honako hauek jasoko ditu: zein egunetan jabetu zen lanpostuaz eta zein egunetan utzi zuen, kidegoa eta espezialitatea. Halakorik izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo horien fotokopia konpultsatuak. Honako hauek jasoko dituzte: zein egunetan jabetu zen lanpostuaz, kidegoa eta espezialitatea, eta lanaren uzte-dokumentua.
I.2.– Ikastetxe publikoetan, eskatutako kidegoaz bestelako kidegoetako espezialitateetako irakaskuntzan izangaiak lortu duen esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0292 puntu gehituko da.	0,350	** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).
I.3.– Bestelako ikastetxeetan, irakaskuntza arautuaren espezialitateetako irakaskuntzan lortutako esperientzia-urte bakoitzeko, baldin eta izangaiak eskatutako kidegoaren hezkuntza-maila edo -etapa berari badagokio. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0125 puntu gehituko da.	0,150	Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, eranskin honen amaieran argitaratu den ereduari jarraituz, eta dagokion Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuak ontzat emana. Ziurtagiri horrek honako datu hauek jasoko ditu derrigorrean: zerbitzuak, zehatz-mehatz, zein egunetan hasi eta bukatu ziren, hezkuntza-maila eta baimendutako irakaskuntza arautuei dagokien espezialitatea/irakasgaia/modulua. Horrekin batera, ikastetxearen izena (enpresarena) eta alta-aldiak adierazten dituen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (GSDN) emana.
I.4.– Bestelako ikastetxeetan, irakaskuntza arautuaren espezialitateetako irakaskuntzan lortutako esperientzia-urte bakoitzeko, baldin eta izangaiak eskatutako kidegoaren hezkuntza-maila edo -etapari ez badagokio. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0083 puntu gehituko da.	0,100	** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).

Oharrak:

I.a.– Atal honen ondorioetarako, gehienez ere hamar urte hartuko dira kontuan, eta horietako bakoitza aurreko azpiataletako batean baino ez da baloratuko. Gainera, zerbitzuak ikastetxe batean baino gehiagotan eman badira aldi berean, puntuazioak ezin izango dira metatu.

I.b.– I.1 eta I.2 azpiatalen ondorioetarako, ikastetxe publikotzat jotzen dira hezkuntza-administrazioek sortu eta sostengatutako ikastetxeen sare publikoan sartuta daudenak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoaren IV. tituluko II. kapituluaren araututakoak; lege organiko hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013ko Lege Organikoak aldatu zuen). Ez dira ikastetxe publikotzat jotzen, ordea, udalen, foru-aldundien edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen mende daudenak.

I.c.– Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osorako etenik gabeko izendapena edo, bestela, ikasturte berean betetako zerbitzu-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak badira.

Hil osokotzat hartuko dira hogeita hamar eguneko zerbitzuak, jarraituak izan zein ez.

I.d.– Atzerrian emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo eskumen-organoek emandako ziurtagiriak erabiliko dira, eta honako datu hauek jaso beharko dituzte: zerbitzu-aldiaren iraupena, ikastetxea publikoa edo pribatua den, eta zer hezkuntza-mailatan eta zer irakasgai irakatsi den. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztu beharko dira. Hargatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzeko.

I.e.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta lege hori aldatzen duen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013ko Lege Organikoan araututako kidegoei irakastea dagokien irakaskuntzan emandako zerbitzuak baino ez dira baloratuko.

Hauek ez dira baloratuko:

- unibertsitate publiko zein pribatuetan irakasten eduki daitekeen esperientzia.
- haur-eskola publiko edo pribatuetan (0-3 urte arteko zikloa) hezitzaile izanda eduki daitekeen esperientzia.
- hizkuntza-laguntzaile lanetan eduki daitekeen esperientzia.
- prestakuntza-jarduera osagarriak irakasten eduki daitekeen esperientzia.

I.f.– Gaur egun jardunean ez dauden ikastetxeei dagokienez, dokumentu hauek aurkeztuz egiaztatu ahal izango da esperientzia: interesdunaren zinpeko aitortpena, lan-kontratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (GSDN) emandako ziurtagiria (ikastetxearen izena –enpresa– eta alta-aldiak jasoko dituen), dagokion Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren oniritziarekin.

I.g.– Emandako zerbitzuak zer kidegotan, hezkuntza-mailatan edo -etapatan eman diren egiaztatzen ez denean, eskatutako kidegoaz, hezkuntza-mailaz edo -etapaz bestelako batean eman direla ulertuko da.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK												
II.– Prestakuntza akademikoa eta etengabeko prestakuntza (Gehienez 5,000 puntu)														
<p>II.1.– Kidegora iristeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa, baldin eta alegatutako titulua bat badator, oro har, kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailarekin (Doktoretza, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo dagokion Gradu-titulua, A-1 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako; edo Unibertsitate Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo dagokion Gradu-titulua, A-2 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako).</p> <p>Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da:</p> <table> <tr> <td>Notak 0-10 eskalan</td> <td>Notak 0-4 eskalan</td> <td></td> </tr> <tr> <td>- 5,50 eta 6 artean Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi</td> <td>- 1,25 eta 1,50 artean</td> <td>0,500</td> </tr> <tr> <td>- 6,01 eta 7,50 artean Oso ongi</td> <td>- 1,51 eta 2,25 artean</td> <td>1,000</td> </tr> <tr> <td>- 7,51 eta 10 artean Bikain, Ohorezko matrikula</td> <td>- 2,26 eta 4,00 artean</td> <td>1,500</td> </tr> </table>	Notak 0-10 eskalan	Notak 0-4 eskalan		- 5,50 eta 6 artean Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi	- 1,25 eta 1,50 artean	0,500	- 6,01 eta 7,50 artean Oso ongi	- 1,51 eta 2,25 artean	1,000	- 7,51 eta 10 artean Bikain, Ohorezko matrikula	- 2,26 eta 4,00 artean	1,500		<p>Tituluan lortutako batez besteko nota adierazten duen ziurtagiri akademikoa pertsonala (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Batez besteko nota ateratzeko, kontuan hartuko dira alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak diren irakasgai guztien puntuak (egokitutakoak eta baliozkotuak barne) eta ikasturte bakoitzean eskuratutakoak.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko da espediente akademikoaren batez besteko nota (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p>
Notak 0-10 eskalan	Notak 0-4 eskalan													
- 5,50 eta 6 artean Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi	- 1,25 eta 1,50 artean	0,500												
- 6,01 eta 7,50 artean Oso ongi	- 1,51 eta 2,25 artean	1,000												
- 7,51 eta 10 artean Bikain, Ohorezko matrikula	- 2,26 eta 4,00 artean	1,500												
<p>II.2.– Graduondokoak, Doktoretza eta aparteko sariak:</p> <p>II.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua), ikerketarako nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri, baldin eta ez badira irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko betekizuna.</p> <p>II.2.2.– Doktore-titulua.</p> <p>II.2.3.– Doktoretzan aparteko saria.</p>	<p>1,000</p> <p>1,000</p> <p>0,500</p>	<p>Dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua edo, bestela, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko da Doktore-titulua (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p> <p>Hori egiaztatzeko ziurtagiria.</p>												

2018ko otsailaren 27a, asteartea

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.– Prestakuntza akademikoa (Gehienez 5,000 puntu)		
<p>II.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk (irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira).</p> <p>II.3.1.– Lehenengo zikloko tituluak: Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo legez horien baliokidetzat jotako titulu bakoitza eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza baten lehenengo zikloari dagozkion ikasketak.</p> <p>A-2 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kidegoetara sartu nahi duten izangaien kasuan, ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, izangaiak aurkeztuko duen izaera horretako lehenengo titulu edo ikasketa-agiria.</p> <p>A-1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kidegoetara sartu nahi duten izangaien kasuan, ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako lehenengo titulu eskuratzeko gainditu behar den izaera horretako lehenengo titulu edo ikasketa-agiria.</p> <p>II.3.2.– Bigarren zikloko tituluak: Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo ondorio guztietarako legez horien baliokidetzat jotako bestelako tituluak. Gradu-titulua ere baloratuko da atal honetan. Hargatik, Gradu-titulua ez da aintzat hartuko baldin eta ikasketa berdinei dagokien unibertsitate-titulua (Diplomatura edo Lizentziatura) dutenei zuzendutako egokitze-ikastaro baten bitartez eskuratu bada titulu hori.</p> <p>A-1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kidegoetara sartu nahi duten izangaien kasuan, ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, izangaiak aurkeztuko duen Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Gradu-ko lehenengo tituluak.</p>	1,000	<p>Kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren eta merezimendu moduan aurkeztutako en fotokopia konpultsatua edo, bestela, titulu eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.</p> <p>Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzako lehenengo zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da; bertan, berariaz adieraziko da ziklo horri dagozkion irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko dira Diplomaturak, Ingeniaritza Teknikoak, Arkitektura Teknikoak, Lizentziaturak, Ingeniaritzak, Arkitekturak eta Graduak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>
<p>II.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren tituluak: HEOek, Musika Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak, bai eta Berariazko Lanbide Heziketarenak ere, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira edo, hala badagokio, alegatutako titulu eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira:</p>		<p>Ziurtagiri akademikoaren edo tituluaren/ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, edo titulu eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko dira ziurtagiriak/tituluak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>

a) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko.	0,500	
b) HEOKo maila aurreratuaren (B2) edo horren baliokidea den ziurtagiri bakoitzeko.	0,500	
HEOKo gaitasun mailaren (C1) edo horren baliokidea den ziurtagiri bakoitzeko.	0,750	
HEOKo C2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko.	1,000	
c) Arte Plastikotako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,200	
d) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,200	
e) Kiroletako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,200	

Oharrak:

II.a.– Kidegoan sartzeko alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoa.

II.a.1.– Ez da baloratuko izangaiak lortutako batez besteko nota berariaz adierazten ez duen espedienterik.

III.a.2.– Ziurtagirietan nahitaez agertu beharko da batez besteko nota. Batez besteko nota ateratzeko, kontuan hartuko dira alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak diren irakasgai guztien puntuak (egokitutakoak eta baliozkotuak barne) eta ikasturte bakoitzean eskuratutakoak. Baldintza hori bete ezean, ez da punturik lortuko atal honetan.

Ziurtagirian agertzen den batez besteko nota «Nahiko» bada, kontuan hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da nota hori zenbakitara bihurtzean 5,50 edo altuagoa izatea, izangaiak aurkeztutako egiaztagirietan azaldutakoaren arabera.

II.a.3.– Bigarren zikloko tituluei dagokien espediente akademikoa baloratzeko, kontuan hartuko da, era berean, bigarren ziklorako titulu horretarako sarbidea eman zion lehenengo zikloko tituluari dagokion espediente akademikoa.

II.a.4.– Tituluak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa izan beharko dute, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan ezarritakoari eutsiz, edo, bestela, lanbide-kualifikazioaren aitortpena izan beharko dute azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuak xedatutakoaren babesean. Kasu horretan, baliokidetasuna zehazteko, titulua eman zuen herrialdeko hezkuntza-administrazioak igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko da; bertan, batez besteko nota eta atzerriko sistema akademiko horretan lor daitezkeen kalifikazio altuena eta baxuena zein diren adierazi beharko da.

II.b.– Graduondokoak, Doktoretzak eta aparteko sariak.

II.2.1 azpiatalean inola ere ez da baloratuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Ikasketetan irakasle lanbidean aritzeko gaitzen duen Master Titulu Ofiziala, ezinbesteko betekizuna baita irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko.

II.c.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk.

II.c.1.– Bigarren zikloko titulu bat aurkezten bada eta sartzeko alegatutako tituluaren berbera ez bada, bigarren zikloko titulu horri dagokion puntuazioa soilik onartuko da II.3.2 atalean. Ikasketa horren lehenengo zikloari dagokion ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, ikasketa-planeko irakasgai guztiak gainditu direla adierazten duena, II.3.1 atalean dagokion puntuazioa baloratuko da (aipatutako ataletan adierazi diren salbuespenen kalterik gabe).

II.c.2.– Tituluak atzerrian lortu badira, II.a.4 oharrean adierazitakoa aurkeztu beharko da.

II.d.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak.

II.d.1.– II.4.b) azpiatalean aipatutako merezimendua baloratzeko orduan, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak (BOE, 2007ko urtarrilaren 4koa) III. eranskinean aurreikusitako baliokidetasunak hartuko dira kontuan, baita otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak xedatzen duena ere (dekretu horren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako -oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila- curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira; EHAA, 2009ko martxoaren 12koa).

II.d.2.– Izangaiak hizkuntza beraren hainbat titulu edo ziurtagiri aurkezten baditu II.4.b) azpiatalerako, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.

II.d.3.– Izangaiak erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza eta maila berbererako, eta titulu edo ziurtagiri horietako bat hizkuntza-eskola ofizialek emandakoa bada, II.4.b) eta III.4 azpiataletan aurreikusitako egoeren artean, behin bakarrik jasoko du puntuazioa hizkuntza horren ezagutza egiaztatzeak, II.4.b) azpiatalean, izangaiak kontrakorik adierazten ez badu, hau da, hizkuntza horren ezagutza III.4 azpiatalean zenbatestea nahi duela adierazten ez badu. «Administrazioarentzako alea» izeneko frogagirian adierazi beharko du hori, merezimenduak aurkezteko epearen barruan.

III.d.4.– Izangaiak erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza beraren maila desberdinetarako, II.4.b) eta III.4 azpiataletan aurreikusitako egoeren artean, egiaztatutako maila altuena duen azpiatalean soilik jasoko du puntuazioa, izangaiak kontrakorik adierazten ez badu. «Administrazioarentzako alea» izeneko frogagirian adierazi beharko du hori, merezimenduak aurkezteko epearen barruan.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– Beste merezimendu batzuk (Gehienez 2,000 puntu)		
<p>III.1.– Argitalpen didaktiko edo zientifikoak, baldin eta eskatutako espezialitatearekin zerikusirik badute:</p> <p>Egilea bada</p> <p>Egilekidea edo egile-talde bateko kidea bada</p> <p>Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abendua 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatutakoa) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.</p>	<p>0,5000</p> <p>0,2500</p>	<p>Argitalpenen aleak.</p> <p>Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez, hala nola, bideoak edo CD-ROMak, argitalpen horiekin batera joan ohi diren dokumentu inprimatuak ere aurkeztu beharko dira (karatulak, helburuak eta edukiak azaltzen dituzten liburuxkak, inprimaketak, etab.).</p> <p>Formatu elektronikoan soilik dauden argitalpenen kasuan, txosten ofizial bat ere aurkeztu beharko da; bertan, erakunde igorleak ziurtatu beharko du argitalpena datu-base bibliografikoan agertzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, urtea eta URL helbidea. Aipatutako txostena aurkeztu ezin bada, erakunde igorlea desagertu delako edo atzerrian argitaratutako argitalpenak direlako, Zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilita egiaztatuz beharko dira txosten horretan eskatzen diren datuak.</p>
<p>III.2.– Etengabeko prestakuntza:</p> <p>Hezkuntza-administrazioek edo unibertsitateek deitutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntzako ikastaro gaitutako bakoitza, hezkuntza-administrazioen erakunde laguntzaileek antolatutako etengabeko prestakuntzako planean jasotako jarduerak bakoitza, eta dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerak bakoitza:</p> <p>a) Ez 3 kreditu baino gutxiagokoa</p> <p>b) Ez 10 kreditu baino gutxiagokoa</p> <p>Hauekin lotuta egon beharko dute guztiak: lortu nahi duen espezializazioarekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin, hezkuntzaren soziologiarekin edo hezkidetzarekin.</p> <p>(*). Azpialde honen ondorioetarako, bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak metatu daitezke, atal honetan finkatzen diren betekizunak betetzen badituzte. Horretarako, gutxienez bi kreditukoak eta hiru baino gutxiagokoak diren ikastaro guztiak gehituta egingo da metatze hori, eta dagokion azpialdera eramango da emaitza.</p>	<p>0,2000</p> <p>0,5000</p>	<p>Dagokion erakundeak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria; ziurtagiriak berariaz jasoko du ikastaroak zenbat kreditu edo ordu iraun zuen. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da puntuaziorik lortuko atal honetan.</p> <p>Etengabeko prestakuntzako planean sartutako edo hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerari dagokienez, berariaz jaso beharko da jarduerak aipatutako planaren barruan dagoela edo hezkuntza-administrazioak aitortuta dagoela.</p> <p>** Ofizioski zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak, baita Sail horren etengabeko prestakuntzako planaren barruan dauden edo Sailak aitortuta dituen jarduerak ere (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>

2018ko otsailaren 27a, asteartea

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– Beste merezimendu batzuk (Gehienez 2,000 puntu)		
III.3.– Gorputz Hezkuntzako espezialitaterako soilik. «Goi mailako kirolari» kalifikazioa izatea, uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera.	0,4000	Eskumena duen erakundearen ziurtagiria, berariaz jasotzen duena «Goi mailako kirolari» kalifikazioa.
III.4.– Atzerriko hizkuntzak jakitea		Atzerriko hizkuntzen jakintza-maila egiaztatzen duen tituluaren edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.
a) Atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago, baldin eta ez bada II.4.b) atalean adierazi den HEOko hizkuntza bereko C2 maila.	1,0000	** Ofizioz zenbatetsiko dira ziurtagiriak/tituluak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).
b) Atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago, baldin eta ez bada II.4.b) atalean adierazi den HEOko gaitasun-mailaren (C1) edo horren baliokidea den hizkuntza bereko ziurtagiria.	0,7500	
c) Atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago, baldin eta ez bada II.4.b) atalean adierazi den HEOko maila aurreratuaren (B2) edo horren baliokidea den hizkuntza bereko ziurtagiria.	0,5000	

Oharrak:

III.a.– Etengabeko prestakuntza.

III.a.1.– III.2 azpiatalean ez dira baloratuko, inola ere ez, Titulu Akademikoa, Masterra, Doktoretza edo Graduondoko beste titulu bat lortzea helburu duten ikastaro edo irakasgaiak. Halaber, ez dira baloratuko Espezializazio Didaktikoaren titulua, Irakasteko Gaitasun Ziurtagiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Ikasketetan irakasle lanbidean aritzeko gaitzen duten Master Titulu Ofiziala lortzea helburu duten ikastaro edo jarduerak.

III.a.2.– Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuan edo urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan araututa ez dauden eta egiaztatzen diren beste masterrak III.2 azpiatalean baloratu daitezke.

III.a.3.– III.2 azpiatalaren balorazioaren ondorioetarako, kontuan hartu beharko da 1992ko azaroaren 26ko Aginduak jasotzen duen kredituen eta orduen arteko baliokidetasuna; agindu horrek irakasleen etengabeko prestakuntzako jardueren deialdia, onarpena, egiaztatzea eta erregistroa arautzen ditu, eta ikerketa-jardueren eta unibertsitateko tituluaren baliokidetzaz ezartzen du. (BOE, 1992ko abenduaren 10ekoa).

Haren hamargarren artikuluan adierazten den bezala, «Etengabeko prestakuntzako jardueren balorazioa prestakuntza-kredituetan adieraziko da, irizpide hauei jarraiki:

1.– Ikastaro eta mintegien kasuan, prestakuntza-kreditu bat prestakuntzan egindako lan errearen zortzi orduren baliokidea izango da gutxienez, eta hamabiren baliokidea gehienez [...].

2.– Ikastaro eta mintegiei dagozkien kreditu-kopurua haiek garatzeko eta gainditzeko behar den denbora kalkulaturik finkatuko da, ondoko taulari jarraiki:

Lanorduak:

Zortzi eta hamabi artean. Kredituak: 1.

Hamahiru eta hamazazpi artean. Kredituak: 1,5.

Hemezortzi eta hogeita bi artean. Kredituak: 2.

Hogeita hiru eta hogeita zazpi artean. Kredituak: 2,5.

Hogeita zortzi eta hogeita hamabi artean. Kredituak: 3.

Eta modu berean kalkulaturik hortik aurrerakoak.»

III.a.4.– III.2 azpiatalean ez daude sartuta berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak eta, beraz, ez dira baloratuko.

III.a.5.– Izangaiak ikasle edo entzule gisa parte hartu duen prestakuntza-jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan; ez dira kontuan hartuko izangaia emaile, hizlari, koordinatzaile, zuzendari edo tutore izandako jarduerak.

III.a.6.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak emandako Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagiriko prestakuntza-jarduerak bat egiaztatzeak ez du esan nahi zuzenean merezimenduz hartuko denik deialdi honetarako; izan ere, III.2 azpiatalean aurreikusitako baldintzen arabera, batzorde barematzaileari dagokio hori zehaztea.

III.a.7.– Unibertsitateek deitutako ikastaroak unibertsitateek emandako ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira.

Ez dira unibertsitateek deitutako ikastarotzat hartuko Hezkuntzan eskumenik ez duten erakundeek (pribatuak edo publikoak) antolatutako ikastaroak, nahiz eta unibertsitate baten babesarekin laguntza izan.

Udako unibertsitateetako prestakuntza-jarduerak unibertsitate batek antolatutakoak badira bakarrik baloratuko dira.

III.b.– Atzerriko hizkuntzak jakitea.

III.b.1.– Izangaiak III.4 azpiatalerako hizkuntza beraren hainbat titulu edo ziurtagiri aurkezten baditu, maila altuena duena baino ez da kontuan hartuko.

III.b.2.– Izangaiak erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza eta maila berbererako, eta titulu edo ziurtagiri horietako bat hizkuntza-eskola ofizialek emandakoa bada, II.4.b) eta III.4 azpiataletan aurreikusitako egoeren artean, behin bakarrik jasoko du puntuazioa hizkuntza horren ezagutza egiaztatzeak, II.4.b) azpiatalean, izangaiak kontrakorik adierazten ez badu, hau da, hizkuntza horren ezagutza III.4 azpiatalean zenbatestea nahi duela adierazten ez badu. «Administrazioarentzako alea» izeneko frogagirian adierazi beharko du hori, merezimenduak aurkezteko epearen barruan.

III.b.3.– Izangaiak erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza beraren maila desberdinetarako, II.4.b) eta III.4 azpiataletan aurreikusitako egoeren artean, egiaztatutako maila altuena duen azpiatalean soilik jasoko du puntuazioa, izangaiak kontrakorik adierazten ez badu. «Administrazioarentzako alea» izeneko frogagirian adierazi beharko du hori, merezimenduak aurkezteko epearen barruan.

II. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

GORAGOKO MAILA BATEAN SAILKATUTA DAUDEN IRAKASLEEN BESTE KIDEGO
BATZUETARA IRISTEKO PROZEDURA

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte burututako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Izangaiek ezin izango dute 10 puntu baino gehiago lortu merezimenduen balorazioagatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako merezimenduen egiaztagiria. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua. Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta bakar-bakarrik II (Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak) eta III.2.1, III.2.2 eta III.2.3 (Argitalpenak, sariak eta proiektuak) atalei dagokienez, dagokion hizkuntzan aurkez daitezke egiaztagiria.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– Egindako lana (gehienez 5,500 puntu)		
I.1.– Antzinasuna (gehienez 4,0000 puntu) Sarbidea zer kidegotatik abiatu nahi den, kidego horretan karrerako funtzionario gisa emandako urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0416 puntu gehituko da.	0,500	Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emandako zerbitzu-orria. Honako hauek jasoko ditu: zein egunetan jabetu zen lanpostuaz eta zein egunetan utzi zuen, kidegoa eta espezialitatea. Halakorik izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo horien fotokopia konpultsatuak. Honako hauek jasoko dituzte: zein egunetan jabetu zen lanpostuaz eta zein egunetan utzi zuen, kidegoa eta espezialitatea. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).

2018ko otsailaren 27a, asteartea

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
I.– Egindako lana (gehienez 5,500 puntu)		
I.2.– Berariazko funtzioak betetzea eta ebaluazioa (Gehienez 2,5000 puntu)		
I.2.1.– a) Ikastetxe publiko bateko edo laguntza-zerbitzuetako ikastetxe bateko zuzendari edo zuzendari ondoko lanetan emandako urte bakoitzeko.	0,200	Hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, kasuaren arabera, argi adieraziz zein egunetan jabetu zen karguaz eta zein egunetan utzi zuen, edo, bestela, izendapenaren fotokopia konpultsatua, jabetze eta kargu-uzteen izapideekin edo, hala badagokio, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean karguan jarraitzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
b) Ikasketaburu (ikasketaburu ondoko kargua barne), idazkari (idazkari ondoko kargua barne), Lanbide Heziketako ataletako irakasle ordezkari lanetan edo Batxilergoko luzapenetan edo Bigarren Hezkuntzako ataletan ikasketaburu lanetan emandako urte bakoitzeko. Horiek guztiak ikastetxe publikoei dagozkie.	0,150	** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan izandako zuzendaritza-kargu hauek (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude): zuzendaria, idazkaria, ikasketaburua eta kargu horien ondokoak.
c) Ikastetxe publiko bateko saileko buru, ziklo edo etapako koordinatzaile edo bestelako organoren batean koordinatzaile lanetan emandako urte bakoitzeko.	0,075	
I.2.2.– Hautetsitako kide gisa, ikastetxeko Eskola Kontseiluan irakasleen ordezkari lanetan aritutako urte bakoitzeko.	0,050	Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria.
I.2.3.– Hautaketa-prozesuetan epaimahaikide izatea. Prozesu bakoitzeko.	0,050	Deialdia egin duen hezkuntza-administrazioan prozedura horietako epaimahaien aktak zaintzeaz arduratzen den organoak egindako ziurtagiria. ** Ofizioz zenbatetsiko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak kidegoetan sartzeko eta iristeko deitutako hautaketa-prozeduraren batean epaimahaiko kide aritu izana (2007ko urtarrilaren 1etik aurrera).

Oharrak:

I.a.– I.2 azpiatalaren ondorioetarako, ikastetxe publikotzat jotzen dira hezkuntza-administrazioek sortu eta sustengatutako ikastetxeen sare publikoan sartuta daudenak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoaren IV. tituluko II. kapituluaren araututakoak; lege organiko hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013ko Lege Organikoak aldatu zuen). Ez dira ikastetxe publikotzat jotzen, ordea, udalen, foru-aldundien edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen mende daudenak.

I.b.– Antzinatasunari buruzko atalean, sarbidea zer kidegotatik abiatu nahi den, kidego horretan betekizun gisa eskatzen diren urteetatik gora karrerako funtzionario gisa emandako urteak baino ez dira baloratuko.

I.c.– Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osorako etenik gabeko izendapena edo, bestela, ikasturte berean betetako zerbitzu-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak badira.

Hil osokotzat hartuko dira hogeita hamar eguneko zerbitzuak, jarraituak izan zein ez.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
II.– Prestakuntza eta hobekuntzako ikastaro gaindituak (gehienez 3,000 puntu)		
<p>Hezkuntza-administrazioek edo unibertsitateek deitutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntzako ikastaro gainditu bakoitza, hezkuntza-administrazioen erakunde laguntzaileek antolatutako etengabeko prestakuntzako planean jasotako jarduera bakoitza, eta dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduera bakoitza:</p> <p>a) Ez 3 kreditu baino gutxiagokoa</p> <p>b) Ez 10 kreditu baino gutxiagokoa</p> <p>Hauekin lotuta egon beharko dute guztiek: lortu nahi duen espezializazioarekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin, hezkuntzaren soziologiarekin edo hezkidetzarekin.</p> <p>(*). Azpiatal honen ondorioetarako, bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak metatu daitezke, atal honetan finkatzen diren betekizunak betetzen badituzte. Horretarako, gutxienez bi kreditukoak eta hiru baino gutxiagokoak diren ikastaro guztiak gehituta egingo da metatze hori, eta dagokion azpiatalera eramango da emaitza.</p>	<p>0,2000</p> <p>0,5000</p>	<p>Dagokion erakundeak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria; ziurtagiriak berariaz jasoko du ikastaroak zenbat kreditu edo ordu iraun zuen. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da puntuaziorik lortuko atal honetan.</p> <p>Etengabeko prestakuntzako planean sartutako edo hezkuntza-administrazioak aitortutako jardueri dagokienez, berariaz jaso beharko da jarduera aipatutako planaren barruan dagoela edo hezkuntza-administrazioak aitortuta dagoela.</p> <p>** Ofizios zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak, baita Sail horren etengabeko prestakuntzako planaren barruan dauden edo Sailak aitortuta dituen jarduerak ere (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>

Oharrak:

II.a.– II. azpiatalean ez dira baloratuko, inola ere ez, Titulu Akademikoa, Masterra, Doktoretza edo Graduondoko beste titulu bat lortzea helburu duten ikastaro edo irakasgaiak. Halaber, ez dira baloratuko Espezializazio Didaktikoaren titulua, Irakasteko Gaitasun Ziurtagiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Ikasketetan irakasle lanbidean aritzeko gaitzen duten Master Titulu Ofiziala lortzea helburu duten ikastaro edo jarduerak.

II.b.– Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuan edo urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan araututa ez dauden eta egiaztatzen diren beste masterrak atal honetan baloratu daitezke.

II.c.– II. atalaren balorazioaren ondorioetarako, kontuan hartu beharko da 1992ko azaroaren 26ko Aginduak jasotzen duen kredituen eta orduen arteko baliokidetasuna; agindu horrek irakasleen etengabeko prestakuntzako jardueren deialdia, onarpena, egiaztatzea eta erregistroa arautzen ditu, eta ikerketa-jardueren eta unibertsitateko tituluen baliokidetzaz ezartzen du (BOE, 1992ko abenduaren 10ekoa).

Haren hamargarren artikuluan adierazten den bezala, «Etengabeko prestakuntzako jardueren balorazioa prestakuntza-kredituetan adieraziko da, irizpide hauei jarraiki:

1.– Ikastaro eta mintegien kasuan, prestakuntza-kreditu bat prestakuntzan egindako lan errealaren zortzi orduren baliokidea izango da gutxienez, eta hamabiren baliokidea gehienez [...].

2.– Ikastaro eta mintegiei dagozkien kreditu-kopurua haiek garatzeko eta gainditzeko behar den denbora kalkulatuta finkatuko da, ondoko taulari jarraiki:

Lan-orduak:

Zortzi eta hamabi artean. Kredituak: 1.
Hamahiru eta hamazazpi artean. Kredituak: 1,5.
Hemezortzi eta hogeita bi artean. Kredituak: 2.
Hogeita hiru eta hogeita zazpi artean. Kredituak: 2,5.
Hogeita zortzi eta hogeita hamabi artean. Kredituak: 3.
Eta modu berean kalkulatuta hortik aurrerakoak.»

II.d.– II. atalean ez daude sartuta berrikuntza- eta esperimenezio-proiektuak eta, beraz, ez dira baloratuko.

II.e.– II. atalean, izangaiak ikasle edo entzule gisa parte hartu duen prestakuntza-jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan; ez dira kontuan hartuko izangaia emaile, hizlari, koordinatzaile, zuzendari edo tutore izandako jarduerak.

II.f.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzak emandako Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagiriko prestakuntza-jarduera bat egiaztatzeak ez du esan nahi zuzenean merezimendutzat hartuko denik deialdi honetarako; izan ere, II. atalean aurreikusitako baldintzen arabera, batzorde barematzaileari dagokio hori zehaztea.

II.g.– Unibertsitateek deitutako ikastaroak unibertsitateek emandako ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira.

Ez dira unibertsitateek deitutako ikastarotzat hartuko Hezkuntzan eskumenik ez duten erakundeek (pribatuak edo publikoak) antolatutako ikastaroak, nahiz eta unibertsitate baten babesu edo laguntza izan.

Udako unibertsitateetako prestakuntza-jarduerak unibertsitate batek antolatutakoak badira bakarrik baloratuko dira.

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK																					
III.– Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3,000 puntu)																							
III.1.– Merezimendu akademikoak (gehienez 1,500 puntu)																							
<p>III.1.1.- Kidegora iristeko alegatu den tituluar dagokion espediente akademikoa, baldin eta alegatutako titulua bat badator, oro har, kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailarekin (Doktoretza, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo dagokion Gradu-titulua, A-1 azpitaldeko irakasle-kidegoetarako).</p> <p>Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da:</p> <table> <tr> <td>Notak 0-10 eskalan</td> <td>Notak 0-4 eskalan</td> <td></td> </tr> <tr> <td>- 5,50 eta 6 artean</td> <td>- 1,25 eta 1,50 artean</td> <td>0,500</td> </tr> <tr> <td>Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>- 6,01 eta 7,50 artean</td> <td>- 1,51 eta 2,25 artean</td> <td>0,600</td> </tr> <tr> <td>Oso ongi</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>- 7,51 eta 10 artean</td> <td>- 2,26 eta 4,00 artean</td> <td>0,700</td> </tr> <tr> <td>Bikain, Ohorezko matrikula</td> <td></td> <td></td> </tr> </table>	Notak 0-10 eskalan	Notak 0-4 eskalan		- 5,50 eta 6 artean	- 1,25 eta 1,50 artean	0,500	Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi			- 6,01 eta 7,50 artean	- 1,51 eta 2,25 artean	0,600	Oso ongi			- 7,51 eta 10 artean	- 2,26 eta 4,00 artean	0,700	Bikain, Ohorezko matrikula				<p>Tituluan lortutako batez besteko nota adierazten duen ziurtagiri akademiko pertsonala (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Batez besteko nota ateratzeko, kontuan hartuko dira alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak diren irakasgai guztien puntuak (egokitutakoak eta baliozkotuak barne) eta ikasturte bakoitzean eskuratutakoak.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko da espediente akademikoaren batez besteko nota (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p>
Notak 0-10 eskalan	Notak 0-4 eskalan																						
- 5,50 eta 6 artean	- 1,25 eta 1,50 artean	0,500																					
Nahiko (5,50 edo gehiago), Ongi																							
- 6,01 eta 7,50 artean	- 1,51 eta 2,25 artean	0,600																					
Oso ongi																							
- 7,51 eta 10 artean	- 2,26 eta 4,00 artean	0,700																					
Bikain, Ohorezko matrikula																							
<p>III.1.2.– Graduondokoak, Doktoretza eta aparteko sariak:</p> <p>III.1.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua), ikerketarako nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri, baldin eta ez badira irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko betekizuna.</p> <p>III.1.2.2.– Doktore-titulua.</p> <p>III.1.2.3.– Doktoretzan aparteko saria.</p>	<p>0,500</p> <p>0,500</p> <p>0,250</p>	<p>Dagokion titularen edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua edo, bestela, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko da Doktore-titulua (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</p> <p>Hori egiaztatzeko ziurtagiria.</p>																					

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3,000 puntu)		
III.1.– Merezimendu akademikoak (gehienez 1,500 puntu)		
<p>III.1.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk (irakaskuntzako funtzio publikora iristeko betekizun gisa alegatu ez badira).</p> <p>III.1.3.1.– Lehenengo zikloko tituluak: Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo legez horien baliokidetzat jotako titulu bakoitza eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza baten lehenengo zikloari dagozkion ikasketak.</p> <p>Izaera horretako tituluak edo ikasketek ez dute, inondik inora, atal honetarako baloraziorik jasoko, izangaiak aurkeztutako lizentzia, ingeniaritza eta arkitekturako lehenengo titulua lortzeko gainditu behar izan diren tituluak edo ikasketak direnean.</p> <p>III.1.3.2.– Bigarren zikloko tituluak: Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo ondorio guztietarako legez horien baliokidetzat jotako bestelako tituluak. Gradu-titulua ere baloratuko da atal honetan. Hargatik, Gradu-titulua ez da aintzat hartuko baldin eta ikasketa berdinei dagokien unibertsitate-titulua (Diplomatura edo Lizentziatura) dutenei zuzendutako egokitze-ikastaro baten bitartez eskuratu bada titulu hori.</p> <p>Ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, izangaiak aurkeztuko duen Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Graduak lehenengo titulua.</p>	<p>0,500</p> <p>0,500</p>	<p>Kidegora iristeko alegatu den tituluaren eta merezimendu moduan aurkeztutakoen fotokopia konpultsatua edo, bestela, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.</p> <p>Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzako lehenengo zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da; bertan, berariaz adieraziko da ziklo horri dagozkion irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko dira Diplomaturak, Ingeniaritza Teknikoak, Arkitektura Teknikoak, Lizentziaturak, Ingeniaritzak, Arkitekturak eta Graduak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3,000 puntu)		
III.1.– Merezimendu akademikoak (gehienez 1,500 puntu)		
<p>III.1.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren tituluak eta atzerriko hizkuntzen jakintza-maila egiaztatzen duten ziurtagiriak: HEOek, Musika Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak (eta atzerriko hizkuntza baten jakintza-maila egiaztatzen duten beste ziurtagiri batzuk), bai eta Berariazko Lanbide Heziketaren ere, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira edo, hala badagokio, alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira:</p> <p>a) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko. 0,250</p> <p>b) HEOko maila aurreratuaren (B2) edo horren baliokidea den ziurtagiri bakoitzeko, edo atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago. 0,250</p> <p>HEOko gaitasun-mailaren (C1) edo horren baliokidea den ziurtagiri bakoitzeko, edo atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago. 0,500</p> <p>HEOko C2 mailaren ziurtagiri bakoitzeko, edo atzerriko hizkuntzaren batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila duela egiaztatzen duen ziurtagiri bakoitzeko, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren (EHAA, 2012/05/29) eranskinean zerrendatuta badago. 0,750</p> <p>c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. 0,100</p> <p>d) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. 0,100</p> <p>e) Kiroletako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. 0,100</p>		<p>Ziurtagiri akademikoaren edo tituluaren/ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.</p> <p>** Ofizioz zenbatetsiko dira ziurtagiriak/tituluak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</p>

MEREZIMENDUAK	PUNTUAK	EGIAZTAGIRIAK
III.– Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3,000 puntu)		
III.2.– Argitalpenak, hezkuntza-proiektuetan parte hartzea eta merezimendu artistikoak (gehienez 1,500 puntu)		
III.2.1.– Argitalpen didaktiko edo zientifikoak, baldin eta eskatutako espezialitatearekin zerikusirik badute: Egilea bada Egilekidea edo egile-talde bateko kidea bada Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abenduarien 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatutakoa) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.	0,250 0,125	Argitalpenen aleak. Euskarri berezietan argitaratutako materialei dagokienez, hala nola, bideoak edo CD-ROMak, argitalpen horiekin batera joan ohi diren dokumentu inprimatuak ere aurkeztu beharko dira (karatulak, helburuak eta edukiak azaltzen dituzten liburuxkak, inprimaketak, etab.). Formatu elektronikoan soilik dauden argitalpenen kasuan, txosten ofizial bat ere aurkeztu beharko da; bertan, erakunde igorleak ziurtatu beharko du argitalpena datu-base bibliografikoan agertzen dela. Dokumentu horretan honako hauek adieraziko dira: datu-basea, argitalpenaren izenburua, egileak, urtea eta URL helbidea. Aipatutako txostena aurkeztu ezin bada, erakunde igorlea desagertu delako edo atzerrian argitaratutako argitalpenak direlako, Zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilita egiaztatuz beharko dira txosten horretan eskatzen diren datuak.
III.2.2.– Nazio zein nazioarteko erakusketa edo lehiaketetan lortutako sari bakoitzeko, baldin eta eskatutako espezialitateari lotuta badago (gehienez 0,250).	0,125	Saria lortu izanaren ziurtagiria.
III.2.3.– Hezkuntza-administrazioek onartutako berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuetan parte hartzea edo horiek koordinatzea, edo Hezkuntzaren Esperimentaziorako eta Berrikuntzarako Zentroetako kide izatea. Urte bakoitzeko.	0,050	Hezkuntza-administrazioeko organo eskudunak emandako ziurtagiria. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza-administrazioek onartutako berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude). Eima eta Nolegaren jarduerak ez dira ofizioz zenbatetsiko; interesdunak alegatu edo ziurtatu behar du jarduera horiek egin dituela.
III.2.4.– Gorputz Hezkuntzako espezialitaterako soilik. «Goi mailako kirolari» kalifikazioa izatea, uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera.	0,4000	Eskumena duen erakundearen ziurtagiria, berriaz jasotzen duena «Goi mailako kirolari» kalifikazioa.

Oharrak:

III.a.– Kidegora iristeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa.

III.a.1.– Ez da baloratuko izangaiak lortutako batez besteko nota berariaz adierazten ez duen espedienterik.

III.a.2.– Ziurtagirietan nahitaez agertu beharko da batez besteko nota. Batez besteko nota ateratzeko, kontuan hartuko dira alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak diren irakasgai guztien puntuak (egokitutakoak eta baliozkotuak barne) eta ikasturte bakoitzean eskuratutakoak. Baldintza hori bete ezean, ez da punturik lortuko atal honetan.

Ziurtagirian agertzen den batez besteko nota «Nahiko» bada, kontuan hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da nota hori zenbakitara bihurtzean 5,50 edo altuagoa izatea, izangaiak aurkeztutako egiaztagirietan azaldutakoaren arabera.

III.a.3.– Bigarren zikloko tituluei dagokien espediente akademikoa baloratzeko, kontuan hartuko da, era berean, bigarren ziklorako titulu horretarako sarbidea eman zion lehenengo zikloko tituluari dagokion espediente akademikoa.

III.a.4.– Tituluak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa izan beharko dute, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan ezarritakoari eutsiz, edo, bestela, lanbide-kualifikazioaren aitortpena izan beharko dute azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuak xedatutakoaren babesean. Kasu horretan, baliokidetasuna zehazteko, titulua eman zuen herrialdeko hezkuntza-administrazioak igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko da; bertan, batez besteko nota eta atzerriko sistema akademiko horretan lor daitezkeen kalifikazio altuena eta baxuena zein diren adierazi beharko da.

III.b.– Graduondokoak, Doktoretzak eta aparteko sariak.

III.1.2.1 azpiatalean inola ere ez da baloratuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Ikasketetan irakasle lanbidean aritzeko gaitzen duen Master Titulu Ofiziala, ezinbesteko betekizuna baita irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko.

III.c.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk.

III.c.1.– Bigarren zikloko titulu bat aurkezten bada eta iristeko betekizun gisa alegatutako tituluaren berbera ez bada, bigarren zikloko titulu horri dagokion puntuazioa soilik onartuko da III.1.3.2 atalean. Ikasketa horren lehenengo zikloari dagokion ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, ikasketa-planeko irakasgai guztiak gainditu direla adierazten duena, III.1.3.1 atalean dagokion puntuazioa baloratuko da (aipatutako ataletan adierazi diren salbuespenen kalterik gabe).

III.c.2.– Tituluak atzerrian lortu badira, III.a.4 oharrean adierazitakoa aurkeztu beharko da.

III.d.– HEOek emandako Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak eta atzerriko hizkuntzen jakintza-maila egiaztatzen duten beste ziurtagiri batzuk.

III.d.1.– III.1.4.b) azpiatalaren arabera Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako hizkuntzen egiaztagiriak baloratzeko orduan, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak (BOE, 2007ko urtarrilaren 4koa) III. eranskinean aurreikusitako baliokidetasunak hartuko dira kontuan, baita otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak xedatzen duena ere (dekretu horren bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailtako -oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila- curriculumak ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira; EHAA, 2009ko martxoaren 12koa).

III.d.2.– Izangaiak erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza eta maila berbererako, III.1.4.b) azpiatalean aurreikusitako egoeren artean, behin bakarrik jasoko du puntuazioa hizkuntza horren ezagutza egiaztatzeak.

III.d.3.– Izangaiak erakunde bakarrak edo erakunde desberdinek emandako titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten duenean hizkuntza beraren maila desberdinetarako, III.1.4.b) azpiatalean aurreikusitako egoeren artean, behin bakarrik jasoko du puntuazioa hizkuntza horren ezagutza egiaztatzeak, egiaztatutako mailarik altuenean.

III. ERANSKINA

IRAKASKUNTZAREN ONDORIOETARAKO BALIOKIDEAK DIREN TITULUAK: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Espezialitatea	Tituluak
Teknologia	<ul style="list-style-type: none"> – Ingeniari teknikoa – Arkitekto teknikoa – Itsasontzi Makineriako diplomaduna – Itsas Nabigazioko diplomaduna – Itsasontziko Irrati Elektronikako diplomaduna
Informatika	<ul style="list-style-type: none"> – Estatistikan diplomaduna – Gestio-informatikako ingeniari teknikoa – Sistemen informatikako ingeniari teknikoa – Telekomunikazioetako ingeniari teknikoa, Telematika espezialitatean
Enpresen Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientzietan diplomaduna – Kudeaketa eta Administrazio Publikoetan diplomaduna
Analisi eta kimika industrialia	<ul style="list-style-type: none"> – Industria-ingeniari teknikoa, Industria-kimikako espezialitatean – Baso-ingeniari teknikoa, baso-industrietako espezialitatea
Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea	<ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientzietan diplomaduna – Lan Harremanetan diplomaduna – Gizarte Lanean diplomaduna – Gizarte Hezkuntzan diplomaduna – Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna
Esku-hartze soziokomunitarioa	<ul style="list-style-type: none"> – Maisu-maistra, espezialitate guztietan – Gizarte Hezkuntzan diplomaduna – Gizarte Lanean diplomatura
Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientzietan diplomaduna
Fabrikazio Mekanikoko antolakuntza eta proiektuak	<ul style="list-style-type: none"> – Industriako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Meatzeen Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa – Aeronautikako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate hauetan: <ul style="list-style-type: none"> -Aireontziak -Ekipo eta Material Aeroespazialak – Itsasontzi Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate hauetan: <ul style="list-style-type: none"> -Nekazaritza eta Abelazkuntzako ustiapenak -Nekazaritza eta Elikagaien Industriak -Mekanizazioa eta Landa Eraikuntzak – Herrilanteko Ingeniaritza Teknikoa, espezialitatea Eraikuntza Zibiletan – Itsasontzi Makinetan diplomatura

2018ko otsailaren 27a, asteartea

Especialitatea	Tituluak
Energia Sistemen Antolakuntza eta Proiektuak	<ul style="list-style-type: none"> – Industriako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Aeronautikako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Herrilantetako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Itsasontzi Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Meatzeen Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak – Itsasontzi Makinetan diplomatura
Prozesu sanitarioak	<ul style="list-style-type: none"> – Erizaintzan diplomatura
Sistema Elektronikoak	<ul style="list-style-type: none"> – Itsas Irrati-elektronikan diplomatura – Aeronautikako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitatea Aeronabegazioan – Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa – Industriako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate hauetan: <ul style="list-style-type: none"> -Elektrizitatea -Industri Elektronikoa – Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak	<ul style="list-style-type: none"> – Itsas Irrati-elektronikan diplomatura – Aeronautikako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitatea Aeronabegazioan – Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa – Industriako Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate hauetan: <ul style="list-style-type: none"> -Elektrizitatea -Industri Elektronikoa – Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa, espezialitate guztiak

IV. ERANSKINA

IRAKASKUNTZAREN ONDORIOETARAKO BALIOKIDEAK DIREN TITULUAK: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA

Especialitatea	Tituluak
Ibilgailuen Mantentze Lanak	<ul style="list-style-type: none"> – Automozioko Goi-mailako Teknikaria – Ibilgailuen Mekanika eta Elektrizitateko Teknikari Espezialista – Automozioko Teknikari Espezialista – Makinen eta Eraikuntzako eta Obretako tresneriaren mantentze Tekniko Espezialista
Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> – Fabrikazio mekanikoko produkzioa programatzeko goi teknikaria – Mekanizazio bidezko Produkzioko goi teknikaria – Makinagintza eta Muntaketako teknikari espezialista – Makina-Erreminten Mikromekanikoko teknikari espezialista. – Tresnen Mikromekanikoko teknikari espezialista – Neurpide Instrumentistako teknikari espezialista. – Erremintak eta Muntaketa Mekanikoko teknikari espezialista. – Arma Mekanikaria den teknikari espezialista – Fabrikazio Mekanikoko teknikari espezialista – Makina-Erreminten teknikari espezialista – Matrizegintzako eta Moldegintzako teknikari espezialista – Kalitate Kontroleko teknikari espezialista – Mikromekanika eta Erlojugintzako teknikari espezialista

V. ERANSKINA

GAI-ZERRENDAK

– BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA.

ESPEZIALITATEAK:

FILOSOFIA, LATINA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, GEOGRAFIA ETA HISTORIA, MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA, BIOLOGIA ETA GEOLOGIA, MARRAZKETA, FRANTSESA, INGELESA, MUSIKA, GORPUTZ HEZKUNTZA, TEKNOLOGIA

1993ko irailaren 9ko Agindua, Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetan zenbait espezialitaterako sarrera, espezialitate berrien eskuratze eta mugikortasun-prozeduretan agindu behar dituzten irakasgai-zerrendak onartzen dituen, ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak arautuak. (1993ko irailaren 21eko BOE).

Aipatu Aginduaren A zatiazi dagokionez (zati teorikoa), gai-zerrenda aplikagarriak 1993ko irailaren 9ko Aginduan argitaratutakoak dira; aipatu aginduak B zatiaz (zati praktikoa) xedatutakoa indargabetuta geratuko da hautaketa-prozedura honetan, eta beraz, ez da aplikagarri izango.

ESPEZIALITATEA:

EUSKARA ETA LITERATURA

2010eko abenduaren 17ko Aginduaren IV. eranskinean zehaztuta dago. Agindu horren bidez, Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura gauzatzeko dei giten da. (2011ko urtarrilaren 10eko EHAA, 5. zk.).

ESPEZIALITATEAK:

EKONOMIA, INFORMATIKA, ENPRESEN ADMINISTRAZIOA, ANALISIAK ETA INDUSTRIA KIMIKA, IRUDI PERTSONALERAKO AHOLKULARITZA ETA PROZESUAK, LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA, GIZARTE ESKU-HARTZEA, MERKATARITZA-ANTOLAKETA ETA –KUDEAKETA, FABRIKAZIO MEKANIKOKO ANTOLAKUNTZA ETA PROIEKTUAK, ENERGIA SISTEMEN ANTOLAKUNTZA ETA PROIEKTUAK, OSASUN PROZESUAK, SISTEMA ELEKTRONIKOAK, SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIKOAK

1996ko otsailaren 1eko Agindua, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan zenbait espezialitaterako sarrera, espezialitate berrien eskuratze eta mugikortasun-prozeduretan agindu behar dituzten irakasgai-zerrendak onartzen dituen. (1996ko otsailaren 13ko BOE).

– LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOA.

ESPEZIALITATEAK:

INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK, IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK, MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZEA, OSASUN ETA LAGUNTZA PROZEDURAK, MERKATARITZA-PROZESUAK, ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO PROZESUAK, INFORMATIKA SISTEMAK ETA APLIKAZIOAK

1996ko otsailaren 1eko Agindua, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan zenbait espezialitaterako sarrera, espezialitate berrien eskuratze eta mugikortasun-prozeduretan agindu behar dituzten irakasgai-zerrendak onartzen dituena. (1996ko otsailaren 13ko BOE).

VI. ERANSKINA

CURRICULUMAK

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

– 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016ko urtarrilaren 15ekoa).

Hezkuntza Sailaren web-orriko esteka honetan dagoen curriculum orientatzailea erabili ahal izango da:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> → Heziberri 2020 Plana → Heziberri 2020 Planaren egitasmoak → Bigarren egitasmoa: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak (Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa) → Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretua → 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea

BATXILERGOA

– 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2016ko irailaren 23koa).

Hezkuntza Sailaren web-orriko esteka honetan dagoen curriculum orientatzailea erabili ahal izango da:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> → Heziberri 2020 Plana → Heziberri 2020 Planaren egitasmoak → Bigarren egitasmoa: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak (Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa) → Batxilergoko curriculum Dekretua → 127/2016ko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea

LANBIDE-HEZIKETA

– 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (BOE, 2011ko uztailaren 30ekoa).

– 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (EHAA, 2008ko martxoaren 5ekoa), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua (EHAA, 2016ko otsailaren 10ekoa).

Hezkuntza Sailaren web-orrian ikusi ahal izango dira lanbide-heziketako titulu bakoitzean indarrean diren curriculumak, lanbide-arlo bakoitzerako: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> → Lanbide Heziketa → 2018ko EPEa. Curriculumen kontsulta → aukeratu Lanbide-arloa → Heziketa-zikloak.

Laneko prestakuntza eta orientabidea espezialitatean, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako lanbide-modulu hauen arteko modulu bat oinarri hartuta egin beharko da programazio didaktikoa: «Laneko prestakuntza eta orientabidea» edo «Enpresa eta ekimen sortzailea».

LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOIA

– 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (BOE, 2011ko uztailaren 30ekoa).

– 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (EHAA, 2008ko martxoaren 5ekoa), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua (EHAA, 2016ko otsailaren 10ekoa).

– 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifikoko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena.

– 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

Hezkuntza Sailaren web-orrian ikusi ahal izango dira lanbide-heziketako titulu bakoitzean indarrean diren curriculumak, lanbide-arlo bakoitzerako: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> -> Lanbide Heziketa -> 2018ko EPEa. Curriculumen kontsulta -> aukeratu Lanbide-arloa -> Heziketa-zikloak.

VII. ERANSKINA

PROBA PRAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

Proba honen bitartez egiaztatu nahi da izangaiek badutela prestakuntza zientifiko nahikoa eskatu duten espezialitaterako, adituak direla trebetasun teknikoetan, eta behar besteko irakaskuntza-konpetentzia dutela Bigarren Hezkuntzako irakasleen edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoei, dagokionaren arabera, legez eskatzen zaizkien etapa, maila eta espezialitateetako talde eta ikasgeletan irakasteko.

Espezialitateko gai-zerrendarekin eta/edo indarrean diren curriculumekin zerikusia duen kasu praktiko bat aurkeztuko zaie izangaiei. Atal hauek izan litzake probak: analisirako ariketak eta testu-iruzkinak; dokumentu edo emanaldi artistikoak; itzulpen-ariketak; auzi, arazo eta kasuen ebazpenak; simulazioak; trebetasun tekniko edo instrumentalen erakustaldia, edo benetako egoerekin lotuta dagoen proiektu didaktiko zehatz bat formulatu eta garatzea, ikasgela edo ikastetxeko benetako egoera batean erabili ahal izateko.

Atzerriko hizkuntza batean (ingelese edo frantsesez) dagoen **testu bat itzultzeko** eskatzen duten ariketetan, hizkuntza ofizial bietako edozeinetara (gaztelaniara edo euskarara) egin ahal izango da itzulpena. Izangaiek aukeratuko du.

Epaimahaiak erabakiko du hiztegiak erabili ahal izango diren ala ez itzulpenak egiteko, bereziki hizkuntza klasikoetan (latinez) idatzitako testuak itzultzeko.

Testu-iruzkinak egin behar direnean, linguistikoak, morfosintaktikoak, estilistikoak eta/edo historiko eta/edo literarioak izan ahal izango dira.

Testu-iruzkin literarioen kasuan (testu humanistiko bat, saiakera bat edo kazetaritza-testu bat izango da), testuaren ezaugarri kontzeptual eta estilistikoak aztertu beharko dira, bere testuinguruan kokatuta, dagokion generoaren arabera. Testu-iruzkin linguistikoetan testuaren ezaugarri linguistiko esanguratsuenak aipatu beharko dira.

Hauek eskatu ahal izango dira: dokumentu historikoen analisia eta iruzkina (testua, mapa, irudi grafikoa, estatistika, etab.), Artearen Historiarekin erlacionatutako dokumentuen analisia eta iruzkina (testua, planoak, dokumentu ikonografikoak, esparru artistikoetako bateko irudia edo diapositiba, etab.) eta dokumentu eta problema geografikoen interpretazioa edo ebazpena (testua, irudia, planoak, diagrama, estatistika, irudi kartografikoa, etab.).

Zientzia- eta matematika-arloko espezialitateetan, espezialitateko gai-zerrendarekin eta/edo espezialitate honetako irakasleek esleituta dituzten etapa eta mailetako curriculumekin lotutako gai eta/edo problema eta/edo ariketa eta/edo kasu praktikoak ebaztea planteatu ahal izango da. Era berean, beste hauek ere eskatu ahal izango dira: prozesu eta egituren identifikazio, analisi eta interpretazioa (adib.: mapak, argazkiak, ebakidura geologikoak, egiturak, prozesu biologikoen irudiak eta eskemak...), eskemak eta irudiak egitea, gaurkotasun-gaien inguruko iruzkin teknikoak egitea, eta laborategiko, tailerreko, simulazioko edo antzeko praktika bat egiteko behar diren elementu eta prozeduren azalpenak (helburuak, materialak, tresnak, lanabesak, garapena, ondorioak, segurtasuna...).

Lanbide-heziketako espezialitateetako ariketan, eska liteke curriculum horretan bildutako eremuekin zerikusia duten proba praktikoak, simulazioak, ariketen ebazpenak, planteamendu didaktikoak (erronkak, proiektuak...) edo kasuak garatzea.

Musikaren espezialitatean, konposizio edo/eta interpretazio ariketa bat egitea proposatu ahal izango da.

Hezkuntza-arloko esku-hartzearekin lotutako gaia planteatu daiteke, eta kasuaren arabera, hauek jaso beharko dira: egoeraren diagnostia, eduki praktikoa curriculumean kokatzeko modu egokia, aurretiaz izan behar diren jakintza edo gaitasunak, gai/modulu bereko edo beste gai/modulu batzuetako edukien arteko harremana, ikaskuntza-testuinguru zehatz batean jarduteko proposamen bat planifikatu eta diseinatzea, inklusibotasunaren printzipioa eta ikasleen aniztasunari erantzuteko printzipioa aplikatzea, estrategiak eta baliabide didaktikoak hautatzea, teknologia berriak integratzea, kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien kompetentzia-atalekin lotutako zeharkako nahiz diziplinazko kompetentziak edo amaierako gaitasunak garatzea, curriculumeko dekretuetan bildu ziren eredu pedagogikoa eta printzipio metodologikoak aplikatzea, indarrean diren jarduteko protokoloak erabiltzea, diziplinen arteko lotura, koordinazio didaktikoa, tutoretza egitea ikasleekin eta familiarekin, lankidetzan aritzea hezkuntzako eta gizarte-alorreko agenteekin, bizikidetzeta eta eskola-giroa, ikasleen eskubide eta betebeharrak, hizkuntzen trataera integratua, berariazko hezkuntza-beharrizanei heltzea, segimendua eta ebaluazioa.

Probak aipatutako alderdi edo ariketa bat baino gehiago izango ditu.

Edonola ere, espezialitateko gai-zerrendarekin edota indarrean dauden curriculumekin lotuta dauden kontzeptuak jarri beharko dira praktikan ariketa honetan. Ebazpenean, kontuan hartu beharko da zein diren kasu horretarako egokien diren irakaskuntza-teknikak eta hezkuntzako printzipioak, eta zorrotz bete beharko dira indarrean dauden araudi eta curriculumak, baita irakaskuntzako funtzio publikoaren garapenari legez esleitutako funtzioak ere.

Epaimahai bakoitzak, beharrezkoa izango balitz, bitarteko teknikoei, dokumentazioari, erabili beharreko materialari eta ariketa praktikokoak egiteko alderdi zehatzei buruzko informazioa eman ahal izango die izangaiei.

VIII. ERANSKINA

GORAGOKO TALDE BATEKO IRAKASLEEN KIDEGORA IRISTEA

ABIAPUNTU DUEN TITULU AKADEMIKOAREN ETA JOMUGA DUEN ESPEZIALITATEAREN BAT-
ETORTZEAK

Espezialitatea	Tituluak
Filosofia	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filosofia - Filosofia eta Letrak, Filosofia atala - Filosofia eta Hezkuntza Zientziak, Filosofia atala eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filosofia - Giza Zientziak (Filosofia aipamena)
Latina	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filologia klasikoa eta horren baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filologia Klasikoa - Ikasketa Klasikoak
Gaztelania eta Literatura	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filologia Erromanikoa - Hispaniar Filologia - Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filologia Hispanikoa - Filologia Erromanikoa - Hizkuntza Modernoak (Hispanikoak, Erromanikoak, Ikasketa Linguistikoak eta Literatur Ikasketak) - Ikasketa Hispanikoak - Frantseseko eta Gaztelaniako Ikasketak
Geografia eta Historia	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Geografia - Historia - Artearen Historia - Humanitateak eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Geografia - Geografia eta Lurralde Antolakuntza - Historia - Artearen Historia - Humanitateak

Especialitatea	Tituluak
Matematika	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Matematika – Fisika – Informatika – Aktuario eta Finantza Zientziak eta horien baliokideak <p>Goi Mailako Ingeniaritza:</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Matematika – Fisika – Ingeniaritza
Fisika eta Kimika	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Kimika – Biokimika – Elikagaien Zientzia eta Teknologia – Farmazia – Itsas Zientziak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaria:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kimika <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Kimika – Biokimika eta Biologia Molekularra – Elikagaien Zientzia eta Teknologia – Ingeniaritza kimikoa – Prozesu eta Produktuen Berrikuntza Ingeniaritza – Energia Berriztagarrien Ingeniaritza – Farmazia – Itsas Zientziak
Biologia eta Geologia	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Biologia – Geologia – Ingurumen Zientziak – Biokimika – Bioteknologia – Farmazia eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Biologia – Geologia – Ingurumen Zientziak – Biokimika eta Biologia Molekularra – Bioteknologia – Biomedikuntza Zientziak – Farmazia

Especialitatea	Tituluak
Euskara eta Euskal Literatura	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Filologia eta horren baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Filologia – Euskal Ikasketak
Marrazketa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Arte Ederrak – Informatika eta horien baliokideak <p>Arkitektura</p> <p>Goi-mailako Ingeniaritza</p> <p>Arkitektura Teknikoa</p> <p>Ingeniaritza Teknikoa</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Artea – Ingeniaritza – Eraikuntzako Ingeniaritza – Arkitektura – Arkitektura Teknikoa – Arkitekturaren Oinarriak
Frantsesa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Frantses Filologia – Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa) eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Filologia (frantsesa) – Hizkuntza Modernoak (frantsesa) – Frantses Ikasketak – Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa) – Frantseseko eta Gaztelaniako Ikasketak
Ingelesa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ingeles Filologia – Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa) eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ingeles Ikasketak – Hizkuntza Modernoak (ingelese) – Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa)

Especialitatea	Tituluak
Musika	<ul style="list-style-type: none"> – Musikako goi-mailako ikasketak, 617/1995 Errege Dekretuan aurreikusitako edozein espezialitatetan – Uztailaren 8ko 1542/1994 Errege Dekretuaren arabera Musikako goi-mailako titularen baliokidetzat jotako titulazio guztiak <p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Musikaren Historia eta Zientziak eta horren baliokideak <p>– Musikako goi-mailako ikasketak (631/2010 Errege Dekretua)</p>
Gorputz Hezkuntza	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gorputz Hezkuntza eta horren baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak
Teknologia	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Itsasontzi Makinak – Nautika eta Itsas Garraioa – Itsasontziko Irrati Elektronika – Informatika eta horien baliokideak <p>Goi Mailako Ingeniaritza</p> <p>Ingeniaritza Teknikoa</p> <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Itsasontzi Makinak – Itsas Nabigazioa – Itsasontziko Irrati Elektronika eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ingeniaritza
Ekonomia	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Ekonomia – Aktuario eta Finantza Zientziak – Politika eta Administrazio Zientziak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientziak eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Ekonomia – Finantzak eta Aseguruak – Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa – Negozioen Kudeaketa – Turismo

Especialitatea	Tituluak
Informatika	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Informatika <p>eta horren baliokideak</p> <p>Honako hauetan Ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Informatika <p>eta horren baliokideak</p> <p>Honako hauetan Ingeniaritza Teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kudeaketa Informatikoa – Sistemen Informatika <p>eta horien baliokideak</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Informatikako Ingeniaritza – Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza eta Informazio Sistemetan
Enpresen administrazioa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Aktuario eta Finantza Zientziak – Politika eta Administrazio Zientziak – Ekonomia – Zuzenbidea – Lanaren Zientziak – Informatika <p>eta horien baliokideak</p> <p>Informatika Ingeniaritza</p> <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientziak – Kudeaketa eta Administrazio Publikoa <p>eta horien baliokideak</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Negozioen Kudeaketa – Ekonomia – Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa – Zuzenbidea – Finantza eta Aseguruak – Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa – Informatika Ingeniaritza

Especialitatea	Tituluak
Analisiak eta industria kimika	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Farmazia – Kimika – Biokimika – Ingurumen Zientziak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kimika – Industria, Papergintzako espezialitatea eta horien baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaritza teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Industria, Kimika Industrialeko espezialitatea – Industria, Basogintzako Industrietako espezialitatea eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Farmazia – Kimika – Biokimika eta Biologia Molekularra – Ingurumen Zientziak – Ingeniaritza Kimikoa – Ingeniaritza Kimiko Industriala – Industria Teknologiko Ingeniaritza – Basogintzako eta Natura Ingurune Ingeniaritza
Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Farmazia – Kimika – Biokimika – Medikuntza – Arte Ederrak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisioterapia <p>Ingeniaritza Kimikoa eta horren baliokideak</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Farmazia – Kimika – Biokimika eta Biologia Molekularra – Medikuntza – Arteak – Fisioterapia – Ingeniaritza Kimikoa – Ingeniaritza Kimiko Industriala

Especialitatea	Tituluak
Lanerako prestakuntza eta orientabidea	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza - Aktuario eta Finantza Zientziak - Politika eta Administrazio Zientziak - Ekonomia - Zuzenbidea - Psikologia - Soziologia - Lanaren Zientziak <p>eta horien baliokideak</p> <p>Antolamendu Industrialeko Ingeniaritza</p> <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresa Zientziak - Gizarte Hezkuntza - Lan Harremanak - Gizarte Lana <p>eta horien baliokideak</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza - Ekonomia - Finantza eta Asegurueak - Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa - Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa - Zuzenbidea - Psikologia - Soziologia - Gizarte Hezkuntza - Lan Harremanak eta Giza Baliabideak -Gizarte Lana
Esku-hartze soziokomunitarioa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pedagogia - Psikologia - Psikopedagogia - Soziologia <p>eta horien baliokideak</p> <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Hezkuntza - Gizarte Lana <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pedagogia - Psikologia - Soziologia - Gizarte Hezkuntza - Gizarte Lana

Especialitatea	Tituluak
Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Aktuario eta Finantza Zientziak – Ekonomia – Zuzenbidea – Publizitatea eta Harreman Publikoak – Merkatu Ikerketa eta Teknikak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresa Zientziak eta horren baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza – Negozioen Kudeaketa – Ekonomia – Zuzenbidea – Publizitatea eta Harreman Publikoak – Marketin
Fabrikazio mekanikoko antolakuntza eta proiektuak	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Itsasontzi Makinak eta horren baliokideak <p>Honako hauetan Ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika – Industria – Meatzeak – Ontzigtza eta Ozeanoa – Materialak – Polimeroak eta horien baliokideak <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Itsasontzi Makinak eta horren baliokideak <p>Honako hauetan ingeniari teknikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika –Nekazaritza – Industria – Industria Diseinua – Herri Lanak – Meatzeak – Ontzigtza eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ingeniaritza Aeroespaziala – Industria Teknologiko Ingeniaritza – Meatzeen eta Energiaren Teknologiko Ingeniaritza – Itsas Ingeniaritza – Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritza – Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza – Ingeniaritza Zibila – Meatzeen eta Energiaren Teknologiko Ingeniaritza

Especialitatea	Tituluak
Energia Sistemen antolakuntza eta proiektuak	<p>Arkitektura</p> <p>Honako hauetan ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aeronautika -Agronomia -Industria - Meatzeak - Ontzigitza eta Ozeanoa -Telekomunikazioa eta horien baliokideak <p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itsasontzi Makinak eta horren baliokideak <p>Honako hauetan diplomaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itsasontzi Makinak eta horren baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaritza Teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aeronautika - Nekazaritza - Industria - Herri Lanak - Meatzeak - Ontzigitza - Telekomunikazioa eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arkitektura - Ingeniaritza Aeroespaziala - Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritza - Industria Teknologiko Ingeniaritza - Meatzeen eta Energiaren Teknologiko Ingeniaritza - Itsas Ingeniaritza - Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa - Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza - Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritza - Ingeniaritza Zibila - Energia Berriztagarrien Ingeniaritza - Energia Baliabideen Ingeniaritza
Prozesu sanitarioak	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Farmazia - Biokimika - Medikuntza - Odontologia - Albaitaritza eta horien baliokideak <p>Erizaintzako Diplomaduna</p> <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Farmazia - Biokimika eta Biologia Molekularra - Medikuntza - Odontologia - Erizaintza - Biomedikuntza Zientziak

Especialitatea	Tituluak
Sistema elektronikoak	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Itsasontziko Irrati Elektronika eta horien baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika – Elektronika – Industria – Automatika eta Industria Elektronika – Meatzeak – Ontzigitza eta Ozeanoa – Telekomunikazioa eta horien baliokideak <p>Itsasontziko Irrati Elektronikako diplomaduna eta horren baliokideak</p> <p>Honako hauetan ingeniaritza teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika, Aire-nabigazioko espezialitatea – Industria, Elektrizitateko espezialitatea, Industria Elektronikako espezialitatea – Telekomunikazioak eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Itsas Ingeniaritza – Ingeniaritza Aeroespaziala – Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatika, – Ingeniaritza Elektrikoa – Industria Teknologiako Ingeniaritza – Meatzeen eta Energiaren Teknologiako Ingeniaritza – Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa – Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza – Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritza – Industria Elektronikako Ingeniaritza – Prozesu eta Produktuen Berrikuntza Ingeniaritza – Energia Berriztagarrien Ingeniaritza – Energia Baliabideen Ingeniaritza

Especialitatea	Tituluak
Sistema elektroteknikoak eta automatikoak	<p>Honako hauetan lizentziaduna:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Itsasontziko Irrati Elektronika eta horien baliokideak <p>Honako hauetan ingeniaritza:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika – Elektronika – Industria – Industria, Industria Elektronikako espezialitatea – Automatika eta Industria Elektronika – Meatzeak – Telekomunikazioa eta horien baliokideak <p>Itsasontziko Irrati Elektronikako diplomaduna eta horren baliokideak</p> <p>Honako hauetan ingeniaritza teknikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aeronautika – Industria, Elektrizitateko espezialitatea, Industria Elektronikako espezialitatea – Telekomunikazioak eta horien baliokideak <p>Ondorengo hauetako gradua:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fisika – Ingeniaritza Aeroespaziala – Ingeniaritza Elektronikoa – Industria Ingeniaritza Elektronikoa eta Automatika – Industria Teknologiako Ingeniaritza – Meatzeen eta Energiaren Teknologiako Ingeniaritza – Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa – Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza – Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritza – Industria Elektronikako Ingeniaritza – Energia Berriztagarrien Ingeniaritza – Energia Baliabideen Ingeniaritza

IX. ERANSKINA

OPOSIZIO-FASEKO PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Proba guztietarako arau orokorrak:

- Idatzizko ariketetan, ezinbestekoa izango da arau ortografikoak betetzea, letra argi eta ulergarri idaztea eta testua behar bezala egituratzea.
- Boligrafo urdina edo beltza erabiliko da. Ezin izango da erabili zuzentzeko likido edo zintarik. Irakurri behar ez dena, parentesi artean sartuko da, eta lerro bakar batez marratu.
- Proba guztietan baloratuko da hizkuntza-konpetentzia, funtsezko konpetentzia baita irakaskuntza-lanetan aritzeko. Argi eta modu logikoan adierazi beharko dira ideiak, eta zehatz erabili espezialitatearen edo lanbide-eremuaren berezko terminologia.

TXANDA IREKIA ETA DESGAITASUNA DUTENENTZAT GORDETAKO TXANDA

1.– LEHENENGO PROBA:A ZATIA: proba praktikoa.

Hauek baloratuko dira: probaren emaitza, jarraitu den prozedura, adierazitako gaitasun instrumental eta teknikoak, azalpena argia izatea, lanaren antolamendua, denboraren kudeaketa, ikasleen ezaugarriei egokitzea, Sailak sustatutako metodologia-ildoei moldatzea, ekimena eta berrikuntzarako prestasuna.

Hauek hartuko dira kontuan, kasuaren arabera:

- Espezialitatearen ezagutza zientifikoa eta zehaztasun teknikoa.
Proba egitean, espezialitatearen inguruko ezagutza zientifiko eguneratu eta zorrotza aplikatzea.
- Indarrean dagoen hezkuntzari buruzko araudia ezagutzea eta proposatutako kasuen garapenean aplikatzea.

Kasuaren arabera, hauen ezagutza eta aplikazio praktikoa: indarrean dauden curriculumak, EAeko hezkuntza-sistemaren helburuak, adingabeei eta ikastetxeei aplikatu beharreko hezkuntza-araudia, irakasleei legez esleitutako funtzioak, ikasleen eta haien familien eskubideak, Hezkuntza Sailaren lehentasunezko hezkuntza-ildoak, inklusibotasunari ekitea eta aniztasunari erantzutea, eleaniztasuna, hizkuntzen trataera integratua, hezkuntza-arloko esku-hartzearen plangintza eta irakaskuntza-koordinazioa, tutoretza egitea ikasleekin eta familiekin, bizikidetzeta eta eskola-giroa, lankidetzan aritzea hezkuntzako eta gizarte-alorreko agenteekin, diziplinen arteko lotura, metodologia aktiboak, proiektukako lana, egoera-arazoak, lankidetzeta, konpetentziak garatzea helburu duten ikaskuntza-proposamenak, ebaluazio jarraitua eta prestakuntzako ebaluazioa, Europako programa eta helburuak, berriarazo jarduteko protokoloak, sareko lana, IKTak integratzea, hezkuntza berriztatzeke proiektuak...

- Aditua izatea espezialitateko trebetasun teknikoetan eta ikasgelako benetako testuinguruari egokitutako estrategia eta teknika didaktiko-pedagogikoetan.

Trebetasun teknikoa espezialitatearen berezko tresna, lanabes, protokolo eta prozeduretan.

Proposatutako egoeretarako egokiak diren estrategia tekniko eta/edo metodologikoak mobilizatzea: diagnosis egin, informazioa bildu, interpretatu, plangintza egin, antolatu, garatu, ebaluatu, ondorioak lortu eta horietatik eratorritako jarduerak proposatu.

Gaitasun kritikoa eta analisirako gaitasuna, eta ekimena erabakiak hartzeko orduan. Irakasle-konpetentzia profesionala zailtasunak ebazteko ikasgelaren kudeaketan eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua garatzeko. Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna. Ikasleei ikaskuntzan eta prestakuntza-garapen orokorrean autonomia errazteko irakasle-rola.

- Planteatutako ariketen behar bezalako ebazpena, emaitzak eta ariketako erantzunen zehaztasuna.

Kasuaren arabera, ariketa ebazteko aplikatu den marko teorikoa justifikatzea, datuak eta ezezagunak (eta datu implizituak) identifikatzea, ebazpen-estrategia arrazoituak egitea, irudiak eta eskemak erabiltzea, erreferentzia-sistemak, emaitzak unitate egokiekin adieraztea, lortutako emaitzen azterketa kritikoa egitea, ikuspegi teorikotik oinarrituta eta arrazoituta dauden erantzunak ematea. Arrazonamenduak, kalkuluak, grafikoak, irudiak eta bestelako azalpen-elementuak positiboki hartuko dira kontuan ariketak baloratzean.

- Gaiak eta/edo arazoak eta/edo ariketak eta/edo kasu praktikoak ebaztean, emaitza zuzenaz gain, honako alderdi hauek ere baloratu eta ebaluatuko dira: gaia ebazteko estrategia, prozesuaren arrazoiketa eta erantzunen interpretazioa.
- Testuen itzulpenetan, itzulpenaren zuzentasuna eta duen komunikazio-zentzuari egokitzen den baloratuko da.
- Testu-iruzkinetan, kontuan hartuko dira testu-iruzkinaren teknikan aditua izatea, egitura identifikatzea, elementuen koherentzia eta kohesioa, egokia izatea eta gramatikalki zuzena izatea. Iruzkinetan, testua aztertu beharko da, ez horren parafrasia egin, ezta horri buruzko iritzi subjektiboak eman ere. Bibliografia edo webgrafia aipatu ahal izango da azalpena arrazoitzeko.
- Hezkuntza-arloko esku-hartzearekin zerikusia duten proposamenetan.

Zientzia-, curriculum- eta pedagogia-ezagutzetan oinarritutako didaktika- eta antolaketa-planteamenduak, koherenteak curriculum-dekretuetan biltzen diren eredu pedagogikoarekin eta printzipio metodologikoekin.

Hezkuntza-arloko esku-hartzearen plangintza egokia. Testuinguruan jartzea. Diagnosis. Ariketa praktikoaren edukia behar bezala kokatzea curriculumean. Ikaskuntza berriei ekin ahal izateko behar diren aurretiko ezagutza edo gaitasunak identifikatzea. Ikaskuntza-helburuen definizioa, eta zein ekarpen egiten dion kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien konpetentzia-atalekin lotutako curriculum-konpetentzia ezberdinak (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak) edo amaierako gaitasunak garatzeari. Ebaluazio-irizpideak behar bezala definitzea, baita lorpenen edo ikaskuntza-emaitzen adierazleak ere, edukiak egoki sekuentziatzea, gai/modulu bereko edo beste gai/modulu batzuetako edukien arteko harremana, garatu behar diren helburu, eduki eta konpetentziekin koherente izango diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak proposatzea, metodologia aktiboak eta konpetentzien garapenera bideratutakoak (lankidetzak, egoera-arazoak, proiektuak, erronkak...), ikaskuntzen zeharkakotasuna, estrategia eta baliabide didaktikoen hautaketa egokia, teknologia berriak integratzea, ikasleen ikaskuntzaren ebaluazio eta segimendurako estrategia eta prozedurak, ikasleen motibazioa ikaskuntzara bideratzeko estrategiak, inklusibotasuna eta aniztasuna lantzeko modua, espazioen eta denboren antolamendua, taldekatzeak, ikasgela kudeatzeko estrategiak, bizikidetzak positiboak sustatzeko estrategiak, gatazkak hezkuntzaren bidez ebazteko estrategiak.

- Sormena, originaltasuna, estrategien aniztasuna, berrikuntzarako prestasuna.

B ZATIA: gai baten garapena.

Hauek hartuko dira kontuan:

– Gaiaren egitura

- Sarrera: gaiaren garrantzia justifikatzea.
- Aurkibide bat egitea, garatuko diren puntuekin.
- Ordena logiko bati jarraitzea azalpena egituratzean. Gaiaren antolamendu argia aurkeztea, erraz uler dadin. Edukiak garatzean, atalen sekuentziario logiko eta argiari jarraitzea.
- Gaia osotasunean lantzea. Epigrafe guztien eta gaiaren funtsezko puntuen garapen orekatua egitea.

– Gaiari buruzko ezagutza zientifikoa

- Ezagutza zientifiko eguneratu eta zorrotza, garapenean heldutasuna erakutsiz. Azal dutako kontzeptuak zehatzak eta egokiak izatea. Tesi eta argudioetan sakontzea.
- Garatutako gaiari aplikatu behar zaion araudia ezagutu eta lotzea.
- Gai teorikoa eta irakasle-jarduna lotzea.
- Akatsik ez egitea kontzeptuetan edo eragiketak, demostrazioak eta antzekoak garatzean.
- Adibideak eskaintzea, lanketa pertsonala.
- Gaiarekin zerikusia duten planteamendu edo iritziak aipatzea, iturri eguneratuak ezagutzen dituela erakutsiz.
- Aipamen bibliografiko egokiak, eguneratuak eta historikoak (hala badagokio)
- Datuak esanguratsuak, zehatzak eta adierazgarriak izatea. Beste gai batzuetako edukiekin lotzea.
- Sintesisirako gaitasuna.

– Hizkuntza-konpetentzia

- Espezialitatearen edo lanbide-arloaren berezko terminologia erabiltzea.
- Azalpena argia izatea. Hitz-jarioa, egokitzapena, zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa.
- Zuzentasun ortografiko eta sintaktikoa.

– Planteamendu originala egitea.

2.- BIGARREN PROBA:

A ZATIA - PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA: idatzizko lana eta ahozko defentsa.

Hauek hartuko dira kontuan programazio didaktikoa baloratzeko:

– Deialdiaren betekizunei egokitzea:

- Ikasturte bat garatzea, espezialitate horretako irakasleek emateko eskumena duten hezkuntza-maila edo -etapa bateko ikasturte bat.
- Kontuan hartzea deialdi honetako VI. eranskinean adierazi den araudiak araututako indarreko curriculumak.
- Hautatu den ikasturteko curriculum-elementu guztiak sartzea programazioan.
- Deialdian ezarri diren betekizun formalak eta eduki-betekizunak betetzea.
- Deialdian adierazi diren luzerari eta aurkezpenari buruzko betekizunak betetzea.

– Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa.

- Idazketa eta ahozko aurkezpena argiak, ordenatuak eta arinak izatea. Azalpenaren antolamendu egituratua.
- Hiztegia zuzen eta zehatz erabiltzea.
- Sintesirako gaitasuna eta ezarritako denborari egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, atal gakoak azpimarratzea, ondorioak.

– Egitura eta edukia.

- Sarreran, lege-arloko justifikazioa egin eta testuinguruan jartzea.
- Araudian azaltzen diren programazio didaktikoko elementu guztiak garatzea. Programazioko elementuen arteko koherentzia.
- Ikaskuntza-helburuak teknikoki ondo formulatuta egotea eta koherenteak izatea. Curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehaztu behar dituzte, eta behar bezala egokituta egon ikasturtearen, ikasleen ezaugarri eta garapen-mailaren eta hezkuntza-testuinguru zehatzaren arabera.
- Edukien hautapen eta sekuentziazioa egokiak izatea proposatutako helburuak eta hezkuntza-testuinguru zehatza kontuan hartuta, eta irizpide epistemologikoei eta funtzionalei erantzutea. Edukien sekuentzia argia, espezialitatearen curriculum-proiektuak ezartzen dituen konpetentziak eskuratu ahal izateko.
- Metodologia: Ikuspegi didaktikoa(k) zehaztea. Estrategiak, teknikak, metodoak, etab. zehaztea. Dagokion ikasturteari doitzea eta egokia izatea ikasturte horretarako. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Konpetentzien garapena bultzatzea. Diziiplina anitz lantzea. Egoera-arazoen edo erronken proposamena.
- Ikaskuntza- eta irakaskuntza-jardueren proposamena bat etortzea planteatutako helburuekin eta erabilitako metodologiarekin. Zabaltzeko eta indartzeko jarduerak.

- Ebaluazio-irizpideak eta kalifikaziorako adierazle eta irizpideak mailaren arabera egokituta: egokitzapen legala eta didaktikoa. Ikasleen aniztasuna aurreikustea.
- Ikasleen ebaluazio jarraiturako eta segimendurako prozesu eta tresnak bat etortzea ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin. Errekuperatzeko eta sakontzeko mekanismoak aztertzea.
- Kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien kompetentzia-atalekin lotutako etapako kompetentziak (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak) edo amaierako gaitasunak eskuratzen laguntzea.
- Tenporalizazioa.

– Aniztasunari arreta eskaintzea:

- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztu eta egokitzea, inklusibotasunaren printzipioa betez. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. Indartzeko eta sakontzeko planak.

B ZATIA. UNITATE DIDAKTIKOA: ahozko azalpena.

Hauek hartuko dira kontuan unitate didaktikoa baloratzeko:

– Deialdiaren betekizunei egokitzea:

- Izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotuta ala espezialitateko gai-zerrenda ofizialean oinarrituta sortuta. Izangaiak aukeratuko du.
- Deialdian ezarri diren betekizunak betetzea.

– Aurkezpena: komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia didaktikoa.

- Azalpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua. Komunikazio-egoeraren eta hitzaldiaren helburuaren arabera egokitzea erregistroa.
- Hiztegia zuzen eta zehatz erabiltzea.
- Sintesirako gaitasuna eta ezarritako denborari egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, atal gakoak azpimarratzea, ondorioak.

– Unitate didaktikoaren ezaugarriak, egitura eta edukia.

- Unitate didaktikoa koherentea izatea aurkeztu den programazioarekin, curriculum ofizialean ezarritakoarekin, ikastetxeko proiektuekin eta hezkuntzaren kompetentzien arabeko ikuspegiarekin.
- Unitate didaktikoa behar bezala testuinguruan jartzea, ikasleen ezaugarriak eta errealitatea kontuan hartuta. Irakaskuntzen eta ikasleen berariazko ezaugarriari erantzutea. Etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzei egokitzea.
- Araudian azaltzen diren elementu guztiak garatzea. Unitate didaktikoko elementuen arteko koherentzia.
- Helburuek eta ebaluazio-irizpideek behar bezala adieraztea zer lortu behar den unitate didaktikoa garatzeko ezarritako denboran.

- Ikaskuntza-helburuak egokitzea ikasturteari, ikasleen ezaugarri eta garapen-mailari eta irakaskuntza-testuinguru zehatzari. Teknikoki ondo formulatuta egotea. Koherenteak izatea programazioan bildutakoekin eta unitate didaktikoko gainerako elementuekin. Curriculum ofizialeko helburu orokorrak zehaztea. Adierazi diren ebaluazio-irizpideen eta adierazleen bitartez egiaztatu ahal izatea horiek lortu diren.
- Edukiak bat etortzea proposatutako helburuekin, metodologiarekin, ikaskuntza-irakaskuntzako jarduerekin, eta prozedura, ebaluazio-irizpide eta adierazleekin, eta behar bezala erantzutea irizpide epistemologikoei eta funtzionalei. Hezkuntza-testuinguru zehatzari egokitzea.
- Garatu behar diren kompetentzia edo amaierako gaitasunak azaltzea.
- Metodologia eta ikasgelaren edo bestelako ikaskuntza-espazioen antolaketa. Ikuspegi didaktikoa(k) zehaztea. Estrategiak, teknikak edo metodoak, etab. zehaztea. Dagokion ikasturteari doitzeta eta egokia izatea ikasturte horretarako. Kompetentziak eskuratzen nola laguntzen duen zehaztea. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Diziplina anitz lantzea.
- Unitatea garatzeko erabilitako baliabide didaktikoak.
- Ikaskuntza eta irakaskuntzako jardueren proposamen errealista eta koherentea, benetako egoerari, curriculum ofizialari eta indarrean diren printzipio metodologikoei egokituta. Egoera-arazoak izatea. Jarduerak antolatutako eta egituratuak ikaskuntza-eskuratze, -orokortze eta -transferentzia errazten duen sekuentzia baten bidez. Jarduerak bat etortzea planteatutako helburuekin eta erabilitako metodologiarekin, oinarriko kompetentzien garapena sustatzeko, berdinen arteko interakzioa bultzatzeko, aniztasunari arreta eskaintzeko, tenporalizazio egokia azaltzeko eta baliabide ezberdinen erabilera aurreikusteko.

Askotarikoak eta motibatzaileak, ondo sekuentziatutakoak, eta kontuan hartzen dutenak ikasgai bakoitzean erabili ohi den material didaktikoen erabilera.

- Ikasleen ebaluazio- eta balorazio-jarduerak, baita erreperatatzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere.
- Ebaluazio-irizpideak eta kalifikaziorako adierazle eta irizpideak mailaren arabera egokituta: egokitzapen legala eta didaktikoa. Bat etorri behar dute ikasleen aniztasunarekin.
- Ikasleen ebaluazio jarraiturako eta segimendurako prozesu eta tresnak bat etortzea ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin. Erreperatatzeko eta sakontzeko mekanismoak aztertzea.
- Kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien kompetentzia-atalekin lotutako etapako kompetentziak (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak) edo amaierako gaitasunak eskuratzen laguntzea.
- Prozeduren errealismoa, zehaztasuna eta egokitzapen praktikoa, eta ikasleen ikaskuntza eta irakasle-praktika bera ebaluatzeko irizpide eta adierazleak.

– Aniztasunari arreta eskaintzea:

- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztu eta egokitzea, inklusibotasunaren printzipioa betez. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehaztea. Indartzeko eta sakontzeko planak.

– DEBATEA EPAIMAHAIAREKIN.

- Epaimahaiak egindako galderaren/galderen erantzunak zehatzak eta zuzenak izatea.
- Beste argudio batzuk ematea, ahozko aurkezpenean, programazio didaktikoan edo ariketa praktikoan azaldutako argudioen osagarri edo zabalgarri.
- Gaitasun pedagogikoa. Aditua izatea irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren tekniketari.
- Ziurtasuna eta heldutasun pedagogikoa agertzea egiten dituen proposamenetan.
- Adierazpen egokia. Erregistro egokia erabiltzea komunikazio-egoeraren arabera.

GORAGOKO MAILA BATEAN SAILKATUTA DAGOEN IRAKASLEEN BESTE KIDEGO BATERA IRISTEKO PROZEDURA

1.– LEHENENGO ZATIA: gai baten ahozko azalpena eta planteamendu didaktikoa.

Hauek hartuko dira kontuan bi ariketak baloratzeko:

- Eskatutakoari lotzea, oinarrizko alderdiak garatzea, kontzeptuak behar bezala definitu eta/edo azaltzea.
- Aurkezpen argia eta arina. Atalen sekuentzia ordenatu eta koherentea.
- Gramatikan eta lexikoan, zuzentasun- eta konplexutasun-maila egokiak.
- Erregistro egokia erabiltzea komunikazio-egoeraren eta hitzaldiaren helburuaren arabera.
- Terminologia zientifiko, pedagogiko eta didaktikoaren erabilera zehatz eta eguneratua.
- Sintesisirako gaitasuna, ezarritako denborari egokitzea.
- Originaltasuna.

– GAI BATEN AHOZKO AZALPENA

Hauek ere hartuko dira kontuan gaiaren ahozko azalpena baloratzeko:

- Gaia egituratzea: aurkezpena, garapena eta ondorioak.
- Gaiaren funtsezko puntu guztiak garatzea.
- Eduki zientifiko-teoriko egokia. Aditua izatea diziplinaren eduki epistemologikoan.
- Informazioaren eta kontzeptuen aurkezpen zehatz, zorrotz eta eguneratua egitea. Tesi eta argudioetan sakontzea. Datuak esanguratsuak eta adierazgarriak izatea.
- Bestelako planteamendu edo iritziak aipatzea, iturri ezberdinak eta eguneratuak ezagutzen dituela erakutsiz.

- Adibideak eskaintzea, zehaztasun-maila egokia, lanketa pertsonala.
- Ondorioak aurkeztea.
- Bibliografia edo webgrafiaren ezagutza eguneratua.

– PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA

Alderdi hauek ere hartuko dira kontuan planteamendu didaktikoa baloratzeko:

- Testuinguruan jartzea.
- Planteamendu didaktiko errealista eta testuingurua, etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzei egokitu, eta koherentea ikasleen ezaugarriekin, curriculum ofizialean ezarritakoarekin, indarrean diren printzipio metodologikoekin, ikastetxeko proiektuekin eta hezkuntzaren kompetentzien arabera ikuspegiarekin.
- Plangintza didaktiko baten oinarritzko elementu guztiak biltzea.
- Behar bezalako tenporalizazioa.
- Ikaskuntza-helburuak teknikoki ondo formulatuta egotea. Curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehaztu behar dituzte, testuinguru zehatzari egokituak eta oinarritzko kompetentzien garapena sustatzea.
- Edukiak bat etortzea proposatutako helburuekin, garatu beharreko oinarritzko kompetentziekin, metodologiarekin, ikaskuntza-irakaskuntzako jarduerekin, eta prozedura, ebaluazio-irizpide eta adierazleekin, eta behar bezala erantzutea irizpide epistemologikoei eta funtzionalei.
- Ikasleak lortu behar duen garapen-maila zehaztea, oinarritzko kompetentzietan (zeharkakoak nahiz diziplinazkoak), edo kasuan kasuko lanbide-profilari berez dagozkien kompetentzia-atalekin lotutako amaierako-gaitasunetan.
- Metodologia eta ikuspegi didaktikoa. Ikasgelan edo bestelako ikaskuntza-espazioen antolaketa. Egoera-arazoak, erronken, proiektuen planteamendua. Metodologiaren eraginak zein ekarpen egiten dion kompetentzien garapenari. Diziplina anitz lantzea. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak.
- Unitatea garatzeko erabilitako baliabide didaktikoak. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea.
- Proposatutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak bat etortzea planteatutako helburuekin eta erabilitako metodologiarekin. Askotarikoak eta motibatzaileak. Sekuentziario egokia. Oinarritzko kompetentzien garapena, berdinen arteko interakzioa, talde- eta lankidetzaren bultzatzen dute. Aniztasunari erantzuna aztertzea.
- Ikasleen abiapuntua, aurretiko ezagutzak eta kompetentzien garapen-maila (hasierako ebaluazioa) identifikatzeko estrategiak.
- Oinarritzko kontzeptuen (aurretikoak eta motibatzaileak) lana, ikaskuntza berriak esanguratsua egiteko eta ulermena errazteko.
- Ikasleen ebaluazio- eta balorazio-jarduerak, baita erreperatatzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere.

- Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak mailari egokitua egotea, bat etortzea helburuekin eta edukiekin, eta ikasleen aniztasuna kontuan hartzen dute.
- Ikasleen ebaluazio eta segimendurako prozedura eta lanabesak bat etortzea ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin. Ebaluazio jarraiturako prozedurak. Kalifikazio-irizpideak. Segimendurako, errekuuperatzeko, indartzeko eta sakontzeko mekanismoak aurreikustea.
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztu eta egokitzea, inklusibotasunaren printzipioa betez. Hezkuntza-arloko esku-hartzea: hezkuntza-erronka eta proposamen ugari eskaintzea ikasleei, metodologia zehatzak lantzea, egokitzapenak egitea curriculum, antolaketa, metodologia eta antzekoetan, ikasle bakoitzaren ahalik eta garapen gehien lortzera kontuan hartuta. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko estrategia zehatzak.
- Irakasle-praktika bera ebaluatzeko prozedurak.

2.– BIGARREN ZATIA: ariketa praktikoa.

Txanda irekiko eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txandako proba praktikoa (lehenengo probaren A zatia) baloratzeko arestian adierazi diren irizpide berberak.

ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO PROZEDURA

GAI BATEN AHOZKO AZALPENA ETA PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA

Goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozedurako probaren lehenengo zatia baloratzeko arestian adierazi diren irizpide berberak.